

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10439 37/2015 Legea, irailaren 29koa, Errepideena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta Nik berretsi egiten dudala:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Definizioak.
3. artikulua. Elementu funtzionalak.
4. artikulua. Estatuko errepideak eta errepide-sarea.
5. artikulua. Estatuko errepide-sarean integratu gabeko Estatuko errepideak.
6. artikulua. Informatzeko betebeharra.

II. kapitulua. Errepideen plangintza, proiektua, eraikuntza eta ustiapena.

1. atala. Plangintza.

7. artikulua. Estatuko errepideen Plan Estrategikoa.
8. artikulua. Beste ministerio-sail batzuekiko koordinazioa.

2. atala. Errepideen programazioa, azterlanak eta proiektuak.

9. artikulua. Printzipio orokorrak.
10. artikulua. Errepide-programak.
11. artikulua. Errepideen azterlanak.
12. artikulua. Azterlanen eta proiektuen onarpena.
13. artikulua. Ingurumen-ebaluazioa.
14. artikulua. Bide-segurtasuneko ebaluazioa eta auditoriak.
15. artikulua. Kostu-onura ebaluazioa, irizpide anitzeko azterketa eta bideragarritasun finantzarioa.
16. artikulua. Lurralde-antolamendua eta hirigintza-antolamendua.

3. atala. Errepideen eraikuntza.

17. artikulua. Ondasunen eta eskubideen desjabetzea eta eragina.
18. artikulua. Aldez aurreko kontrolen salbuespena.

4. atala. Finantzaketa.

19. artikulua. Finantzaketa.
20. artikulua. Kontribuzio bereziak.

5. atala. Ustiapena.

- 21. artikulua. Ustiapena.
- 22. artikulua. Eskumena.
- 23. artikulua. Bidesarien salbuespenak.
- 24. artikulua. Emakida bidezko zeharkako kudeaketa.
- 25. artikulua. Zeharkako kudeaketako beste sistema batzuk.
- 26. artikulua. Zerbitzuguneak, atsedenguneak eta aparkaleku seguruak.
- 27. artikulua. Zerbitzuguneen esleipena.

III. kapitulua. Errepideen erabilera eta defentsa.

1. atala. Jabetzaren mugaketak.

- 28. artikulua. Errepideko babes-eremuak: xedapen orokorrak.
- 29. artikulua. Jabari publikoko eremua.
- 30. artikulua. Zedarritzeko obligazioa eta ikertzeko ahalmena.
- 31. artikulua. Zortasun-eremua.
- 32. artikulua. Eragin-eremua.
- 33. artikulua. Eraikigarritasuna mugatzeko eremua.
- 34. artikulua. Desjabetzeko ahalmena.
- 35. artikulua. Lanak geldiaraztea edo legeztatu gabeko erabilerak bertan behera uztea.
- 36. artikulua. Sarbideen mugaketa.
- 37. artikulua. Publizitatea.
- 38. artikulua. Zirkulazioa mugatzea.
- 39. artikulua. Edukiera- eta pisatze-instalazioak.
- 40. artikulua. Errepideari eragindako kalteak.

2. atala. Arau-hausteak eta zehapenak.

- 41. artikulua. Arau-hausteak.
- 42. artikulua. Zehatzeko ahala.
- 43. artikulua. Zehapenak.
- 44. artikulua. Eskumena.
- 45. artikulua. Arau-hausteak preskribatzea.

IV. kapitulua. Zeharbideak eta hiriko bide-zatiak.

- 46. artikulua. Zeharbideak.
- 47. artikulua. Hiriko bide-zatiak.
- 48. artikulua. Hiriko bide-zatiak zedarritzeko azterlanak.
- 49. artikulua. Errepideen hiriko bide-zatiak udalei entregatzea.

Lehenengo xedapen gehigarria. Estatuko errepideen katalogoa.
Bigarren xedapen gehigarria. Oinarrizko araudi teknikoa eta seinaleztatzea.
Hirugarren xedapen gehigarria. Errepide eta bide-zatien transferentzia.
Laugarren xedapen gehigarria. Defentsa nazionalaren interesak.
Bosgarren xedapen gehigarria. Katastroko inskripzioak.
Seigarren xedapen gehigarria. Administrazioen arteko lankidetzak.

Lehenengo xedapen iragankorra. Hiriko bide-zatiak zedarritzea.
Bigarren xedapen iragankorra. Desjabetzen araubide iragankorra.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetatik lehena. Errepideen Legearen Erregelamendua.
Azken xedapenetatik bigarrena. Autobideak emakida-erregimenean eraiki, mantendu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.

Azken xedapenetatik laugarrena. Zehapenak eguneratzea.

Azken xedapenetatik bosgarrena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetatik seigarrena. Indarrean jartzea.

I. eranskina. Definizioak.

II. eranskina. Estatuko Errepide Sarearen Katalogoa.

HITZAURREA

Espainiako Konstituzioak, 149.1.21 eta 149.1.24 artikuluetan, Estatuari egozten dio komunikazioen araubide orokorrari eta interes orokorreko lan publikoei edo autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten dien lan publikoei buruzko eskumen eskusiboa.

Errepideari izendatzen zaizkion hiru izaerak –jabari publikoa, lan publikoa eta zerbitzu publiko bat emateko euskarria– gure herrialdean azken mendeotan hurrenez hurren eman izan diren legerietan islatu izan dira, intentsitate handiagoz edo txikiagoz, une historiko bakoitzean, errealtate fisikoaren bilakaerara eta, azken batean, zerbitzatu behar zuten gizarteak egiten zituen eskaeretara ahalik eta ondoen egokitzeko xedearekin.

Ildo horretan esan daiteke Espainiako bide-legeriaren garapena paraleloan joan izan dela beti haren erregulazioaren xede izan diren errepideen mailarekin, zeina gaur egun oso aipagarria baita Espainian, izan ere, azken hamarraldiotan, nazio garatuenetakoekin inolako lotsarik gabe aldera daitezkeen hedapena eta kalitate teknikoa iritsi baitute, espainiar gizarteak azpiegituren eremuan egindako ahalegin aurrekaririk gabeari esker, kontuan izanik sare horren ezaugarriak: ez da alferrik oinarritzko elementua garraio-sisteman eta herrialdearen lurralde-egituraketan.

Orain arte indarrean egon den Errepideen Legea –uztailaren 29ko 25/1988 Legea– aurreko urteetan Estatuko errepideen parte garrantzitsu bat autonomia-erkidegoei transferitu ostean promulgatu zen, 1984-1991 Errepideen Plan Orokorra betetzeko, sarearen modernizazioari ekiten ari zitzaion une batean. Esandako Lege hori abenduaren 27ko 24/2001 Legeak, ekainaren 22ko 11/2001 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 29ko 14/2000 Legeak, urriaren 1eko 15/1999 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, abenduaren 30eko 13/1996 Legeak eta abenduaren 30eko 42/1994 Legeak aldatu zuten partzialki.

Aipatutako Legea garatzeko, irailaren 2ko 1812/1994 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Errepideetako Erregelamendu Orokorra, zeina partzialki aldatu baitzuten otsailaren 9ko 114/2011 Errege Dekretuak, apirilaren 16ko 597/1997 Errege Dekretuak, abenduaren 19ko 1911/1997 Errege Dekretuak eta abenduaren 30eko 42/1994 Legeak.

Mende laurden bat baino gehiago joan da errepideen eskualdatze hura egiten hasi zenetik eta Legea promulgatu zenetik, eta denbora horretan funtsezko aldaketak gertatu dira bai Estatuaren, bai autonomia-erkidegoen eta bai toki-administrazioen errepide-sareetan. Gizartearen iritzian ere aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hainbat alderdiri dagokienez, esate baterako, bide-segurtasunari, azpiegiturek ingurumenean duten integrazioari, garraio-sareen kudeaketan eraginkortasuna bilatzeari eta finantza-baliabide publikoei buruzko gaietan. Gai horietan guztietan Espainiako gizartearen eskaerak, gaur egun, dezentez zorrotzagoak dira, aurreko legea promulgatu zen urteetan baino. Bestalde, gero eta arreta handiagoa eskaintzen zaio errepideek ematen duten zerbitzuari, eta ez bakarrik horretarako aurrera eramane beharreko obra edo lanei, irizten baitzaio zerbitzu onak azpiegiturak gauzatzeko hutsa baino askoz gehiago eskatzen duela.

Beharrezkoa da, hortaz, ahalik eta lurralde gutxien okupatuz, gero eta handiagoa den mugikortasun premiak sortzen dituen arazoak ebaztea, eta horrek, errepide berriak eraikitzen hasi aurretik, oraingo azpiegiturak ematen duen zerbitzua optimizatzeari lehentasuna ematea eskatzen du. Zerbitzuaren optimizazio hori garraio-modu desberdinen integrazio egokian oinarritzen da, garraio publikoaren sustapenean, koordinazio eraginkor baten lorpenean –bai errepide-sareen artean eta bai intermodalitatearen bitartez–, eta errepideen kontserbazio egokian, hala bideen egoera fisikoari dagokionez –mantentze-lan

eta ustiapen egokiaren bitartez— nola berorien izaera funtzionalari, beren funtziotik kanpoko erabilerengatik edota kaltegarriak zaizkien jarduketan ondorioz egitura horiek hondatzea ekidinez.

Behar-beharrezkoa da, orobat, bai hirigintzako plangintza eta garapena eta bai lurraldearen antolamendua ibilbide luzeko zirkulazioaren fluxuarekin uztartzea, zirkulazio hori oztopatzeak oso eragin kaltegarriak izan bailitzake Estatuko errepide-sarean eta, bide batez, eraginkortasun ezak sor litzake horretara eskaintzen diren baliabideen kudeaketan.

Horregatik guztiagatik, premiazkoa da errepideei buruzko legeria eguneratzea, bere egituran eta edukian nolabaiteko jarraitasunari eusten saiatuz, baina, era berean, beharrezko aldaketak eginez, jasotzen dituen aginduak behar bezala egokitu daitezten bideen zerbitzu publiko egoki baten eskaeratar.

Horrela bada, komenigarria ikusi da Legean bideen zerbitzu publikoaren kontzeptua sartzea, zeina, ezaguna izateaz gainera, tradizioz errepideen kudeaketaren oinarri gisa hartu izan den arren, ez baitzegoen esplizituki islatua errepideei buruzko indarreko legerian.

Adierazitako horren ildoan, azpiegituren eraikuntzaren, mantentze-lanen eta ustiapenaren eta ingurumenaren —bere kontzeptu zabalenean— kudeaketaren eta defentsaren artean ahalik eta bateragarritasun eta koordinazio handiena lortzera orientatutako kudeaketaren alderdiei eman beharrek garrantzia islatzen du testuak.

Bestalde, errepide-sareek Espainian izan duten garapen nabarmena dela medio, beharrezkoa da Estatuaren eta gainerako administrazio publikoen errepide jakin batzuekiko eskumenak birdoitzea, hala, irizpide funtzionaltan oinarritutako sareen kudeaketa arrazionalago bat lortzeko. Arrazionalizazio hori funtsezkoa da Administrazio bakoitzak bere sareetako jarduketan artean ezinbesteko koordinazioa erdiesteko, hala izan ezean, funtzioak elkar gainkatzen direnez, oso zaila baita disfuntzioak ekiditea eta plangintzak harmonizatzea. Era berean, ezinbestekoa da sare desberdinen arteko titulartasun trukeak ahalbidetzeko prozedura arintzea bide-zati baten edo ibilbide jakin baten trukaketa edo lagapena interes publikorako komenigarria den kasuetan.

Ildo horretan, oinarritzkoa da honako irizpide hau, alegia, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena dela populazio-gune garrantzitsuenak lotzen dituen ibilbide luzeko zirkulazioari zerbitzua ematea, baita lurralde nazionalako eta auzo-herrialdeetako sareekiko konexio-puntu nagusiak, zentro logistiko printzipalak, eta abar, elkartzen dituen zirkulazioari ere, hori guztia lege honetan ezartzen diren baldintzetan. Autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazioei dagokie, bestalde, ibilbide luzeko saretik bere lurralde eremuko puntuetarainoko zirkulazioaren banaketa-zerbitzuaz arduratzea; administrazio horien papera, hortaz, osagarria izango da, baina, era berean, oinarritzkoa, lurralde osoko irisgarritasun optimoa lortzeko.

Errepide-sareen espezializazio funtzionala funtsezko printzipioa da, eta ez bakarrik Administrazioen arteko koordinazio ona errazteko, baita —eta honetan bat dator aurrez aipatutako beste gizarte-lehentasan batekin— bide-segurtasuna optimizatzeko ere. Halaxe da, ahal den neurrian, ibilbide luzeko, ertaineko eta laburreko zirkulazioak bereiztea beti da ekintza eraginkorra istripu-tasen aurka borrokatzeko, izan ere, dagokion bidea era homogeneoagoan erabiltzea errazten du, errazago aurreikusteko moduan.

Bideak eman behar duen zerbitzu motari oso estu lotuta dago, bestalde —eta bereziki, segurtasunari dagokionez— errepideetarako sarbideak kontrolatu beharra. Aurreko legeriak kontuan hartzen zuen alderdi hori; hala ere, azken hogeita bost urteotako etengabeko hazkundearen eraginez, hirigintza-, merkataritza- eta industria-garapenak etengabeko presioa egiten dute Estatuko errepideetan eta konexio berriak eskatzen zaizkie behin eta berriro mota guztietako sarbideak errazteko, kontuan hartu gabe sarbide berri bakoitza gatazka-puntu berri bat dela eta lurraldeko puntu zehatzetarako irisgarritasuna, ibilbide luzeko saretik hurbil egon arren, banaketa-sareen bitartez egin behar litzatekeela, Estatuko errepideen eginkizun nagusia ez kaltetzeko.

Zerbitzu horretan oinarrituta eta kontuan harturik esandako Sareko errepideen hartzaile nagusia ibilbide luzeko zirkulazioa dela, horretara zuzendu behar dira Estatuko Errepideen Administrazioaren ahaleginak, esandako printzipioak kontuan izanik, ibilbide horietan zehar

hirugarrenek planeatzen eta garatzen dituzten jarduketa puntualak bateragarriak izan daitezzen bidearen xede nagusiarekin, bai legez erabakitako haren babes-eremuaren defentsan, eta bai mugako garapenak eskatutako sarbideen kudeaketa egokia egitean, haiek izaera publiko edo pribatukoak izan, betiere bide-segurtasunaren perspektiba izanik aipatutakoen arteko oinarrizko helburu gisa. Administrazioen arteko koordinazioari buruzko konstituzio-printzipioa ezertan galarazi gabe, bidearen defentsak eskatzen du berorretan bermatuta etorkizunean gauzatuko diren jarduketak azpiegituraren erabilera nagusiarekiko bateragarritasunean oinarrituta egin daitezela, zeina bidean eragina izan dezakeen edozein jarduketaren sustatzaileak frogatu beharko duen.

Sarearen arrazionalizazioaz egin diren gogoetek eta sarbideen kontrola behin eta berriro eskatzeko premiak beharrezkoa egin dute errepideen sailkapena aldatzea. Hala, bide lasterren kategoria ezabatu da eta errei anitzeko errepideena sortu da. Beraz, lege honetan ezabatuta geratu da aurreko «bide lasterra» kategoria, ez delako beharrezkoa kategoria berezi bat errepide arrunt hauentzat eta berorien izenak, gainera, bide-segurtasunaren kontrako mezua dakarrelako; baita arau honen aplikazio-eremuarekin oso erlazionatuta dauden sektoreko beste lege batzuk egokitzeko ere.

Aurrez aipatutako hori guztia Estatuko errepide-sarearen barruan praktikan jartzea errazteko xedearekin, berorretan oinarrizko sare bat eta sare osagarri bat definitzeko baldintzak ezarri dira. Errepide kategoria berri bat ere ezarri da, Estatuaren titulartasunekoak izanik, Estatuko errepide-sarearen parte ez direnek osatua: esandako sareari atxikitako bide-sareaz ari gara, eta, horien barruan, beste administrazio batzuei transferitu lekizkiekeen errepideak, ez dituztelako betetzen Estatuko errepide-sarean integratzeko eskatzen diren baldintzak. Kategoria iragankorra da, izan ere, Estatuko Administrazio Orokorrari, halaber, dagozkion titulartasun-transferentziak sustatzeko obligazioa ezartzen baitaio, dagozkion administrazio publikoarekiko akordioaren figurari lehentasuna emanez. Horrek esan nahi du Administrazio Publikoen Erreformatarako Batzordearen txostenean jasotako neurri bat beteko dela, zeinak adierazten baitzuen errepideen eremuko kudeaketa-bikoiztasunak saihesteko, legeria aldatuko dela, hiri barruko zeharbideak diren Estatuaren errepide-zatiak dagokien udalei dohainik laga ahal izateko.

Gaur egungo beste gizarte-lehentasunetako bat bide-azpiegiturak mugikortasun iraungarriaren prismatik hautematea da. Iraungarritasun horrek, beste gauza batzuen artean, orain dagoen azpiegituraren kudeaketa eta erabilpenean eraginkortasun handiagoa lortzea inplikatzeko du, errepide berriekin lurralde gehiago okupatu baino lehen. Iraungarritasunaren ezarpenak dira, era berean, intermodalitatea kontuan hartzea hiri-aglomerazioen inguruan, eta errepideak eta ingurumenaren defentsa eta babesa bateragarri egitea, kontuan hartu beharreko alderdi funtsezkoak baitira errepideen politika erabakitzeko orduan. Lege honek, lehentasun eta irizpen horiek jasotzeaz gainera, hainbat manu ezartzen ditu bide-sareko jarduketetan esandako horien ezarpen praktikoa gauzatzera bideratuta.

Errepideen, lurralde-antolamenduaren eta hirigintza-plangintzaren arteko erlazioari ere ekiten zaio Legean, bertan jasotzen baita hirigintzako garapenak beren aurreikuspen propioak integratu behar dituztela sortzen dituzten mugikortasun arloko tokiko eskaerak asetzeko. Urbanizatze prozesua ez dago sostengatzerik esandako mugikortasun premiei soluzioak ematera etorriko diren Estatuko errepide berriak etengabe eskatze horretan, ez baita hori aipatutako errepideen funtzioa. Ez da onargarria Estatuko errepide-sarearen garapena lurralde- eta hirigintza-plangintzaren –eta ez beste ezeren– azpian eta mende egotea. Hirigintzak konpondu behar ditu berak sortzen dituen mugikortasun beharrak, bere sistema eta azpiegitura propioak garatuz eta beste bide-sare batzuetan sostengatuz, garapen berrietatik sortzen diren zirkulazio-fluxuak ibilbide luzeko sarera isuri aurretik.

Adierazi diren alderdiei dagokienez, Sustapen Ministerioari –bere eskumenen barruan– ezartzen zaizkion hainbat obligazio jasotzen dira Legean. Zehazki ezartzen da hiri-aglomerazioen hurbileko errepide-zatiak aztertzen direnean, har daitezela kontuan beste aukera batzuk auto-pilaketak minimizatzeke, intermodalitatea eta mugikortasun iraungarriko azterlanak sustatuz. Bestalde, Estatuko errepideetan eragina duten hirigintza-planei buruzko txostenetan, betebeharrak gisa mantentzen da, kasu guztietan, Sustapen

Ministerioaren berariazko txosten bat egon beharra, errepideen –edo haien sarbide edo konexioen– aldaketak inplikatzan dituzten planak onartu aurretik.

Beste berritasun adierazgarri bat da erredaktatzen ari den errepide-azterlan batean jasotako korridoreak babes maila jakin baten xede izan daitezen ahalbidetzea, esandako azterlana garatzen eta onartzen den bitartean, hirigintza-jarduketan ugalketak eta mota guztietako eraikuntzek ez dezaten eragotzi hautatutako korridorearen inguruko azpiegituren etorkizuneko garapena; hala, esandako babes mailak, aztertzen ari diren korridore guztietako lursailen sailkapena aldatu gabe –arazo garrantzitsua izango litzateke hori auziaren tamainagatik eta eskumen arloko konplexutasunagatik–, bide emango luke, gutxienez, denbora epe mugatu batean, baimen eta lizentzia berriak mugatuko dituen kontrol egoki bat gauzatzeko eta, horrela, etorkizuneko gailak minimizatuko lirateke desjabetzeengatik eta berorien administrazio-kudeaketarako zailtasunengatik.

Azkenik, komeni da nabarmentzea testu berrian jasotzen diren beste zenbait berrikuntza. Honako hauek dira:

Errepideen ustiapenaren funtzioak zehazten dira, hor sartzen direlarik, bideen kontserbazio eta mantentze-lanetako operazioak, bidearen defentsara eta haren erabilpen hobera zuzendutako jarduketak, eta seinalezatzeari, ingurumenaren integrazioari, bide-segurtasunari, sarbideen antolamenduari eta errepidearen babes-eremuen erabilerrari buruzkoak barne.

Ingurumenari eta bide-segurtasunari lotutako arrazoiengatik publizitatea arautu da eta, errepideetan, hiri barruko bide-zatietan soilik baimenduko da.

Errepideetako sarbideei buruz indarrean dagoen araubidea argitu egin da, egungo Errepideetako Erregelamendu Orokorren zenbait agindu gehitu baitira legera, sarearen funtzio-osotasuna defendatzeko duten garrantziagatik.

Autonomietako errepide-sareekiko koordinazioa erraztu da, irizpide funtzionalak ezarri baitira haiek Estatuko sarearekin konektatzeko, eta erabaki horiek Administrazioen arteko akordioen mende egongo dira.

Aldaketa arin batzuk egin dira errepideen babes-eremuen deskribapenean; hala, eraikigarritasuna mugatzeko eremua sortzeaz gainera, zortasun akustikoaren kontzeptua sartu da hura zedarrizteko; era berean, lur-berdinketaren kanpoko ertzaren deskribapena ere aldatu da, hura errealtatera egokitzeko eta aurreko Legearen aplikazioan sortutako gatazkak ebazteko; halaber, eraikitze muga-lerroaren distantzia ere aldatu egin da errepide desberdinetan eta berorien elementuetan, mugaketa horien helburu den defentsaren eraginkortasuna hobetze aldera.

Gainera, izaera operatiboko beste aldaketa batzuk ere sartu dira, eraginkortasun handiagoa lortu nahian. Beste batzuen artean, azterlan eta proiektuei eta obra edo lanen eraikitze-araubideari aplikatzekoa zaion araudia osatzera zuzendutakoak daude, honako alderdi hauei dagokienez: eraginpeko zerbitzuei eta azterlanak elaboratzeko beharrezko datuak eskuratzeko aukera izateari, gehiegizko luzamendurik gabe.

Lege berriak, azkenik, Estatuko errepideen katalogoa eguneratzen du jasotzen duen sailkapenaren arabera eta Sustapen Ministerioari katalogo hori eguneratuta edukitzeko obligazioa ezartzen dio.

Lege honek 49 artikulua ditu guztira, lau kapitulutan antolatuta, gehi sei xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaille bat eta sei azken xedapen.

Lehenengo kapituluan legearen xedea ezartzen da, hau da, Estatuko errepide-sarearen erregulazioa eta hari dagokion jabari publikoa eta babes-eremuak. Jabari publikoaren kontzeptuari dagokionez, hobetu egin da aurreko araua, hark errepideak soilik aipatzen baitzituen, eta horiek araututako xedearen parte bat baizik ez dira. Xede horretarako definitu da bideen jabari publikoa, non, errepideak eurak ez ezik, haiei atxikitako bide-sarea, haien elementu funtzionalak eta errepideen ondoko eremuak ere sartzen baitira.

Errepideen definizioa ere aldatu egin da neurri batean, hura nazioko eta nazioarteko lege-terminologiara hurbiltzearen, eta sailkapena ere aldatu da: kategoria bat desagertu egin da –bide lasterra deitua, gaur erabiltzen ez dena– eta kategoria berri bat sortu da, errei anitzeko errepidea deitu zaiona, bide-sistemaren errealtatera hobeto egokitzeko

helburuarekin. Errepideen elementu funtzionalen definizioa ere osatu da eta elementu horiek bideen jabari publikoaren parte direla ezarri da.

Lurralde nazionalean existitzen diren errepideen barruan, zehaztasun handiagoz definitu dira Estatuko errepide-sarea osatzen duten haiek, eta sailkapena egitean Oinarrizko Sarea eta Sare Osagarria bereizi dira, zein bere ezaugarri eta funtzionaltasunekin, eta, era berean, haiei atxikitako bide-sarea ere definitu da, zeina, Estatuaren titulartasunekoak izanik, adierazitako multzo horietan sartzen ez diren gainerako bideek osatzen baitute.

Estatuko errepide-sarea aldatzeko aukera ere –bai haien titulartasuna beste administrazio publiko batzuei laga zaielako, edo, alderantziz, beste titulartasun batzuetako errepideak esandako Sarera gehitu direlako– aurreikusten da Legean, aldaketa hori egiteko jarraitu beharreko prozedurarekin batera.

Halaber, errepideen izendapenari dagozkion irizpideak ere ezarri dira, baita titulartasun desberdineko errepideen kasuan aplikatu beharreko koordinazio-printzipioak ere, bikoiztasunak edo erabiltzaileentzako nahasmenduak eragoztearren. Ezarrita geratu da, era berean, nazioaz gaindiko sareetan jasotzeko prozedura, horretarako betebeharrak biltzen dituzten errepide edo errepide-zatientzat.

II. kapituluak bost atal ditu. Lehenengo atala errepideen plangintzari eskainita dago, plangintza horren edukia eta izapideak zehazten baititu. Bigarren atala errepideen programa, azterlan eta proiektuei buruzkoa da, eta neurri aitzindariak sartzen ditu obra publikoei buruzko gure ordenamendu juridikoan, adibidez, jarduketa garrantzitsuenetan kostu/onura azterketak nahitaez egin beharra, beste herrialde eta nazioarteko erakunde batzuetako arau arloko joerekin bat etorritz eta inbertsio publikoetan eraginkortasun handiagoa lortze aldera.

Helburu berberarekin xedatu da, errepideen inguruko jarduketak lehenesteko orduan, nahitaez irizpide anitzeko analisiak gauzatu beharra. Ez du berritasun gutxiago ustiapen berezitua izan dezaketen bideetako jarduketa guztietan zeharkako kudeaketako formulak edo lankidetzak publiko-pribatukoak erabiltzearen bideragarritasuna edo bidezkotasuna aztertzeko obligazioak.

Errepideei buruzko azterketa motei dagokienez, haietako batzuen definizioak osatu eta eguneratu dira, baita beste batzuk gehitu ere, adibidez, hiriko bide-zatien mugaketari, obra-amaierako dokumentuei, eta abarri buruzkoak, horrela, lege ezarrita geratzen baitira berorien edukiak.

Proiektuen eta azterlanen onarpena ere, era berean, erregulazioaren xede izan da, bereziki jendaurreko informazioari eta haiek onartzearen ondorioei dagokienean.

Orain arte partzialki baizik araututa ez zeuden errepideetako larrialdiko obrak ere kontuan hartu dira, berorien egikaritza errazte aldera.

Bereziki esanguratsua da bide-segurtasunak duen garrantziaren aitormena. Horri buruz esan behar da errepideetako jarduketan kontzepzio eta egikaritze faseetan, talka-ebaluazioak eta berariazko auditoriak nahitaez aurrera eramateko obligazioa sartu dela legean.

Ez da garrantzi txikiagokoa errepideen plangintza eta lurralde- eta hirigintza-antolamendua koordinatzeko prozedurei buruz Legean egin den erregulazio xehatua, izan ere, era koordinatuan eraman behar baitira aurrera prozedura horiek gero zuzenketa zaila eta garestia izango luketen disfuntzioak eragozteko, eta horretarako aldi baterako kautela-neurriak xedatzen dira. Neurri batean aldatu dira, halaber, jendaurreko informaziorako prozedurak, Administrazioaren jardunean gardentasun handiagoa lortze aldera.

Kontuan izanik bide-sistematikiko eragina errepidearekin hertsiki mugakideak ez diren baina beren irisgarritasunerako hartaz baliatu behar duten hirigintzako garapenengatik gerta daitekeela, hedatu egin da informazio eta koordinazio premia errepideen eragin-eremuetan kokatutako plangintzetara.

3. atala errepideen eraikuntzari eskainita dago, eta bereziki aipagarriak dira kaltetutako zerbitzuak berriro abian jartzera orientatutako xedapenak, modu horretan, atzerapenak eta garestitzeak ekiditeko errepideetako jarduketan egikaritzan. Era berean, orain indarrean dagoen errepideen eraikuntzarako lizentziak lortzeko obligazioaren

salbuespena haiek proiektatzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren zereginetara hedatu da.

Errepideen finantzaketari dagokionez, eta orain indarrean dauden sistemak mantentzea ezertan galarazi gabe, 4. atalean xehetasun handiagoz erregulatu da ekarpen bereziak ezartzeari buruzko sistema, zeina nahitaezkoa izango baita Administrazioarentzat zenbait kasu jakinetan.

5. atalaren gaia honako hau da: errepideen ustiapena, berorren edukia eta kudeatzeko era.

Zerbitzuguneen eta aparkaleku seguruen erregulazioko alderdi jakin batzuk aldatu egin dira, bereziki, aipatutako elementu funtzionalen sustapenean ekimen partikularra aitortzeari dagokionez, betiere errepidearen ustiapena eta hura erabiltzen dutenei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko xedearekin.

Legearen III. kapitulua errepide-sarearen kudeaketa egokia egiteko oinarrizko alderdiei buruzkoa da, eta hor sartzen dira errepideen erabilerari eta defentsari erreferentzia egiten diotenak.

1. atalean, «Jabetzaren mugaketak eta errepideen erabilerak», errepidearen babes-eremu desberdinak deskribatzen dira, berrikuntzak dakartzaten zenbait alderdi sartzen direla. Horrela, tradiziozko jabari publikoko, bide-zorrekoko eta eraginpeko eremuei beste berri bat erantsi zaie, eraikigarritasuna mugatzeko eremua deritzana, zeinak osatu eta hobetu egiten baitu orain arte indarrean zegoen eraikitze mugak mugak kontzeptua eta lerro horren kokapena aldatu egin du herrietako saihebidetan, 50 metrora murriztu baita orain, galtzadaren kanpoko ertzetik zenbatuta, esandako eraikitze mugak mugak lerroaren distantzia, aurreko Legeko 100 metrokoaren ordean. Horri erantsi behar zaio, errepide-bazterren babes orokorra hobea izan dadin, beste zehaztapen bat egin dela: eraikigarritasuna mugatzeko eremuan sarturik dauden lursailen sailkapena eta kalifikazioa ezingo dira ezein kasutan aldatu, baldin eta aldaketa hori lege honetan ezarritakoarekin kontraesanean balego.

Aldiz, areagotu egin da babesa bidegurutzeen, biratzeko adarren eta, oro har, errepide-lotuneen inguruan, izan ere, orain arte, kasu asko eta askotan, haien hobekuntza zaildu, garestitu edota galarazi egiten zuen haiek zabaldu ahal izateko behar bezainbateko bide-erreserba ez egoteak. Horregatik, 50 metrora handitu da eraikitze mugak mugak lerroaren distantzia aipatu berri diren kasu bakan horietan.

Errepidearen babes egokia harekin mugakide diren jabetzen interes legitimoekin uztartu ahal izateko, hainbat neurri ezarri dira. Adibidez, jarduketa berriak zerbitzuan jartzetik eratortzen diren eraikitze mugak mugak lerroaren aldaketek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea emango diete beren eskubide errealetan galera izan dutela egiaztatzen dutenei; eta gauza bera gertatuko da esandako jarduketa berriak ekimen pribatuz edo hirugarrenen ekimenez sustatzen direnean, nahiz eta erabilpen publikokoak izan. Horrela bada, sustatzaileari dagokio esandako kalte-ordain horiek ordaintzeko obligazioa. Kalte-ordaina eskatu ahal izango da, orobat, eraikitzen diren errepideen ondoko lursailetan edo haietan egiten diren jarduketan ondorioz sortutako balio galeragatik, jabetzaren estatutu juridikoan izandako gutxitzearen ondorioz, aitortutako eraikigarritasuna galtzea barne, eta beste leku batean konpentsatzerik ez dagoenean.

Eraginpeko eremuan obrak edo aktibitateak gauzatzeko aukerak handitu egin dira, hain zuzen ere, gutxitu egin direlako haiek mugatzen zituzten kausak. Horri gehitzera dator eraginpeko eremuaren definizio berri bat, tunelen eta haien elementu funtzionalen kasuan, berorien babes egokia bermatzeko xedearekin.

Azkenik, jendaurreko informazioaren pean egon ostean, behin betiko onartutako zarata-mapen edo zaratari buruzko berariazko azterlanen arabera zortasun akustikoko eremuak ezartzetik eratorritako murrizketen mende jarri da bizitegitarako eraikuntza.

Legeak, era berean, bideen jabari publikoaren zedarritzea egiteko obligazioa jasotzen du, prozedura horretarako ildo nagusiak barne, baita titulartasun publikoko bideen zerbitzu publikoaren eraginpean dauden lursailak eta eraikinak erregistroan inskribatzeko obligazioa ere, zeina doakoa izango baita.

Errepideen bazterretan hirugarrenek baimenik gabe gauzatutako obrak paralizatzeari edo legeztatu gabeko erabilerak eteteari dagokionez, funtzioak banatzeko esparru berri bat ezarri da, izaera horretako jarduketan izapideen zalutasuna eta eraginkortasuna hobetzea bilatzen duena, baimendu gabeko erabilerak edo daukaten baimenaren baldintzetara doitzen ez direnak paralizatzea lortzeko xedez, burututako egitateen praktikarekin amaitzeko eta behar bezala bereiztearren legeztatu daitezkeenen eta ezin daitezkeenen izapideak, eta, horrekin batera, Administrazioari bide emateko, bide-segurtasunerako edo bidearen ustiapen egokirako arriskutsuak diren jarduketan aurrean, berehalako neurriak har ditzan haiek ezereztatzeko, kausatzailearen kargura.

Bestalde, hobetu egin da errepideetarako sarbideen erregulazioa, aparteko gainbegiratzea eta zaintza eskatzen duten elementuak direnez, izan ere, ez baitiote bide-segurtasunari kalterik ekarri behar, eta horretarako irizpide argiak, homogeenak eta eraginkorrak ezarri behar dira, eta arau-hauste oso astuntzat sailkatu, baimenik gabe gauzatzen edo aldatzen diren kasuan. Izaera orokorrean erregulatu da, beste batzuen artean, errepideetara zuzeneko sarbideak eta haien kontrola gauzatzeko ezintasuna; gainera, zirkulazioko azterlanak gehitu beharra eta, sarbide berri jakin batzuen kasuan, sustatzaileen kargura joango liratekeen ekarpen bereziak aplikatzeko aukera ere jaso da.

Legean erregulatzen den beste alderdi bat, bide-segurtasunean eta paisaiaren defentsan duen eraginagatik, errepideetako publizitateari buruzkoa da. Publizitate-interesa eta presioa handitu egiten da herri eta populazio-guneen ingurumarietan, eta are gehiago hiri handien inguruan; horregatik, beharrezkoa da elementu horien instalazioari dagokion erregulazioan aurrera egitea, esandako jarduerarekin bateragarri egiteko; hala, hiri barruko errepide-zatietara mugatuko da publizitatea gauzatu ahal izateko eremua. Azkenik, ahalmena ematen zaie errepideen zerbitzupeko langileei, errepidearen jabari publikoan edo haren ekipamenduetan kokatuta dauden baimendu gabeko elementuak berehalaxe ken ditzaten.

Ondoren, errepideen erabilpenari jarritako mugaketak garatzen dira, baina horietan berritasun gutxi dago aurreko legeriarekin alderatuta. Adibidez, inguruabar jakin batzuetan, Sustapen Ministerioak zirkulazioari mugaketak ezartzeko duen ahalmena erregulatu da, eta haren eskumena zehaztu da zirkulazioa emakida-araubidean ustiatutako autobideetara desbideratzeko, larrialdi kasuan izapideak nabarmenki sinplifikatzen direla, ondoriozta litezkeen kalte-ordainak alde batera utzirik. Beste berritasunetako bat da eragin diren kostuengatik ordaina eskatzeko Sustapen Ministerioak duen ahalmenari eman zaion lege-sostengua, eta ez bakarrik errepideei eta haien elementuei eragindako kalteengatik, baita, zerbitzu publikoko bitartekoak erabilia, sorospen tekniko, ibilgailuak edo zamak zaintzeko edo istripu edo matxuren hondarrak erretiratzeko esku-hartzeengatik ere.

2. atalean, «Arau-haustek eta zehapenak», Espainiako ordenamendu juridikoaren tradiziozko eskema jarraitzen da: falta arinak, astunak eta oso astunak bereizten dira. Berorien azalpen-ordena, hala ere, aldatu egin da, eta orain arau-hauste oso astunetatik hasten da. Azpimarratzekoa da elkarrekiko erlazio bat ezarri dela ohiko hiru tipifikazioen artean; horrela, kasu jakin batzuetan, arau-hauste bat astundu egin daiteke errepikatzeagatik edota arindu errepideari kalterik egin ez dioten salatutako elementuak erretiratzen badira. Era horretan, garrantzia hartzen dute zenbait faktorek, adibidez, fede onez aritzeak, gauzak hasierako egoerara itzultzeak edo, kontrara, abusu errepikakorrek.

Indartu egin dira baimenik gabe sarbideak eraikitzearen edo aldatzearen kontrako neurriak, baita balizatzeko eta seinaleztatzeko elementuak nahita hondatzearen edo kaltetzearen kontrakoak ere; halaber, sendotu egin da Legean errepideko beste alderdi batzuen babesa ere, horien artean nabarmentzen delarik errepideetako obretatik eratorritako desjabetzeen ondorioz afektaturiko zerbitzuak aldatzeko edo erretiratzeko obligazioa ez betetzea, arrazoi horregatik batzuetan sortu diren kalte larriko egoerak ekiditearren. Bestalde, arau-hausteen sailkatze ondoretarako, bereizi egin dira lurberdinketaz kanpoko bideetako jabari publikoaren eragina eta lurberdinketa barruan hartzen duenarena.

Isunen zenbatekoari dagokienez, eguneratu egin dira haien zenbatekoak eta erraztu egin da zehapen-prozeduren inktoreen zeregina, murriztu egin baitira iritzia

araberako aukerak eta gardentasun handiagoa sustatu da, herritarren eskubideen defentsa hobetzeko xedearekin.

IV. kapitulua zeharbideei eta hiriko bide-zatiei buruzkoa da. Legeak ikuspegi berri bat ezarri du errepide-zati bat hiriko errepide gisa –eta, horren barruan, zeharbide modura– kalifikatzeko; horrela bada, errepide-zati bat hirikotzat hartuko da Sustapen Ministerioak onartutako Errepide-zatiak Zedarritzeko Azterlan batek hala adierazten baldin badu; azterlan horretan, gainera, zeharbidetzat har daitekeen errepide-zatia ere deskribatuko da, lege honetan finkaturik geratzen diren irizpideetatik eta administrazio-prozeduratik abiatuta, eta aipatutako inguruabar horrek zalantzarik gabe eragingo dituen ondore guztiekin. Era horretan, desagertu egin da hirigintza-sailkapena aipatutako definizioaren abiapuntuko atalasearen oinarri gisa, kontuan izanik zer zailtasunak planteatzen dituen ondore horretarako deskontzentrazio-prozesuaren eta autonomia-administrazioei eskumenak transferitzearen ondorioz gertatu den arau-sakabanaketak.

Halaber, Sustapen Ministerioaren eskumena ezarri da hiri barruko zeharbide eta bide-zatietan baimenak jaulkitzeko eta desagertu egin da mota horretako espedienteak ezaugarritzen zituen txosten loteslearen irudia, zeinak, askotan, irtenbide zaileko egoerak sortzen baitzituen, eta, horrez gainera, eskumen-hutsune bat zeukan zehapen-araubideari dagokionez, ez baitzeukan erantzun argirik aurreko lege-testuan.

Testua sei xedapen gehigarriekin osatzen da: lehenengo xedapen gehigarria Estatuko errepideen Katalogoari buruzkoa da; bigarrenak dei egiten dio Sustapen Ministerioari interes orokorreko oinarrizko araudi teknikoa zehaztu dezan; hirugarrena Estatuko errepide-sarearen parte izateko betebeharrak jada betetzen ez dituzten errepide edo bide-zatien transferentziari buruzkoa da; laugarrenak defentsa nazionalaren beharretatik eratorritako espezifikotasunei egiten die erreferentzia; bosgarrenak bideen jabari publikoko ondasunak Katastrora gehitzeari eta seigarrenak, berriz, administrazioen arteko lankidetzari, baimenen araubidea sinplifikatzeko orduan.

Bi xedapen iragankorrei dagokienez: lehenengoak hiri barruko bide-zatien araubide iragankorra ezartzen du dagokion Zedarritze Azterlana oraindik onartu gabe duten kasuetarako; eta bigarren xedapen iragankorrak, bere aldetik, desjabetzaren xede izan ez diren bideen jabari publikoko lursaileri eman beharreko tratamenduari buruzko kasu jakin batzuei egiten die erreferentzia.

Xedapen indargabetzailearen atzetik, sei azken xedapen datoz: lehenengoan, Errepideen Erregelamendu Orokorra tratatu da; gero, emakida-erregimenean autobideak eraiki, mantendu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legea aldatu da, zerbitzuguneen erregulazioari dagokionez; hirugarrenean, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina aldatu da; zehapenak eguneratzeko sistema aurreikusi da; Gobernuari legea garatzeko gaitasuna eman zaio eta Lege hau zein eskumen-araubideren babesean eman den ezarri da; eta legea indarren jarriko den data zehaztu da.

Erregaien sektoreak oso garrantzi handia du Espainiako ekonomiarentzat, ekonomiaren gainerako sektoreekiko duen erlazioa dela medio. Zehazki, erregaiak input giltzarria dira errepideko garraioaren sektorerako, izan ere funtsezko rola jokatzen dute ekonomiaren lehiakortasunerako eta merkatuaren benetako batasuna lortzeko. Horregatik, erregaien sektorean lehiakortasuna sustatzeko xedez, 27.2 artikulua eta Legearen azken xedapenetatik bigarrenak handizkako operadoreen kontzentrazio maila mugatzeko helburua dute petrolio-produktuen txikizkako banaketa-instalazioak dituzten zerbitzuguneen ustiapen-emakidetan, eta hala, galarazita geratu da bandera bereko zerbitzuguneak bata bestearen atzetik kateatzea.

Manu horiek oinarrizko izaera dute eta Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13. eta 18. zenbakien babesean eman dira, berorietan Estatuari egozten baitzaio, hurrenez hurren, ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari buruzko eta administrazioaren kontratu eta emakiden gaineko oinarrizko legegintzari buruzko eskumen eskusiboa.

Eta, amaitzeko, Eranskinetan, lege honetan erabilitako sektoreko terminologiako kontzeptu garrantzizkoenen definizioak eta Estatuko errepideen Katalogoa jasotzen dira.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

1. Lege honen xedea Estatuko errepide-sarea eta hari dagozkion jabari publikoko eta babespeko eremuak antolatzea eta kudeatzea da.

2. Errepide-politikak helburu hauek ditu:

- a) Pertsona fisiko eta juridikoen zirkulazio askerako eskubideen egikaritzea erraztea.
- b) Pertsona edo ondasunen garraiorako beharrezkoa den azpiegitura eskaintzea.
- c) Hazkunde ekonomiko eta sozial orekatua eta iraugarria sustatzea.
- d) Errepide-azpiegitura kalitateko, seguru eta eraginkor baten eskaintza lortzea –baita haiei lotutako zerbitzuei dagokienez ere– baliabideen esleipen egoki batekin.
- e) Teknologiaren ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea; baita haren zabalkundea ere.
- f) Ingurumenaren babesean laguntzea.
- g) Mugikortasunaren eta errepideko garraioaren zerbitzu aurreratuen garapena sustatzea.
- h) Beste azpiegitura-sare eta garraio-modalitate batzuekiko koordinazioa sustatzea.
- i) Lurralde-kohesio eta -oreka helburuekin lankide izatea.

3. Lege honetan erregulatutako jabari publikoak honako osagai hauek ditu:

- a) Estatuko errepide-sarea, hari atxikitako bide-sarea eta biek okupatzen dituzten lursailak.
- b) Berrietako elementu funtzionalak, baita haietan existitzen diren eraikinak eta instalazioak ere.
- c) Estatuko errepideen eta haien elementu funtzionalen ondoko eremua, lege honetan jabari publikoko eremu gisa definitu dena, baita esandako errepideen eraginpeko eta Estatuaren titulartasuneko beste zeinahi eremu ere.

2. artikulua. *Definizioak.*

1. Lege honen aplikazioaren ondoretarako, ondorengo kontzeptuak eta errepide motak eta I. eranskinean jaso diren definizioak hartuko dira kontuan.

2. Batez ere ibilgailu automobilen zirkulaziorako proiektatu, eraiki eta seinaleztatu diren jabari eta erabilpen publikoko bideak dira errepideak.

3. Beren ezaugarrien arabera, honela sailkatzen dira errepideak: autobideak, autobiak, errei anitzeko errepideak eta errepide arruntak.

a) Bertatik automobilak, eta ez beste ezer, zirkulatzeko berariaz proiektatuta, eraikita eta seinaleztatuta dauden errepideak dira autobideak. Hona hemen autobidearen ezaugarriak:

- Mugakide diren jabetzetatik errepidera sarbiderik ez izatea.
- Maila berean, beste ezein komunikabide edo bide-zor ez gurutzatzea, ez hark gurutzatua izatea.
- Zirkulazioaren noranzko bakoitzak bere galtzada izatea. Galtzada horiek banatuta daude, eta tartean, leku berezi batzuetan edo aldi baterako ez bada behinik behin, lurzerrenda bat egon behar du, zirkulaziorako balio ez duena, edo, salbuespenezko kasuetan, beste nolabait bereizita egongo dira.

b) Autobiak, autobideen betebeharrak guztiak biltzen ez dituzten errepideak dira, baina galtzada berezituak dituzte zirkulazioaren noranzko bakoitzarentzat eta sarbide mugatuak alboan dituzten jabetzetara eta jabetzetatik; ez dute bidegurutzerik maila berean.

c) Errei anitzeko errepideak. Errepide hauek, autobideak edo autobiak izan gabe, gutxienez bi errei dituzte zirkulazioaren noranzko bakoitzerako, beroriek bereizita edo zedarrituta direla; eduki ditzakete sarbideak edo maila bereko bidegurutzak.

Errepide hauen erreiak zenbatzerakoan, ez dira kontuan hartuko errei gehigarriak, itxarotekoak, txirikordakoak, ez eta abiadura aldatzekoak ere.

d) Errepide arruntak, azkenik, autobideen, autobien, ez errei anitzeko errepideen ezaugarriak biltzen ez dituzten gainerako errepideak dira.

4. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoen, toki-erakundeen eta eraginpeko sektoreen parte-hartzearekin, aurreko zenbakian aurreikusitako sailkapenaren barruan, hainbat kategoria ezarri ahalko ditu, kalitate-arauen, haien zerbitzuen edo ematen duten bide-zerbitzuaren ezaugarrien arabera.

5. Errepide baten mota eta kategoria aldatzeak honako hauek eskatzen ditu:

a) Errepide mota eta kategoria bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzea, aldeztatik aurrerik onartu eta, kasua hala bada, dagozkion obrak egin ostean.

b) Espainiako lurraldean existitzen diren errepide-sare batean txertatzea.

c) Organo eskudunak berariaz hura sailkatzea eta haren kategoria aitortzea, aldatetarako eragiten dien administrazioek aldeztatik aurrerik parte hartu ostean.

Estatuko errepideen kategoria aldatzeko eskumena Sustapen Ministerioari dagokio.

6. Ez dira errepidetzat hartuko, ez haien elementu funtzionaltzat ere, honako hauek:

a) Zerbitzu-errepideak, hau da, jabetza mugakideetara heltzea errazteko eraikitako bideak, edo, oro har, esandako jabetzen titularren jarduera espezifikoen elementu laguntzaile edo osagarri papera jokatzeko bideak.

b) Baso-bideak eta abelbideak, beren legeria espezifikokoak halakotzat sailkatuta dauzkanak.

c) Estatuko errepide-sareari atxikitako bide-sarearen parte diren estatuaren eskumeneko bideak eta kamioak, non ez den nahitaez aplikatu beharrekoa izango, izaera orokorrez, Sustapen Ministerioaren errepideetako araudi teknikoa, nahiz eta, aipatutako atxikitako bide-sarea estatuaren titulartasuneko den artean, lege honen agindupean egon beharko duen, haien kudeaketa Sustapen Ministerioaren eskumena delarik.

7. Pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuen titulartasuneko zerbitzu-bideak erabilpen publikora ireki beharko dira interes orokorrak hala eskatzen duenean. Kasu horretan, bidezkoa bada, Nahitaezko Desjabetzearen Legea aplikatuko da.

3. artikulua. *Elementu funtzionalak.*

1. Errepide baten elementu funtzionala da era iraunkorrean errepide horren kontserbazioaren edo bideen zerbitzu publikoaren ustiapenaren eraginpean dagoen eremu oro, hala nola errepidearen kontserbaziorako eta ustiapenerako zentro operatiboak, zerbitzuguneak, zerbitzu-errepideak, atsedenerako eremuak, aparkatzeko eremuak, balaztatzeko legardiak, drainatzeko elementuak eta haien sarbideak, pisatzeko geltokiak, autobus-geltokiak, neguko mantentze-lanetarako eremuak, aparkalekuak eta instalazioak eta laguntzarako eta beste xede osagarri batzuetakoak. Ez dira elementu funtzionaltzat hartuko zirkulazioa erregulatzen, kudeatzen eta kontrolatzen zuzendutako instalazioak eta ekipamenduak, ez eta haren zaintzarako eta diziplinarako beste bitarteko teknikoak ere.

2. Elementu funtzionalak ez dira errepide gisa hartuko; hala ere, elementu horiek, errepideak bezalaxe, jabari publikoaren parte dira eta berorien kudeaketa eta ustiaketa Sustapen Ministerioari dagokio.

4. artikulua. *Estatuko errepideak eta errepide-sarea.*

1. Estatuko errepideak, lege honen ondoretarako, beren kudeaketa-sistema alde batera utzita, Estatuko Administrazio Orokorraren titulartasuna dutenak dira eta Estatuak

Sustapen Ministerioaren bitartez egikaritzen ditu haien gainean dituen eskumenak. Estatuko errepideak Estatuko errepide-sareaz eta hari atxikitako bide-sareez osatuak daude.

2. Sustapen Ministerioak erabakiko du Estatuko errepideen izendapena, zeina arrazionaltasun, funtzionaltasun, sinpletasun eta ibilbidearen jarraitasun irizpideetara doitu baita. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, errepidearen edo haren elementuaren izenak termino geografikoak, historikoak edo izendapenekoak gehitu ahalko ditu.

Beste administrazio publiko batzuen mende dauden errepideen izendapenak bat etorri beharko du Estatuko errepideentzat definitzen diren mota eta kategoriekin, eta, nolana ere, sinplea eta ezin nahasizkoa izan behar du haren kalitateari eta ematen dituen zerbitzuei dagokienez, erabiltzaileei nahasmenduak eragozteko.

Estatuko errepideetan beste titulartasun bateko errepideei erreferentzia egiten dien seinaleztapenak, edonola ere, aurrez adierazitako irizpideen arabera Sustapen Ministerioak egoki jotzen dituen izendegi- eta identifikazio-espezifikazioak eta seinaleen alorrean indarrean dagoen araudia hartu beharko ditu kontuan.

3. Sustapen Ministerioari dagokio Espainiako Erresumak aplikatzen dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenek eragiten dieten erakundeei eta organismoiei proposatzea dagozkien nazioez gaindiko sareetan sar ditzatela lurralde nazionalen kokatuta dauden eta ezarritako betebeharrak betetzen dituzten errepideak edo errepide-zatiak.

4. Interes orokorreko ibilbide batean txertatutako edo, garraio-sisteman betetzen duten funtzioa dela eta, autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten dieten errepideek osatzen dute Estatuko errepide-sarea.

5. Honako inguruabar hauetakoren bat biltzen duten ibilbideak hartuko dira interes orokorrekotzat:

a) Dagozkien hitzarmenetan jasotako nazioarteko zirkulazioko ibilbide nagusien parte izatea.

b) Interes orokorreko portu edo aireportu batera, defentsaren zentro logistikoetara edo Sustapen Ministerioak interes orokorrekoak deklaritzen dituen garraio- eta logistika-zentroetara heltzeko sarbide nagusia izatea.

c) Mugako pasabide nagusietarako sarbide izatea.

d) Autonomia-erkidegoak lotzea, Estatuko lurraldearen populazio-gune printzipalak konektatuz eta ibilbide luzeko zirkulazioa erregulariki jasaten duen sare jarraitu bat eratzen dutela.

6. Estatuko errepide-sarea, funtzionaltasunaren arabera, honako multzo hauetan sailkatzen da:

a) Oinarrizko Sarea. Honako hauek osatzen dute: lurralde nazional osora heltzeko bidea ematen duten eta bidaiari- edo salerosgai-fluxu nagusien zirkulazioa jasaten duten errepideak, eta, bereziki, Espainiako Erresumak izenpetutako nazioarteko hitzarmen edo tratatuetan zehaztutako –edo Europar Batasuneko araudia aplikatuzetik eratorritako– nazioarteko zirkulazioko ibilbide nagusien parte diren Estatuko errepide-sareko errepideak.

b) Sare Osagarria, Estatuko errepide-sareko gainerako errepideek osatzen dutena.

Errege Dekretu bidez, Sustapen Ministerioak proposatuta, beste multzo edo kategoria batzuk ere ezarri ahalko dira, erabilera-intentsitatearen, haien izaera estrategikoaren, kalitatearen edo ematen dituzten zerbitzuen ezaugarrien arabera.

7. Sustapen Ministerioak Estatuko errepideen inbentario bat prestatuta eta eguneratuta edukiko du, Estatuko errepide-sareari dagozkionak bereizten dituela –Oinarrizko Sarean edo Sare Osagarrian sailkatuak– eta transferitu daitezkeen errepideak sartzen direla.

8. Estatuko errepide-sarea Errege Dekretu bidez aldatu ahal izango da, Sustapeneko ministroak horrela proposatuta:

- a) Beste administrazio publiko batzuekiko akordioen indarrez jada existitzen diren errepideen titulartasuna aldatu delako.
- b) Beste administrazio publiko batzuei laga zaizkielako, errepide horiek Estatuko errepide-sarekoak izanik ere, Oinarrizko Sarearen parte ez diren kasuan, eta beren ezaugarriak eta funtzionaltasuna kontuan hartuta, beharrezkoa ez denean esandako Sarean mantentzea.
- c) Beste administrazio publiko batzuen titulartasuneko errepideak gehitu direnean, betiere Estatuko errepide-sareari dagozkion funtzio propioak betetzen baldin badituzte.

Sustapeneko ministroak ere alda dezake esandako Sarea, errepide berriak edo bidezati berriak eraiki direlako, interes orokorreko ibilbide batean txertatzen badira edo garraio-sisteman betetzen duten funtzioak autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten badio.

9. Ez dira ezein kasutan errepide berrizat hartuko galtzada-bikoizketak, trazatuan sar daitezkeen aldaketak, plataformen zabaltze-lanak, bide-zoruan egindako hobekuntzak, saihebidetakoak, eta, oro har, lehenik zegoen errepidearen funtzionaltasunerako oinarrizko aldaketarik ekartzen ez duen beste ezein jarduketa.

5. artikulua. *Estatuko errepide-sarean integratu gabeko Estatuko errepideak.*

Sustapen Ministerioaren eskumenekoak izanik, Estatuko errepide-sarearen parte ez diren errepideek eta haren eskumeneko bideek eta kamioek Estatuko errepide-sareari atxikitako bide-sarea osatzen dute; berorretan ez da nahitaez aplikatu behar, izaera orokorrean, Sustapen Ministerioaren errepideetako araudi teknikoa.

Bide-sare hori beste administrazio publiko batzuei laga ahal izango zaie. Espedientea azken horiek edo Sustapen Ministerioak eskatuta sustatuko da, eta Ministerio berak ebatziko du. Lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean adostasunik ez dagoenean, espedientea Ministro Kontseiluak ebatziko du.

Halaber, bide-sari hori beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei ere eskualdatu ahal izango zaie, Sustapen Ministerioak proposatuta, aldezturik zerbitzu publikoaren eraginpetik atera ostean. Eskualdatu ahal izango dira, orobat, errepide modura jada erabiltzen ez diren errepideak edo errepide-zatiak, ez badira beste batzuen elementu funtzional gisa sartzen, aldezturik zerbitzu publikoaren eraginpetik atera ostean. Espedientea Sustapen Ministerioak hasiko du.

6. artikulua. *Informatzeko betebeharra.*

1. Sustapen Ministerioari dagokio informazioa biltzea, elaboratzea eta Espainia partaide den nazioarteko erakundeetako beste herrialde batzuei haren berri ematea, eta, kasua hala bada, indarrean dauden nazioarteko hitzarmen edo tratatuak edota Europako araudia betetzeko jarduketak eta prozedurak onartzea eta egikaritzea, Espainiako errepideei edo haien elementu funtzionalei eragiten dieten neurrian, lege honetan aurreikusitakoaren arabera eta beste ministerio-sail batzuen eskumenak ezertan galarazi gabe.

Eskumen hori Europar Batasuneko eta nazioarteko beste erakunde batzuetako ordezkarien dagozkion eskumen orokorrak errespetatuz gauzatuko da, esandako horiek Gobernuaren eta Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren eginkizunak baitira.

Sustapen Ministerioak informazio eguneratua emango du errepideez, egikaritzen ari diren jarduketaz, errepide-mapez, edukierei buruzko estatistika eta datuez, bidesari-tarifaz, zerbitzugunez, atsedengune eta aparkaleku seguruez, eta, oro har, errepideen erabiltzaileentzat interesekoa den edozertaz.

2. Gainerako administrazioek eta lege honen egikaritzan zuzeneko eraginpean dauden pertsona fisikoek eta juridikoek eskatzen zaien informazioa eman behar dute aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, baita lege hau behar bezala egikaritzeko beharrezkoa den informazioa ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.

II. KAPITULUA

Errepideen plangintza, proiektua, eraikuntza eta ustiapena

1. atala. Plangintza

7. artikulua. *Estatuko Errepideen Plan Estrategikoa.*

1. Estatuko Errepideen Plan Estrategikoa errepideen politika sektorialaren tresna tekniko eta juridikoa da eta bertan jaso beharko dira aurreikuspenak, bete beharreko helburuak, eta jarduketa-lehentasunak, Estatuko errepideei eta haien elementu funtzionalei dagokien guztian. Kasua hala denean, goragoko lurralde, ekonomia edo intermodal izaerako plangintzaren mende egon beharko du.

2. Estatuko Errepideen Plan Estrategikoak honako hauek hartuko ditu barnean:

a) Errepideen eta haietan barne hartuta dauden elementu funtzionalen deskribapena eta diagnostikoa; kasua hala denean, errepide multzoan gertatzen diren altak edo bajak adierazi beharko dira.

b) Hartzen duen denbora-tartea.

c) Planaren helburuak esandako denbora-tarterako.

d) Beste errepide-sare batzuekiko koordinazio-irizpideak; baita komunikazio eta garraio-ko beste sistema batzuekin ere. Ondore horietarako aintzat hartuko dira garraio-moduen arteko osagarritasuna eta ordezteko garraioen eta azpiegituren politikarako baliabideak hobeto esleitzeko.

e) Sistema programatu, kontserbatu eta ustiatzeko irizpide orokorrak. Irizpide horietan beti sartu beharko dira inbertsioen lehentasunarekin, talkaren ebaluazioarekin eta kostu/onura azterketekin lotura dutenak.

f) Formulatu den Planaren estrategia-, ingurumen-, iraungarritasun- eta lurralde-talkaren ebaluazioa. Ebaluazio horrek, kasua hala denean, bere legeria espezifikoan aurreikusita zeuden baldintzak bete beharko ditu.

g) Begietsitako jarduketaren egikaritzaren eragile arduradunak eta horretarako eskura dauden bitartekoak aurreikusi eta identifikatzea.

h) Plana egikaritzeko aurreikusitako jarduketak.

i) Errepideetan zerbitzu aurreratuak eta garraiorako sistema adimendunak txertatzea eta zabaltzea.

j) Ebaluazio-prozedura eta Planaren egikaritzaren kontrola, baita lortutako emaitzak zabaltzeko tresnak ere.

k) Inbertsio-irizpideak, ingurumen- eta ekonomia-talkaren ebaluazioa, finantzaketa-aukerak, eta lehentasunak errepideetan jarduketak programatzeko orduan.

l) Plana betetzeko beharrezkoak diren sailkapena, kategorizazioa eta programazioa.

m) Planaren garapenaren aurreikuspena.

3. Plan Estrategikoa Ministro Kontseiluaren erabakiz onartu eta aldatuko da, Sustapen Ministerioak proposatuta, Sustapeneko Aholku Kontseiluak alde aurretik txostena eginda, eta administrazio autonomikoei eta tokikoei eta eraginpean gerta litezkeen sektoreei entzun ondoren, erregelamendu bidez erabakitzen den moduan. Era berean, tartean dauden Ministerioen parte-hartzea ere bermatuko da, 2. zenbakiaren f), i), k) eta l) letretan jasota dauden zehaztapenei dagokien guztian.

4. Estatuko errepideen Plan Estrategikoak izaera loteslea izango du Estatuko errepide-sarean aurreikusitako jarduketei dagokienez. Hala ere, Sustapen Ministerioak, salbuespen izaeraz, erabaki ahalko du Errepideen Plan Estrategikoan aurreikusi gabeko jarduketak edo obrak egikaritzea, behar bezala oinarritutako larrialdi baten edo salbuespenezko interes publiko baten kasuan, baldin eta funtsezko aldaketarik ez badakarte dagokien errepide-zatietako ezaugarrietan.

Estatuko errepide-sarean sartuta ez dauden errepideen kasuan, izaera adierazgarria izango du, nahiz eta ebaluazio-xede izan beharko duen, era berean.

8. artikulua. *Beste ministerio-sail batzuekiko koordinazioa.*

1. Sustapen Ministerioak beste ministerio-sail batzuek kudeatutako jardueri, ondasunei edo eskubideei eragiten dieten Estatuko errepideen azterlanak esandako ministerio-sail horien txostenpean jarriko ditu, gai hori dela-eta indarreango xedapenek diotenarekin bat etorritik.

2. Sustapen eta Defentsa Ministerioek elkarrekin erabakiko dituzte lege honetan aipatzen diren arloetan koordinazioa bermatzeko neurriak, defentsa nazionalaren premiei eta aurreikuspenei begira hala komeni denean.

2. atala. *Errepideen programazioa, azterlanak eta proiektuak*

9. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Errepideen programak, azterlanak eta proiektuak prestatu eta onartuta, errepideen politikarako ezarritako helburu orokorrak lortu behar dira, baita momentu bakoitzean aplikatzekoa zaion plangintza estrategikoan ezarritako aurreikuspenak bete ere.

2. Edozein kasutan, errepideen programak, azterlanak edo proiektuak elaboratzeko, onartzeko eta aldatzeko honako hauek beharrezkoak izango dira:

a) Beharrianak identifikatzea, ikuspegi intermodal batetik ikusita eta garraio-moduen arteko osagarritasunari eta ordeztari arreta jarririk.

b) Lege honetan edo beronetan kontuan hartzen diren berau garatzeko eta egikaritzeko tresnetan aurreikusitako xedeen, helburuen, irizpideen eta lehentasunen justifikazioa.

c) Aukeren eta jarduketaren kostu-onuren analisia, jarduketak mesede egin lekiekeen sektoreen eta erakundeen berri ematen dela.

d) Aipatutako tresnan jasotako elementuen egikaritze, finantzaketa eta ustiapen aukeren analisia.

e) Jarduketaren ingurumen-talkaren, iraungarritasun ekonomikoaren eta lurralde-talkaren azterketa. Ebaluazio horrek, kasua hala denean, bere legeria espezifikoan aurreikusita zeuden baldintzak bete beharko ditu.

3. Sustapen Ministerioak irizpide anitzeko azterketa homogeneousen pean jarriko ditu jarduketa-eremu beraren barruan garatzen dituen programa, azterlan eta proiektu guztiak, hala, antzeko izaerako jarduketei lehentasuna ematea posible izan dadin, jarduketa-programa desberdinen esparruan.

Sustapeneko Aholku Kontseiluak txostenak egingo dizkie programa eta azterlan handiei eta garrantzi bereziko proiektu guztiei.

4. Sustapen Ministerioak ekimen pribatuaren parte-hartzea eta lankidetzat sustatuko du errepideen eta haien elementu funtzionalen plangintzan, programazioan, eraikuntzan eta ustiapenean, eta Sustapeneko Aholku Kontseiluaren baloraziopean jarriko ditu proposamenak.

10. artikulua. *Errepide-programak.*

1. Errepide-programak bide-politikaren tresna teknikoa eta juridikoa dira errepide-sare baten zati batean eta berorietan jaso behar dira xede eta hizpide dituzten errepide-zatien eta haien elementu funtzionalen aurreikuspenak, helburuak eta lehentasunak.

Sustapen Ministerioari dagokio haren titulartasuneko errepideei eta berorien elementu funtzionaleri eragiten dieten errepide-programak sustatzea eta onartzea, Estatuaren Aurrekontu Orokorraren programazioarekin bat etorritik.

2. Errepide-programen edukari zabalkunde orokorra eman beharko zaio bai telematikoki irisgarriak diren bitartekoak erabiliz, eta bai dagokion aldizkari ofizialean esandako edukia argitaratuz, partikularrentzat lotesleak diren erabakien kasuan.

3. Programen indarraldia berrietan zehaztuko da, eta berrikusi egin beharko dira haietan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean edo haiak betetzea eragozten duten inguruabarrak sortzen direnean.

4. Estatuko errepide-programek honako hauek izango dituzte barnean:

a) Lortu beharreko premiak, xedeak eta helburuak zehaztea, 9. artikuluan ezarritako printzipio orokorrekin bat etorriz, eta lehentasuna helburu horiek erdiesteko.

b) Programek eragiten dioten Estatuko sarearen zatia zehaztea.

c) Programan sartzen diren errepideen eta haien elementu funtzionalen programazioari, proiektioari, eraikuntzari, mantentze-lanei eta ustiapenari aplikatzekoak zaizkien irizpide orokorrak definitzea.

d) Programa garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren bitarteko ekonomikoak, finantzarioak eta antolakuntza ingurukoak zehaztea.

e) Programaren ingurumen-, segurtasun-, iraungarritasun- eta lurralde-talka aztertzea. Ebaluazio horrek, kasua hala denean, bere legeria espezifikoan aurreikusita zeuden baldintzak bete beharko ditu.

f) Programa berrikusteko irizpideak definitzea.

5. Programek haien garapenerako araudian ezartzen den dokumentazioa edukiko dute.

6. Erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera gauzatuko da elaborazio-, onarpen- eta berrikuspen-prozedura. Nolanahi ere, esandako prozeduran, kontuan hartu beharko da programak eragiten dien organismoei eta lurralde-administrazioei entzutea, gutxienez, hilabeteko epean; behin denbora hori igaro baldin bada oharpenik formulatu gabe, izapidea beteta dagoela ulertuko da eta jarduketekin jarraitu ahal izango da.

11. artikulua. *Errepideen azterlanak.*

1. Errepideen azterlanak errepide edo errepide multzo baten –haiei dagozkien elementu funtzionalak barne– diseinua eta ezaugarriak ezartzeko bitarteko gisa erabiltzen diren dokumentu tekniko, juridiko eta ekonomikoak dira.

2. Beren xedea eta barnean dituzten zehaztapenak kontuan hartuta, errepideen azterlanak izan daitezke:

a) Aldez aurreko azterlanak, hau da, arazo jakin bati eman lekizkiokeen irtenbideak, gainetik bada ere, definitzeko beharrezkoak diren datuak biltzea eta aztertzea, haren ondore guztiak ere baloratzen direla.

b) Informazio-azterlanak, non azterketaren xede den jarduketaren trazadura-, konexio- eta ustiapen-aukera desberdinak zehazten eta alderatzen diren, gainetik bada ere, jendaurreko informazioaren espedienterako oinarri gisa balio dezan eta, kasua hala bada, ingurumen-talkaren ebaluazio-izapiderako, aukera egokiena hautatzeko helburuarekin.

c) Aurreproiektuak: eskala egokian egindako azterlanak dira, behar bezainbateko zehaztasunez definitu edo alderatu ahal izateko premia jakin bat asetzeko egon daiteken irtenbide onena, era horretan soluzio egokiena zehaztu ahal izateko.

d) Oinarrizko proiektuak edo trazadurakoak, berrietan jasotzen direlarik jarduketaren alderdi geometrikoak, batetik, eta hark eragiten dien ondasunen, eskubideen eta zerbitzuen definizio zehatza, banakatua eta xehatua, bestetik; baita, beharrezkoa denean, ezarritako helburuak iristeko eta jarduketaren kostu osoa zehazteko behar diren oinarrizko definizioak eta preskripzioak ere.

e) Eraikuntza-proiektuak, jarduketaren garapen osoa jasotzen dutenak, haren eraikuntza eta ustiapena egingarri egiteko beharrezkoak diren xehetasun guztiekin.

f) Obra amaierako dokumentuak, gauzatutako obraren ezaugarrien ezagupen xehatua ematen duten dokumentuak dira, horietan jasotzen baita haren definizio geometrikoa, egitura-ezaugarriak, gauzatutako desjabetzeak, egindako kalitate-kontrolaren datuak eta, oro har, errepidearen eta haren elementu funtzionalen eta zerbitzuen geroko kontserbazioa eta ustiapena aurrera eramateko beharrezkoa den informazio guztia, eta

horretarako, ahal izatera, izaera orokorrean irisgarriak diren informazio geografikorako sistemak erabiliko dira.

g) Hiriko bide-zatiak zedarrizteko azterlanak; berorietan, hiri barrukotzat hartzen diren Estatuko errepideen zatiak definitzen dira, eta, kasua hala denean, zeharbidetzat hartzen direnak ere bai; barnean hartzen du jabari publikoaren definizioa eta errepidearen babes-eremuak; baita eraikitze muga-lerroa ere.

3. Aipatutako azterlan horiek erregelamendu bidez erabakitzen diren dokumentuak eta edukiak izango dituzte, eta, nolahi ere, nahikoa izan beharko dute beren funtzioa bete ahal izateko.

12. artikulua. *Azterlanen eta proiektuen onarpena.*

1. Erregelamendu bidez zehaztuko da errepideen azterlanak onartzeko prozedura. Informazio-azterlanak baldin badira, onarpenean zehaztuko da proposatuen artetik hautatutako aukera, kasua hala denean, azterlanean bertan.

2. Estatuko errepideen proiektuen behin betiko onarpenak berarekin ekarriko du erabilgarritasun publikoaren adierazpena eta ondasunak okupatzearen, zerbitzuak aldatzearen eta eskubideak eskuratzearen premia, desjabetzearen, aldi baterako okupatzearen edo zortasunak ezarri edo aldatzearen xedetarako.

3. Lursailak aldi baterako izaeraz bakarrik okupatzen badira datuak hartu eta proiektuak egiteko beharrezko prospekzioak egiteko, informazio-azterlanak onartzeko beharrezkoa izango da erabilgarritasun publikoko adierazpena egitea eta lursail horiek urgentziaz aldi baterako izaeraz okupatzeko premia.

4. Eraikuntza-proiektua onartzeko, ez da beharrezkoa izango alde aurretik Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 18. eta 19.1 artikuluetan aurreikusitako jendaurreko informazioaren izapidea egitea, alde aurretik jendaurreko informazioaren pean jarri eta behin betiko onartutako trazadura-proiektua aldatu beharra berarekin dakarren kasuan izan ezik.

Trazadura-proiekturik ez dagoenean, eraikuntza proiektua bera jarri beharko da jendaurreko informazioaren pean.

Edozein kasutan ere, erabilgarritasun publikoaren adierazpenak eta urgentziaz okupatzeko premiak proiektuaren birplanteaketan jasotako ondasunei eta eskubideei, eraginpeko zerbitzuak berriro ezartzeari eta gerora onar daitezkeen obren aldaketei ere egingo diete erreferentzia.

5. Aurreko zenbakietan adierazitako ondoretarako, errepide-proiektuek eta berorien aldaketek honako hauek hartu beharko dituzte barnean: trazaduraren eta elementu funtzionalen definizioa eta errepidearen eraikuntza, defentsa, ustiapen edo zerbitzurako eta bide-segurtasunerako okupatzea edo eskuratzea beharrezkoak ikusten diren lursailen, eraikinen edo beste ondasun edo eskubideen zehaztapena. Gainera, beste bide-sare batzuei eragiten zaienean, titulartasunen mugaketa definitu beharko da eraginpean dauden administrazio publikoen artean, eta 16.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

6. Informazio ofiziala gorabehera, berori nahitaezkoa den kasuetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten den bezala, dagokion azterlanaren jendaurreko informazioaren izapide bat eramango da aurrera, hogeita hamar egun balioduneko aldi batez, eta epe horretan adierazi beharko dira, berariaz, jarduketak dakartzan erabilpenerako eta jabetzarako mugaketak.

Izapide honetako oharpenak errepidearen interes orokorreko adierazpena justifikatzen duten inguruabarrei buruzkoak eta trazaduraren osoko kontzepzioari buruzkoak direnean soilik hartuko dira aintzat.

Jendaurreko informazioaren espedientea onartzea eta azterlanaren behin betiko onarpena Sustapeneko ministroari dagokio.

7. Jendaurreko informazioaren espedientea ebazteko eta onarpena jakinarazteko eta azterlana behin betiko onartzeko epea sei hilabetekoa izango da, Estatuko Aldizkari

Ofizialean Ingurumen-talkaren Adierazpena argitaratzen den egunetik hasita, adierazpen hori beharrezkoa bada, edo, bestela, jendaurreko informazioaren epea amaitzen denetik.

8. Errepideetako larrialdiko obren adierazpen-akordioak berarekin ekarriko du erabilgarritasun publikoaren adierazpena eta haiek egikaritzeko beharrezkoak diren lursailak aldi baterako okupatzearen premia, eta ez da beharrezkoa izango alde aurretik jendaurreko informazioaren izapidea gauzatzea, ez eta nahitaezko desjabetzearen legerian aurreikusitako alde aurreko gordailua ordaintzeko prozedura arrunta eta, kasua hala denean, okupazio azkarragatiko kalte-ordaina ere, aldi baterako okupaziorako.

Aldi baterako okupaziotik sor litezkeen kalte-ordainen eta galeren balorazioa, okupatu aurretik haiek ebaluatzea posible baldin bada, Administrazioak eskainiko du jabearekin adostu ondoren, 10 eguneko epean, larrialdi-adierazpena egin denetik zenbatuta. Eskaintzari lursailaren jabeak berariaz uko egiten badio, bi aldeek, ondorengo 20 eguneko epean, beren tasazio funtsatuak aurkeztuko dizkiote balorazioa egiteko eskumena duen organoari, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriaren arabera, zeinak izaera betearazleko ebazpena emango baitu 10 eguneko epean.

13. artikulua. *Ingurumen-ebaluazioa.*

Ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren pean jartzea eskatzen duten errepideen plan, programa eta azterlanetan, indarrean dagoen legeriaren arabera, gaiari dagokion txostena edo azterketa egin beharko da.

14. artikulua. *Bide-segurtasuneko ebaluazioa eta auditoriak.*

1. Errepide berrien edo lehendik daudenen aldaketa garrantzitsuei buruzko informazio-azterlanek bide-azpiegiturek segurtasunean duten talkaren ebaluazio bat jaso beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen diren arauekin bat etorritik.

2. Errepide berrien edo lehendik daudenen aldaketa garrantzitsuei buruzko aurreproiektuak eta proiektuak bide-segurtasuneko auditorien pean jarri beharko dira erregelamendu bidez ezartzen diren arauekin bat etorritik.

3. Errepide berrietako edo lehendik daudenen aldaketa garrantzitsuetan gertatzen diren lanak edo obrak bide-segurtasuneko auditorien pean jarri beharko dira zerbitzuan jarri aurretik eta zerbitzuaren lehen fasean, erregelamendu bidez ezartzen diren arauekin bat etorritik.

15. artikulua. *Kostu-onura ebaluazioa, irizpide anitzeko azterketa eta bideragarritasun finantzarioa.*

1. Estatuko errepide-sarearen luzeran edo sare horretako bide-zatiren baten ezaugarri geometriko, tekniko edo estrukturaletan aldaketa garrantzitsuren bat dakarren errepideen arloko edozein azterlan edo proiektu onartu aurretik, azterlan edo proiektu horren kostu-onura azterketa bat egin beharko da, non behar bezala egiaztatuko den beharrezkoa eta bidezkoa dela berori egikaritzea eta ez dagoela ordezeko beste aukera ekonomikoago eta eraginkorragorik, zeina justifikazio gisa erabiliko baita jarduketari lehenatasuna emateko programa berean jasota dauden gainerako jarduketekiko.

2. Jarduketa-eremu beraren barruan garatzen diren programa guztiak, irizpide anitzeko azterketa homogeneousen pean jarriko dira, era horretan, antzeko izaerako jarduketei lehenatasuna ematea posible izan dadin, jarduketa-programa desberdinen esparruan.

3. Sustapen Ministerioak errepide berri baten eraikuntza –edo, gainerako errepide-saretik bereizita ustia daitekeen beste jarduketaren bat– sustatzen duen bakoitzean, finantzaketa publikoaren kontura hura egikaritzeko dagokion erabakia hartu aurretik, haren bideragarritasuna aztertu beharko da, edo zeharkako kudeaketa sistemen bitartez, edo lankidetzara publiko-pribatuaren bidez gauza daitekeen ikusi, edota kostu gutxiagoko ordezeko aukerarik badagoen jada existitzen diren azpiegiturak hobeto aprobetxatuta.

16. artikulua. *Lurralde-antolamendua eta hirigintza-antolamendua.*

1. Indarrean dagoen lurralde-antolamenduari edo hirigintza-plangintzari eragiten dioten errepedeen edo saihebideten eraikuntza-lanak edo estatuko errepedeetako beste jarduketa batzuk aurrera eramane behar direnean, Sustapen Ministerioak jarduketak eragiten dien autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei igorri beharko die hasieran onartutako informazio-azterlana, hilabeteko epean hura aztertu eta txosten bat egin dezaten proposatutako trazadurari edo jarduketari buruz.

Beste hilabete igarotzen bada aipatutako administrazio publikoek zeinek bere txostena jakinarazi gabe, proposatutako jarduketarekin ados daudela ulertuko da. Desadostasun kasuan, zeina nahitaez motibatu beharko baita, Sustapen Ministerioak erabakiko du jarduketaren izapideekin jarraitzea bidezkoa den edo ez eta, kasu horretan, Ministroen Kontseiluan aurkeztuko du, eta hark ebaztuko du onartu edo ez. Horrela den kasuan, Ministroen Kontseiluak erasana gertatu den lurralde- edo hirigintza-plangintzaren aldaketa edo berrikuspenean egin dadin aginduko du, eta jarduketaren zehaztapenetara egokitu beharko da hura, urtebeteko epean, onartu denetik zenbatuta.

2. Izapide fasean dagoen lurralde- edo hirigintza-antolamenduko edozein tresnaren edo berorien garapenerako tresna baten edukiari jada onartutako errepede-azterlan batean ezarritakoak eragiten dion kasuan, tresnaren sustatzaileak, hura onartu aurretik, aipatutako errepede-azterlanak eraginkortasun osoa izateko beharrezkoak diren zehaztapenak jaso beharko ditu tresna horretan.

3. Ezin izango da lurralde- eta hirigintza-antolamendua aldatzeko, berrikusteko, garatzeko edo gauzatzeko tresnarik onartu, behin betiko onartutako errepedeen azterlan batean ezarritakoaren kontra badaude. Aurreko debeku hori ez betetzeak berarekin ekarriko du antolamendu-tresnaren erabateko deuseztasuna.

4. Aurreko zenbakian ezarritako araua aplikatzekoa izango zaie, orobat, hasieran onartutako errepedeen informazio-azterlanei, haiek jendaurreko informazioaren pean egon badira eta betiere lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen onarpena eteteko epea ez bada urtebete baino luzeagoa, haiek jendaurreko informazioaren iragarpena argitaratu zenetik zenbatuta, edo urtebete eta sei hilabetekoa, Sustapen Ministerioak era arrazoituan erabakitako salbuespenezko kasuetan. Esandako epe horretan, lurralde- edo hirigintza-antolamenduaren arloan eskumena duen administrazioak ezingo die sailkapen eta kalifikazio berririk eman dagokion informazio-azterlanaren xede diren errepedeetako trazadura eta jarduketan eraginpeko lursaileri, ez eta hirigintzako baimen eta lizentzia berririk ere, Sustapen Ministerioaren aldeko txostena eskatu eta lortu denean salbu, egin nahi diren jarduketak bateragarriak direnean han ezarritako ordezkari aukerarekin, edo lehendik dagoenaren kontserbazio eta mantentze-lan soiletara mugatzen direnean.

5. Onartutako lurralde-antolamendu edo hirigintza-plangintzako tresnarik ez duten lurralde-eremuetan, errepedeetako azterlanen eta proiektuen behin betiko onarpenak ekarriko du aipatutako jarduketa jasota geratuko dela gerora onartuko diren antolamendu edo plangintzako tresnetan.

6. Haien eragin-eremuan daudelako, Estatuko errepedeei edo berorien elementu funtzionaleri, zuzenean edo zeharka, eragin dakiekeen lurralde, hirigintza edo ingurumen-babeseko edozein plangintza-, garapen- edo kudeaketa-tresnaren idazketa, berrikuspen, aldaketa edo egokitzapen adostu ostean, errepedeetara duten distantzia edozein dela ere, dagokion tresna hasieran onartzeko eskumena duen organoak Sustapen Ministerioaren jakinarenean gainean jarri beharko du, aipatutako hasierako onarpen horren aurretik, esandako ministerioak txosten bat jaulki dezan non jasota geratuko diren jabari publikoaren babeserako hark komenigarriak jotzen dituen irizpen guztiak. Arau bera aplikatu beharko da, orobat, aipatutako tresnarik ez dagoen kasuan emango diren lizentzien izapideei hasiera emateko unean. Erregelamendu bidez zehaztuko da Estatuko errepedeen eragin-eremua.

Sustapen Ministerioak hiru hilabeteko epea izango du bere txostena jaulkitzeko, zeina loteslea izango baita Estatuko errepede-sarearekiko balizko eraginei dagokien guztian. Aipatutako epe hori behin igarota dela, ez baldin bada txostenik jaulki, dagokion tresnarekin bat datorrela ulertuko da eta haren izapideekin aurrera egin ahal izango da. Estatuaren

titulartasuneko jabari edo zerbitzu publikoan eragina duten eta haren behin betiko balizko onarpenetik erator litezkeen hirigintza-zehaztapenak erabat deusezak izango dira. Erabat deuseza izango da, era berean, zenbaki honetan aipatu diren tresnetako edozein, baldin eta haren izapideak egitean ez bada Sustapen Ministerioaren nahitaezko txostena eskatu, edota aipatutako tresna onartu baldin bada esandako ministerio-sailak hura jaulkitzeko daukan epea agortu baino lehen eta txostenik jaulki gabe; baita Estatuko errepideen utsiapen egokia gutxitzen, aldarazten edo kaltetzen duten kasuan ere.

7. Tartean dauden interes publiko guztien bateragarritasuna bermatzeko xedearekin, eta koordinazio egokia ezartzearen Estatuko Administrazio Orokorren eta hirigintza eta lurralde-antolamendu arloan eskumenak dituzten administrazioen artean, Sustapen Ministerioak parte hartzea eskatzeko eskubidea izango du Estatuko errepideei eragiten dieten hirigintza- eta lurralde-plangintzako tresnak onartzea dagokien kide anitzeko organoen bileretan, haien kudeaketa-sistema edozein dela ere.

3. atala. Errepideen eraikuntza.

17. artikulua. Ondasunen eta eskubideen desjabetzea eta eragina.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren errepideetako lanen eraikuntzarako beharrezkoak gertatzen diren ondasunen eta eskubideen desjabetzeak eta zortasunen edo aldi baterako okupazioen ezarpenak nahitaezko desjabetzeari buruzko Estatuko legerian eta lurzoruaren eta balorazioen inguruko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera gauzatuko dira, 12. artikuluan ezarritako arauak ezertan galarazi gabe.

Zerbitzuei, zerbitzu-instalazioei, sarbideei edo komunikabideei eragiten dieten kasuan, Sustapen Ministerioak desjabetzearen aukerari heldu ordez, goian aipatutako horiek birjartzea aukeratu ahal izango du. Birjarritako bide edo zerbitzu horien titulartasuna, eta horien funtzionamendutik, mantentutik eta kontserbaziotik eratorritako erantzukizunak eta betebeharrak horien jatorrizko titularrari egokituko zaizkio. Erregelamendu bidez, hark kasuan kasuko prozeduran izango duen entzunaldia, birjarpenerako egindako lanen harreran egindako esku-hartzea, eta erantzukizun-araubidea arautuko dira; dena den, erantzukizuna jatorrizko titularrak izaten jarraituko du, aurkakoa adosten den kasuetan salbu.

2. Errepideetako lanak egikaritzea eragozten duten edo nabarmenki oztopatzen duten interes orokorreko zerbitzuak emateko ondasunen edo instalazioen titularrak behartuta daude haiek erretiratzera edo erabat eta eraginkortasunez aldatzera sei hilabeteko gehieneko epean, Sustapen Ministerioak eskabidea egiten dietetik hasita. Aurreko horretatik kanpo geratzen dira zirkulazioa kudeatzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko instalazioak. Erretiratzearen edo aldaketaren kostua kontraesan bidez finkatuko da aldean artean, ondasunak edo instalazioak bideen jabari publikoaren eremuan kokatuta egonik baimen bat emanda daukatenean salbu, zeinaren indarrez ondasun edo instalazio horien titularrek haiek beren kargura erretiratzera behartuta dauden errepideen zerbitzu publikoaren beharrianengatik haiek kentzeko eskatzen zaienean.

Ordezko aukera gisa, esandako eskabidea egin denetik bi hilabeteko epean, Sustapen Ministerioak hitzartu ahal izango du eraginpeko ondasunen edo instalazioen titularrekin aipatutako ministerio-sailak berak aurrera eramatea gauzatu beharreko jarduketak.

Kasu guztietan, erretiratze edo aldaketa horiek egiten ez badira edo berorien berandutzeak eragozten badu berorietan eragina duten errepideetako lanak hastea edo haiekin jarraitzea, egindako errekerimenduak jakinarazitako administrazio-ebazpenaren ondoreak izango ditu hertsapen-isunak jartzeko orduan, Estatuko legerian administrazio publikoaren araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruz xedatuta dagoena betez. Isun horien zenbatekoa eraginpeko obra-unitateen lizitazio-aurrekontuaren ehuneko hamarrekoaren baliokidea izango da, eta hileroko maiztasunez ezarriko ahalko dira gehienez hamarrera iritsi arte.

Lehen paragrafoan adierazitako sei hilabeteko epea behin igaro denean titularrak egin beharreko aldaketa, erabatekoa eta eraginkorra gauzatu gabe, eta akordiorik egon ez bada Sustapen Ministerioarekin beronek egikaritu zezan hura, edo, kontraesan bidez, haren

kostua finkatzeko, Sustapen Ministerioak, era subsidiarioan, eraginpeko zerbitzu, ondasun edo instalazioen aldaketak egin ahalko ditu, galerengatik eta obraren gainkostuengatik eska daitezkeen erantzukizun zibilak alde batera utzita eta, kasua hala denean, gaiari legezkiokkeen hertsapen-isunak ezarri ahal izango direla.

Bi kasuetan, eta zerbitzuen aldaketarako gauzatutako jarduketa deskribatzen duen legezko dokumentazio teknikoa ematea formalizatzeari kalterik egin gabe, berrezarritako zerbitzuaren titulartasuna, oso osorik, aldatua izan den eta existitzen den zerbitzuaren titularrarengana igaroko da, Sustapen Ministerioak ondore horretarako egiten duten jakinarazpenean adierazitako datatik aurrerako ondorioekin. Jarduketa horrek ez dio aipatutako titularrari inolako eskubiderik edo kalte-ordainik sortuko.

3. Administrazio desjabetzailea subrogatu egingo da desjabetutako jabearen kokapen juridikoan, indarrean dagoen hirigintza-antolamenduaren arabera, lursaili egokitu dakiekeen hirigintza-aprobetxamendurako eskubidea gauzatzearen ondoretarako.

Hala ere, nolabaiteko hirigintza-aprobetxamendua duten lursailak desjabetzen direnean, Administrazioak hitzartu ahalko du lursail hori landa-lurzoru gisa legokiokeen balioaren arabera desjabetzea eta era berean, aipatutako aprobetxamenduak ondare bihurtzeko eskubidea mantentzea desjabetutako jabeari.

4. Estatuaren interes eta eskumeneko errepideen arloko jarduketa bat dela medio desjabetu behar diren lursailak tasatzeko orduan, bai lurralde- eta hirigintza-antolamenduan aurreikusita zeuden kasuan eta bai sorkuntza berrikoak direnean, kontuan edukiko da haiek kokatuta dauden –edo igarotzen diren– lursailen oinarritzko egoera, lurzoruari buruzko Estatuko legerian xedatutakoa betez. Ez dira ezein kasutan aintzat hartuko desjabetzea ekarri duten planaren edo obra-proiektuaren zuzeneko ondorio gisa sortutako gainbalioak, ez eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak ere.

5. Estatuaren eskumeneko errepideen eraikuntzarako nahitaezko desjabetzeak inplikatzten dituzten proiektuek Estatuaren ondarearen parte diren onibarrei eragiten badiete, Sustapen Ministerioak hari dagokion afektazioa –edo, kasua hala bada, jabari publikoaren aldaketa– eskatu beharko dio Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari.

18. artikulua. *Aldez aurreko kontrolen salbuespena.*

1. Bideen jabari publikoa eraikitzeke, konpontzeko, kontserbatzeko edo ustiatzeko obrak eta zerbitzuak, haiek proiektatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak barne direla, ez daude, interes orokorreko obra publikoak direnez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 84.1.b) artikuluan aipatzen diren udaleko aldez aurreko kontrolen pean jartzera behartuta eta, ondorioz, ez eta obra, jarduera edo gisako lizentziengatik inolako tasarik ordaintzera ere.

Aurreko paragrafoan adierazitako jarduketak ez daude, era berean, beste administrazio publiko, organismo edo erakunde publikoen lizentziak edo baimenak lortzera behartuta, jarduketa horien sorburuan dauden errepideen azterlanak haien txostenpean jarriak izan ez diren kasuan salbu, aipatutako txostena nahitaezkoa zenean, Estatuko arau baten indarrez, edo Estatuko sektoreko araudiaren arabera hura eskatzeko eskubidea zegoenean, hori guztia, Barne Arazoetako Ministerioaren eskumenak ezertan galarazi gabe, zirkulazioaren kudeaketari dagokionez.

2. Sustapen Ministerioak bultzatu eta sustatutako errepideetako obra edo jarduketen egikaritzea ezingo du beste ezein administrazio publikok –hari legezkiokkeen eskumenean egikaritzan– kautelaz bertan behera utzi, Barne Arazoetako Ministerioari egotzitako eskumenak ezertan galarazi gabe, zirkulazioaren kudeaketari dagokionez. Eskumena duten jurisdikzio-organismoek soilik hartu ahalko dituzte kautela-neurriak.

4. atala. *Finantzaketa.*

19. artikulua. *Finantzaketa.*

1. Estatuko errepideetako jarduketen finantzaketa Estatuko Aurrekontu Orokorretan sartzen diren izendapenen bitartez egingo da; baita beste administrazio publiko batzuetatik,

nazioko eta nazioarteko beste organismo batzuetatik eta partikularrengandik datozen baliabideen bitartez ere, bide-sariak ezartzetik datozenak ahaztu gabe.

2. Era berean, ekarpen berezien bitartez ere egin ahal izango da finantzaketa, lege honen 20. artikuluan xedatzen den moduan eta betebeharrekin.

3. Zeharkako kudeaketako araubidean eraiki edo ustiatzen diren Estatuko errepideak sozietate emakidadunen baliabide propioen, kontratuaren baldintzetan sozietate horiek lortutako besteren baliabideen, eman daitezkeen diru-laguntzen eta, kasua hala bada, ezartzen diren bide-sarien bitartez finantzatuko dira.

4. Beste administrazio, erakunde edo partikularrek Estatuko errepideetan jarduketak finantzatzeko egin ditzaketen ekarpenek, Sustapen Ministerioarekin hitzarmen bat sinatzea eskatuko dute, non jasota geratuko diren alde guztien obligazioak eta ekarpenak egiteko modua eta erritmoa.

20. artikulua. *Kontribuzio bereziak.*

1. Ekarpen bereziak ezarri ahaliko dira errepide berriak eraikitzeko edo errepideak edo haien elementu funtzionalak, bilguneak, sarbideak edo zerbitzu-errepideak hobetzeko jarduketetako obrak gauzatzetik onura berezi bat eskuratu dezaketenean pertsona fisiko edo juridiko batzuek, hain zuzen ere, gauzatu den lanari esker. Obrak egitearen ondorioz finka jakin batzuen balioa handitzea, ondorio horietarako, onura berezizat hartuko da.

Aurreko paragrafoan aintzat hartu direnetatik, gastu publikoa sortuko duten jarduketa-proposamen guztietan, aitortutako presa eta urgentzia duten haiek salbuetsita, kontuan hartu beharko da ekarpen bereziak ezartzea, eta hura kalkulatzeko parametroak gehitu beharko dira, edo, kasua hala bada, haren bidez kotasun eza frogatzen duen justifikazioa. Bi kasuetan, ekarpen bereziak ezartzea kontuan hartu izan den proposamena berariaz islatu beharko da dagokion jarduketako jendaurreko informazioaren izapidean.

2. Ekarpen berezi horien subjektu pasibo izango dira errepide, elementu funtzional, errepide-bilgune, sarbide edo zerbitzu-errepide horietatik zuzeneko onura ateratzen dutenak; eta, bereziki, mugakide diren onibar eta establezimenduen titularrak eta beren komunikazioa hobetu izan zaien urbanizazioenak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, baita jaso gabeko herentzia, ondasun-erkidego eta gainerako erakunde edo kolektiboak ere, nortasun juridiko propioa izan gabe, ekoizpen-unitate autonomoa edo zerga ezar lekiekeen ondare berezi diren heinean.

3. Zerga-oinarria ekarpen berezia onartzen duen Errege Dekretuan zehaztuko da eta ezingo ditu ondoren zerrendatzen diren muga hauek gainditu, jarduketaren kostu osoarekiko –desjabetzen kostua barne– eta artikulua honen 6. zenbakian ezarritakoa ezertan galarazi gabe:

- a) Izaera orokorrez, % 25 arte.
- b) Zerbitzu-errepideetan, % 50 arte.
- c) Errepide-bilguneetan edo onibar, urbanizazio edo establezimenduetarako sarbideetan, % 90 arte.

4. Ekarpen berezien zenbateko osoa subjektu pasiboen artean banatuko da, haietan biltzen diren obra, eraikuntza eta inguruabarren izaeraren arabera erabakitzen diren irizpide objektiboak aintzat harturik, ondoren agertzen diren hauetatik:

- a) Onura izan duten onibarek errepidearekin duten mugakidetasunaren azalera eta luzera.
- b) Onibar, eraikin, instalazio, establezimendu, ustiapen edo urbanizazioen kokapena, hurbiltasuna eta sarbideak errepidera.
- c) Onura izan duten onibarren zerga-oinarriak lurraren kontribuzioetan.
- d) Ekarpen berezia ezartzen duen Errege Dekretuak zehazten duena, obran biltzen diren inguruabar bereziak kontuan hartuta.

5. Gobernuak, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioak eta Sustapen Ministerioak proposatuta onartutako Errege Dekretuaren bidez, ekarpen bereziak ezartzea erabakiko du lege honetan aipatzen diren kasuetan.

6. Subjektu pasiboa, jarduketa aurrera eramateko desjabetutako eskubide baten titularraren denean, bere prezio zuzena berorren banakako kuotatik deduzituko da.

7. Ekarpen bereziak obrak zerbitzuan jartzen diren momentuan sortuko dira. Obrak zatikagarriak balira, subjektu pasibo bakoitzarentzat, berarengan eragina duen obraren tarte edo zati bakoitzari dagozkionak egikaritzen direnetik aurrera gertatuko da sortzapena.

5. atala. Ustiapena

21. artikulua. Ustiapena.

1. Errepidearen ustiapenaren barruan sartzen dira haiek kontserbatzeko eta mantentzeko operazio multzoa, errepidearen defentsara eta haren erabilpen hobera bideratutako jarduketak, seinaleztapenari, ingurumen-integrazioari, bide-segurtasunari, sarbideen antolamenduari eta errepideko babes-eremuen erabilerari buruzkoak barne, seinaleztatzearen arloan zirkulazioaren kudeaketaren organismo arduradunei legez egotzitako eskumenak ezertan galarazi gabe.

2. Sustapen Ministerioak, aldizka, bide-segurtasunari buruzko ikuskapenak egingo ditu Estatuko errepide-sarean, segurtasun-arrazoiengatik hobetu daitezkeen elementuak identifikatzeko xedez, xede horretarako aplikatzekoa den araudiaren arabera.

22. artikulua. Eskumena.

1. Sustapen Ministerioaren eskumena da Estatuko errepideak ustiatzea. Ustiapen hori, arau orokor gisa, zuzenean gauzatuko da.

2. Erabiltzailearentzat errepidearen erabilera doakoa edo bide-sariak edo tasak ordaintzea eskatzen duena izango da. Tarifa horiek Gobernuak onartuko ditu.

3. 1. zenbakian adierazitakoa ezertan galarazi gabe, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak ezarritako zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketako sistemetako baten bitartez ere ustiatu ahal izango dira errepideak.

4. Estatuko errepideen ustiapena ikuskatzeko ahalmena, kudeaketa modua edozein dela ere, Sustapen Ministerioari dagokio.

23. artikulua. Bidesarien salbuespenak.

Bidesariak ezarrita dauden kasuan, ez dira hura ordaintzera behartuta egongo Indar Armatueta ibilgailuak, Segurtasun Indar eta Kidegoenak, ez eta suteen kontrako zerbitzuetakoak ere.

Ez eta agintari judizialen zerbitzuan dauden ibilgailuak, larrialdietakoak edo Babes Zibilekoak, anbulantziak, ustiapen propiokoak eta errepideen ikuskaritzakoak, ez eta zirkulazioaren kudeaketa, kontrol eta zaintzarako ekipamenduaren ustiapen eta kontserbaziokoak ere, horietako bakoitzari dagozkion funtzio espezifikokoak betetzen ari direnean.

24. artikulua. Emakida bidezko zeharkako kudeaketa.

1. Administrazio-emakida araubidean dauden Estatuko errepideak legerian eta araudi espezifikokoan xedatutakoaren arabera eraenduko dira, lege honetan xedatutakoari aurka egiten ez zaion guztian.

2. Sozietate emakidadunak Sustapen Ministerioari helarazi beharko dizkio, honek ezartzen duen epearen barruan, ustiapenarekin lotuta eskatzen dizkion datuak, kasu guztietan sartu beharko dituelarik emakidan hartutako azpiegituren zirkulazioarekin eta bide-segurtasunarekin erlazioa dutenak.

25. artikulua. *Zeharkako kudeaketako beste sistema batzuk.*

1. Estatuko errepidearen ustiapena kudeaketa interesdun baten bitartez edo ekonomia mistoko sozietate baten bidez egiten bada, Ministro Kontseiluari dagokio, Errege Dekretu bidez, kudeaketaren baldintzak eta Sozietatearen eraketa erabakitzea.

2. Aipatutako sistemak aplikatzearen ondorioz errepideen ustiapenaren titular gertatzen diren pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuek emakida araubidean dauden errepideentzat indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen onura fiskalak eta finantzarioak gozatu ahalko dituzte. Aipatutako onura horiek Gobernuak soilik eman ahalko ditu aurrez aipatutako Errege Dekretuan eta errepidea administrazio-emakidaren xede den kasurako ezarritako baldintzapen berberekin.

3. Kudeaketa-kontratuak edota, kasua hala denean, estatutu sozialek zehaztu beharko dute dagokion araubide juridiko-administratiboa eta ekonomiko-finantzarioa, baita kontratudun edo bazkideen arteko banaketa-formulak ere kudeaketako etekinen eta arriskuen aurrean.

26. artikulua. *Zerbitzuguneak, atsedenguneak eta aparkaleku seguruak.*

1. Sustapen Ministerioak erraztasunak emango ditu zerbitzuguneak, atsedenguneak eta aparkaleku seguruak instalatzeko, erabiltzailearen erosotasunerako eta zirkulazioaren funtzionamendu onerako.

2. Errepideen mugakide diren eremuak dira zerbitzuguneak eta berariaz diseinatuta egoten dira zirkulazioan sortzen diren beharrianak estaltzea xede duten instalazio eta zerbitzuentzat tokia izateko. Erregai-hornikuntzarako instalazioak, hotelak, jatetxeak, autoen konponketarako tailerrak eta errepidearen erabiltzaileen segurtasun eta erosotasunerako gisa horretako beste zerbitzu batzuk izan ohi dituzte.

3. Sustapen Ministerioak erabakiko du zerbitzuguneen kokagunea eta berorien ezaugarri funtzionalak, funtsezko zerbitzuen prestazioa bermatuta egon dadin, kontuan harturik bide-segurtasuna, erabiltzaileen erosotasuna, ingurumenaren babesa eta ingurune gainerako elementuak.

4. Administrazioak zuzenean eraiki eta ustiatu ahalko ditu zerbitzuguneak, baina Sektore publikoko kontratuei buruzko Legeak ezartzen dituen zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketako beste edozein sistemaren bitartez ere eraiki eta ustiatu ahalko dira. Eraikuntzaren eta ustiapenaren terminoak eta baldintzak dagozkien pleguetan finkatuko dira.

Emakida-kontratuen kasuan, emakidaduna Estatuari ordaintzera behartuta egongo da kontratua esleitzeko prozeduran emakida gauzatzeko oinarritzat erabili zen proposamenean ordaintzeko konpromisoa hartu zuen urteko kanona, esandako kontratuaren pleguetan finkatzen diren termino eta baldintzekin bat etorririk.

5. Atsedenguneak errepideen ondoan egoten diren espazioak dira eta berorien xedea, ibilgailuen aldi baterako aparkalekua eskaintzeaz gainera, errepideen erabiltzaileak beren atsedenerako behar dutenaz hornitzea da, zirkulaziorako eremuetatik kanpo.

6. Aparkaleku seguruak ibilgailuen –garraio-ibilgailuak, batik batik– aldi baterako aparkalekua, segurtasun baldintzetan, erraztea xede duten instalazioak dituzten eremuak dira; errepideetatik edo haien eragin-eremuetatik hurbil egoten dira.

7. Errepideen informazio-azterlanetan, zerbitzuguneak, atsedenguneak eta aparkaleku seguruak ezartzeko beharrianak aztertuko dira. Beharrezkoak direnean, haien kokapena zehaztuko da, dagokion Ingurumen-talkaren Adierazpenean jasota gera daitezen. Aurreko hori gorabehera, informazio-azterlanak onartuta egon arren, Sustapen Ministerioak bultzatu eta sustatu ahalko ditu haietan sartu gabeko zerbitzuguneak, atsedenguneak edo aparkaleku seguruak, dagozkion legezko prozedurak errespetatuz.

8. Zerbitzuguneek, atsedenguneek eta aparkaleku seguruak, nahitaez, irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bete beharko dituzte desgaitasuna duten pertsonentzat, aplikatzekoa den araudi espezifikoan xedatutakoaren arabera.

27. artikulua. *Zerbitzuguneen esleipena.*

1. Zerbitzuguneen emakiden esleipena ekonomikoki mesedegarriena den eskaintzari dagokion administrazio-kontratuaren esparruan gauzatuko da. Emakida emateak honako jarduketa hauek hartuko ditu barnean:

a) Zerbitzugunearen kokagunea zehaztea, baita hark izango dituen instalazioak eta zerbitzuak eta haietako bakoitzaren betebeharrak eta baldintzak ere; hori guztia Sustapen Ministerioaren eginkizuna izango da, betebeharrak teknikoetan eta segurtasunekoetan oinarrituta.

b) Jendaurreko informazioa hogeita egun balioduneko gutxieneko epe batez; Estatuko Aldizkari Ofizialean eta eskualdean hedadura zabala duen egunkari batean iragarriko da, edozein pertsona fisiko edo juridikok egoki irizten dituen alegazioak edo iradokizunak formulatzeko modua izan dezan.

c) Sustapeneko ministroak obrak egikaritzeko eta zerbitzua ustiatzeko klausula administratibo partikularren plegua onartzea, eta berariaz adierazi beharko dira lanak hasteko eta amaitzeko epeak eta horiek ez betetzeak izango dituen ondorioak, baita emakidaren epea, gutxienez ordaindu beharreko kanona eta lehiakideek aurkeztu beharko dituzten berme teknikoak eta ekonomikoak ere.

d) Sustapen Ministerioak kontratazio-espeditentari buruz emandako ebazpena, sektore publikoko kontratuen legerian ezarritakoarekin bat etorririk.

2. Errepideen arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorririk, petrolio-produktuen txikizkako banaketarako instalazioen emakida barnean hartzen duen zerbitzugune baten emakida esleitzeko orduan, ezingo da, ezein kasutan ere, zirkulazio-noranzko berean, lizitazioaren xede den zerbitzugunearen aurreko ez ondorengo zerbitzugunean eskusiban erregaiak hornitzen dituen handizkako operadore beraren edo enpresa-talde bereko operadore baten alde gauzatu esandako esleipena. Era berean, ezingo dira petrolio-produktuen txikizkako banaketarako instalazioak dituzten zerbitzuguneen emakida guztiak blokean esleitu handizkako operadore berberari edota haren enpresa-talde bereko beste operadore batzuei.

3. Sustapen Ministerioak sustatutako zerbitzuguneak gorabehera, edozein interesdunek eskatu ahal izango du ustiapenaren emakida edo zerbitzugune baten eraikuntza eta ustiapenerako emakida, edo zerbitzugunearen parte den edozein elementurena, Sustapen Ministerioari dagokion eskabidea aurkeztuz, honako beste hauek erantsita: a) interesdunaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa eta, kasua hala denean, modu sinesgarrian bere ordezkapena egiaztatzen duena, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitarteko erabilia edo ordezkatuak pertsonalki bertaratuta egindako adierazpenaren bidez, b) txosten bat non adieraziko diren zerbitzugunearen kokapena eta ezaugarriak edo bere emakida interesatzen den instalazioarena; horrekin batera, errepide-azterlana ere gehitu beharko da, non jasoko diren kokagunea, sarbideak, instalazioak eta bideragarritasuna.

Sustapen Ministerioak, eskabidea aurkezten zaionetik hilabeteko epean, gehienez ere, jendaurreko informazioaren izapidea gauzatu dadin erabakiko du, baita 1. zenbakian aurreikusitako jarduketak ere, zerbitzuguneak erregelamendu bidez ezarritako dagokion betebeharrak tekniko eta segurtasunekoak betetzen ez dituzten salbu, kasu horretan amaiera emango baitaio prozedurari ebazpen arrazoituaren bitartez. Aipatutako hilabeteko epean berariazko erantzunik ez egoteak, kasu guztietan, aurrez adierazitako izapideak egin beharra ekarriko du berarekin.

4. Jada eraikitako zerbitzuguneen ustiapenaren emakidaren kasuan, urteko kanonaren zenbatekoa, zeina dagokion emakida-kontratuaren esleipen-prozeduraren oinarrietan finkatuko baita, ezingo da zerbitzugunearen balorazioaren % 4 baino txikiagoa izan.

5. Sustapen Ministerioari dagokio zerbitzua ematen duten aparkatzeko eremuek baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzea, aplikatzekoa den araudi nazionalan edo

nazioartekoan ezarritako segurtasun, erabiltzaileentzako informazio eta tankerako beste betebeharrak guztiekin.

III. KAPITULUA

Errepideen erabilera eta defentsa

1. atala. Jabetzaren mugaketak

28. artikulua. *Errepideko babes-eremuak: xedapen orokorrak.*

1. Lege honen ondoretarako, errepideari dagozkion ondorengo babes-eremuak ezartzen dira: jabari publikokoa, zortasunekoa, eraginpekoa eta eraikigarritasuna mugatzekoa.

2. Eremu horietan ezingo da obrarik edo instalaziorik egin eta ez dira baimenduko bide-segurtasunarekin, egiten diren aurreikuspenekin eta errepidearen ustiapen egokiarekin bateragarriak diren erabilpenak edo zerbitzuak baizik.

Babes-eremuen araubidean eragina izan dezakeen edozein jarduera gauzatuko bada, beharrezkoa izango da Sustapen Ministerioaren baimena, bil litezkeen beste eskumen batzuk ezertan galarazi gabe.

3. Aurreko zenbakian aipatzen den debekua eta baimena lortu beharra baliozkoak izango dira bai eraikitako errepideetan eta bai proiektuetan edo eraikitzen ari direnetan, dagokion informazio-azterlana –edo, halakorik ezean, aurreproiektua edo proiektua– behin betiko onartuta baldin badago, edozein dela ere azterlanean aurreikusitako jarduketaren epea.

4. 33.2 artikuluan adierazitakoa ezertan galarazi gabe, bideen jabari publikoaren babesaren araubide juridikoaren ondoretarako eta lursail mugakideen jabetzari mugaketak zehazteko xedearekin, kontuan izan behar da, errepide-bilguneak, esteka-adarrak, noranzko-aldaketak, bidegurutzeak eta biratzeko bideak, bide biltzaile-banatzatzaileak eta aldameneko galtzadak, horiek guztiak, errepide arrunt gisa hartuko direla.

Era berean, halakotzat hartuko dira zerbitzu-errepideen kasuan ere, baina jabari publikoko eremuaren existentziaren ondoretarako soilik, eta ez gainerako babes-eremuen ondoretarako.

Jabetzari egindako mugaketak ez dira errepidearen gainerako elementu funtzionaletara hedatuko, haiek zerbitzatzen dituzten errepideen babes-eremuen lehentasuna ezertan galarazi gabe.

5. Babes-eremuetan jarduketak gauzatzeko ematen diren lurzorua erabilerarako eta eraldaketarako lizentziek lege honetan aipatzen diren baimenak lortzearen berariazko baldintzapean egon beharko dute beti.

Erabat deusezak izango dira lege honen manuei aurka eginez ematen diren administrazio-baimenak eta lizentziak.

29. artikulua. *Jabari publikoko eremua.*

1. Honako hauek dira jabari publikoko eremua osatzen dutenak: Estatuko errepideek eta haien elementu funtzionalek okupatzen dituzten lursailak eta, bidearen bi aldeetan, 8 metro zabaleko lur-zerrenda bana, autobide eta autobietan, eta 3 metro zabalekoa errepide arruntetan, errei anitzekoetan eta zerbitzu-errepideetan, guztiak horizontalean neurtuta lurberdinketaren kanpoko ertzetik eta ertz horrekiko perpendikularrean.

2. Lurberdinketaren kanpoaldeko ertza lur-erazketaren edo lubetaren ezpondaren elkarketak zehazten du, edo, kasua hala denean, eusteko edo sostengatzeko hormen eta lursail naturalaren artekoak.

Aipatutako ezponda edo horma horien ertzetatik kanpora arekak baleude, edo, lurra ordeka den kasuetan, lurberdinketaren kanpoaldeko ertzak bat egingo du errepidetik urrutien dagoen arekaren ertzarekin.

Hiri barruko bide-zatien eta zeharbideen kasuan, zintarriek bereizten badute plataforma espaloi, lorategi edo erdibitzailleetatik, lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzak bat egingo du Estatuko errepide-sareko kanpoen dagoen bidetik hurbilen geratzen den zintarriaren ertzarekin.

3. Tunel, zubi, biaduktu, eta beste egitura batzuen kasu berezietan –zimendatzeak, ainguratzeak, ezponda-egonkortzeak, drainatzeko elementuak edo antzeko obrak–, ezarri ahal izango da, era justifikatuan, lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzaren beste zedarritze bat, eta kasu horretan, berariaz jaso beharko da jendaurreko informazioaren xede izango den errepide-azterlanean; halakorik ezean, lur-berdinketaren aipatutako kanpoaldeko ertza obraren bazterreko lerroak lursail naturalaren gainean bertikalean proiektatzen duen marra izango da.

Kasu guztietan jabari publikokoa izango da zubi eta biaduktuen sostenguek eta haien zimendatze guztiek okupatzen duten lurra eta, haiek eraikiko badira, inguruan zulatu beharreko lur-zerrenda, gutxienez metro beteko zabalera izango duena, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

4. Interes orokorreko zerbitzu publiko baten prestazioak horrela eskatzen duenean soilik gauzatu ahalgo dira obrak, instalazioak edo beste erabilera batzuk jabari publikoko eremuan, lege-xedapen batek hala ezartzen duelako edo, oro har, behar bezala justifikatzen denean ez dagoela ordezkoko beste aukera teknikoki edo ekonomikoki bideragarriarik, edo baimendutako sarbideak edo konexioak eraikitzeko edo birjartzeko.

Kasu guztietan, beharrezkoa izango da Sustapen Ministerioaren alde aurreko baimena, bil daitezkeen beste eskumen batzuk ezertan galarazi gabe.

5. Aurreko zenbakian xedatutako jabari publikoaren erabilera bereziak edo berorren okupazioak kanon bat ordaintzera behartuko dute dagokion erabilera- edo okupazio-baimenaren onuraduna.

Esandako kanonaren zerga-egitatea lege honetan araututako baimenen eta Estatuko errepideetako zerbitzuguneen emakiden indarrez gauzatzen den lursailen okupazioak edo jabari publikoko ondasunen erabilpenak eratzen du.

Baimenen titularrak eta zerbitzuguneen emakidadunak izango dira kanonaren subjektu pasiboak.

Jabari publikoaren okupaziorako edo aprobetxamendu berezira baimenen kasuan, kargaren zenbatekoa finkatzeko oinarria okupatutako lursailen balioa izango da, kontuan hartuko delarik Estatuak erosi zituenean zuten balioa eta esandako lursailen segidan kokatuta daudenena. Urteko karga-tasa % 5ekoa izango da, adierazitako oinarrizko balioarekiko.

Kanona finkatzeko erabilitako oinarriaren balioak izaten dituen aldaketen proportzioan berrikusi ahal izango da esandako kanona, baina berrikuspen horiek kasu honetan baimenaren edo emakidaren baldintzetan adierazten diren aldien amaieran soilik gauzatu ahal izango dira.

Zerbitzuguneen emakiden kasuan, kanonaren zenbatekoa 26.4 artikuluan ezarritakoa izango da.

6. Hirugarrenek Estatuko errepideei dagozkien obrak, instalazioak edo zerbitzu publikoak ustiatzen dituztenean eta erabiltzaileek kontraprestazio ekonomikoak ordaindu behar dituztenean beroriez baliatzeko, ustiapen horiek administrazioari kanon bat ordaintzeko obligazioa izango dute.

Dagokion baimenaren edo emakidaren indarrez esandako ustiapenaren titulartasuna duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da kanon horren subjektu pasiboa. Zerga-egitatea subjektu pasiboaren ustiapenaren xede diren jabari publikoko ondasunen okupazioa eta aprobetxamendu berezia izango da; kargaren zenbatekoa finkatzeko oinarria okupatutako lursailen balioa eta ustiapenaren xede diren titulartasun publikoko ondasun, higiezin eta instalazioena izango da, % 5eko karga-tasarekin adierazitako oinarrizko balioarekiko, urteroko sortzapenarekin eta hura finkatzeko erabilitako oinarriaren balioak izaten dituen aldaketen proportzioan zenbatekoa berrikusteko aukerarekin, nahiz eta berrikuspen horiek baimenaren edo emakidaren baldintzetan adierazten diren aldien amaieran soilik gauzatu ahal izango diren.

Bideen jabari publikoa okupatzearen kanona ordaintzetik salbuetsita egongo dira Estatuko Administrazio Orokorra eta haren mendekoak diren organismo autonomoak, non ez diren merkataritza edo industria izaerakoak. Aipatutako organismoek esandako jabari publikoa okupatzen duen instalazioa hirugarrenei lagatzen diotenean –horretarako, haren kudeatzailearen alde zuzeneko baimena beharko da–, lagapen-hartzaileek dagokion kanona ordaintzeko obligazioa izango dute.

Halaber, Sustapen Ministerioa jabari publikoa okupatzearen kanona ordaintzetik salbuetsita egongo da Estatuko Administrazio Orokorraren beste ministerio-sailei eta merkataritza edo industria izaerakoak ez diren haren mendeko organismo autonomoei.

7. Jabari publikoaren okupazioak, artikulua honetan aurreikusitako kasuan, ez du berorren lagapenik ekarriko, eta hura erabiltzeak ez du esan nahiko Estatuko Administrazioaren jabari-ahalmenak laga direnik, ez eta esandako Administrazioak ezin motatuko erantzukizunik hartu duenik ere, okupaziorako eskubidearen titularrarekiko edo hirugarrenekiko.

Aipatu titularrak izango du erantzukizuna, obrak eta jarduerak jabari publikoari edo pribatuari eragin diezazkizoketen kalte-galerengatik, salbu eta kalte-galerok Administrazioak titularrari ezarritako klausula batengatik gauzatu direnean, eta klausula hori titularrak nahitaez bete beharrekoa denean.

Sustapen Ministerioak uneoro izango ditu zaintza- eta polizia-ahalmenak eraginpeko jabari publikoaren gainean; okupazioaren edo jardueraren titularrak betebeharra izango du, Sustapen Ministerioa informatzeko, ondasun horien inguruan sortzen diren gorabeheren buruz, eta gaiari buruz ematen zaizkion jarraibideak betetzeko.

8. Errepide berrien eraikuntza-lanak edo berrietako jarduketak amaitzean, Sustapen Ministerioak edo, kasua hala bada, sozietate emakidadunak, titulartasun publikoko lursailak zedarrizatuak ditu mugarrak jarri. Jarduketa horren ezaugarri espezifikoak Sustapen Ministerioak zehaztuko ditu.

9. Bideen zerbitzu publikoari eragiten dioten titulartasun publikoko ondasunak eta eskubide errealak, desjabetzearen, lagapenaren edo trukearen bidez lortu direnean, Jabetzaren Erregistroan inskribatuko dira.

Estatuko Administrazio Orokorra aipatutako ondasunak eta eskubideak inskribatzea doakoa izango da.

10. Hirugarrenek sustatu eta behar bezala baimendutako jarduketan kasuan, Estatuko bideen jabari publikoaren parte izatera pasatzen direnean, aipatutako inskripzioa sustatzailearen kontura egingo da eta ezingo da aplikatu inolako arantzel-salbuespenik.

11. Estatuko bideen jabari publikoarekin mugakide diren onibarrei buruz gehitzen den erregistro-informazio orotan, eta, halaber, haiei buruzko kalifikazio- edo igorpen-oharretan, agerian utziko da inguruabar hori, lotutako lurralde-informazio gisa eta informazioa ematea beste ondorenik gabe, jakinaren gainean gera dadin aipatutako mugakidetasun horrek mugaketak ezartzen dizkiela jabetza-eskubidearen ahalmenari.

30. artikulua. *Zedarrizteko obligazioa eta ikertzeko ahalmena.*

1. Bideen jabari publikoa zedarriztea Sustapen Ministerioari dagokio, erregelamendu bidez erabakitzen den prozedura betez.

2. Zedarriztea ofizioz edota zeinahi interesdunek eskatuta abiaraziko da, eta kasu horretan, prozeduraren izapideetatik eta tokian bertan egin beharreko operazioetatik eratortzen diren gastuak eskatzailearen kargura joango dira. Zedarrizteak Sustapen Ministerioaren oniritzia eduki beharko du.

3. Zedarrizte-espeditatea abiatzeak ahalmena emango dio Sustapen Ministerioari datu-bilketa egiteko eta puntuak finkatzeko beharrezkoak diren iraupen laburreko lanak gauzatzeko edo baimentzeko, baita lursail pribatuetan ere, jabeari alde aurretik jakinarazita, eta behin betiko onartzen den zedarriztearen ondorioz eragiten diren kalte-galerengatik sor litezkeen kalte-ordainak ezertan galarazi gabe.

4. Onartutako eta aktan islatutako zedarrizteak Estatuko Administrazio Orokorraren aldeko jabetza eta jabari-titulartasuna adierazten du. Berorren zehaztapen fisikoak mugarrak ezarri egingo da. Onartutako eta Jabetzaren Erregistroan inskribaturiko

zedarritzeak lehentasuna izango du bertan aipatzen den eremu fisiko berebanean eragina izan dezaketen beste inskripzio batzuen aldean, zedarritutako ondasunen jabari-izaeraren funtzioan.

5. Sustapen Ministerioak ikertu ahal izango du bideen jabari publikoaren jabetzakoak uste diren ondasun eta eskubideen egoera, eta horretarako beharrezkoak jotzen dituen datu eta txosten guztiak eskatu ahalko ditu, baita dagokion zedarritzearen praktika sustatu edo jabari publikoaren defentsan bidezkoak diren gainerako jarduketak praktika ere.

6. Zedarritzea onartzen duen ebazpena behar besteko titulua izango da, Erregistroan zedarritze horrekin kontraesanean dauden egoera juridikoak zuzentzeko, erregelamenduz zehazten diren modu eta baldintzetan. Esandako ebazpena behar besteko titulua izango da, halaber, Administrazioak jabari publikoko ondasunen immatrikulazioa egiteko, hori egoki jotzen duenean.

Orobat, aipatutako ondasun eta eskubideen gaineko jabetza berreskuratzeko espedientea ofizioz eta edozein unetan abiarazteko ahalmena izango du, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera.

7. Hirugarrenek zortasun-eremuan kokatutako ondasun higiezinen Jabetzaren Erregistroko immatrikulazioa egitean, onibar horien deskribapenean, bideen jabari publikoaren mugakide diren ala ez zehaztu beharko da. Baiezko kasuan, ezin izango da immatrikulaziorik egin, tituluarekin batera ez bada ekartzen Estatuko Administrazioaren ziurtagiria non egiaztatzen den ez dela jabari publikoa inbaditzen.

8. Estatuko Administrazio Orokorren titulartasunekoak diren ondare-lurrak, bideen jabari publikoaren mugakide direnean edo haien zortasuneko edo eraginpeko eremuan daudenean, esandako jabariaren babeserako edo erabilpenerako beharrezkoak baldin badira, jabari horren erabilera propioaren eraginpean geratuko dira, dagokion administrazio-egintzaren bitartez, Administrazio publikoen ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean aurreikusitako moduan. Ezingo dira besterendu aipatutako ondoretarako beharrezkoak ez direla aldeztatik adierazpena egin gabe, zeina Sustapen Ministerioari eskatuko baitio Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak. Aipatutako eskabidea egin denetik hilabeteko epea igaro baldin bada Sustapen Ministerioak txostenik egin gabe, ulertuko da esandako txostena aldekoa dela ondore guztietarako. Behin izapide hori beteta dagoenean, lursail horiei ez zaie aplikatzekoa izango hurrengo zenbakian aurreikusitakoa.

9. Sustapen Ministerioak eroslehentasuna izateko eta atzera eskuratzeko eskubideak izango ditu bideen jabari publikoarekin mugakide diren ondasunen bizien arteko kostu bidezko eskualdaketetan; horretarako, lagatzaileek idatziz jakinarazi beharko dute horren berri, eta, lagatzaileek ezean, eskualdaketan parte hartzen duen notarioak jakinarazi beharko du. Eroslehentasun-eskubidea egikaritu ahal izango da hiru hilabeteko epean eta atzera eskuratzeko eskubidea urtebeteko epean, bi-biak kasuan kasuko jakinarazpena egiten denetik hasita; jakinarazpen horrek eskualdaketaren oinarrizko baldintzak jasoko ditu.

31. artikulua. *Zortasun-eremua.*

1. Estatuko errepideen zortasun-eremua errepideen alde banatako bi lur-zerrendak osatzen dute; barruko aldetik, jabari publikoko eremuak zedarritzen ditu, eta, kanpokotik, lur-berdinketaren kanpoko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 25 metroko distantziara daudenak autobide eta autobietan, eta 8 metrora errepide arruntetan eta errei anitzekoetan, horizontalean neurtuta aipatutako ertzetatik.

2. Zortasun-eremuan ezin izango dira obrak edo instalazioak gauzatu eta bide-segurtasunarekin eta bidearen ustiapen egokiarekin bateragarriak diren erabilera soilik ametituko dira, Sustapen Ministerioaren aldeztutako baimena izanik eta bil litezkeen beste eskumen batzuk ezertan galarazi gabe.

3. Sustapen Ministerioak, interes orokorreko arrazoiak direla-eta edo errepidearen zerbitzu hobekia eskatzen duenean, erabili ahal izango du zortasun-eremua edo hirugarrenei baimendu haren erabilpena.

4. Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute bai zortasun-eremuaren okupazioak eta bai berorren erabilera-eremuetatik eragindako kalte eta galerek.

32. artikulua. *Eragin-eremua.*

1. Estatuko errepideen eragin-eremua errepideen alde banatako bi lur-zerrendak osatzen dute; barruko aldetik, zortasun-eremuak zedarrizten ditu, eta, kanpokotik, lurberdinketaren kanpoko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 100 metroko distantziara daudenak autobide eta autobietan, eta 50 metrora errepide arruntetan eta errei anitzekoetan, horizontalean neurtuta aipatutako ertzetatik.

Tunelen eta haien elementu osagarrien kasu berezian, eragin-eremukoak izango dira berorien kanpoko pinoien proiektzio bertikalen artean kokatutako lursailak ez ezik, baita bi lur-zerrenda gehigarri ere, 50 metro zabalekoak, esandako proiektzio horien alde banatan kokatuak, tunelen edo elementu osagarrien ardatzarekiko horizontalean eta perpendikularki neurtuta, 31.3 artikuluan xedatutakoaren aplikazioz, beste era bateko babes mailaren bat eratortzen den kasuan salbu.

2. Eragin-eremuan edozein motatako obrak edo instalazio finakoak edo behin-behinekoak gauzatzeko, lehen daudenen erabilera edo xedea aldatzeko, eta zuhaitzak landatu edo botatzeko, Sustapen Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da, bilitezkeen beste eskumen batzuk ezertan galarazi gabe.

Baimenen eskabidea, edonola ere, administrazio-prozedurari buruzko legerian eta berori garatzeko arauetan aurreikusitako bitarteko telematikoak erabiliz egin ahal izango da.

3. Eragin-eremuan jada existitzen diren eraikinetan eta instalazioetan, konponketako edo hobetzeko lanak egin ahalko dira, dagokion baimena lortu ostean, berorien xedea eta edukia egiaztatu ondoren, betiere eraikuntza-bolumena handitzea ez badakar eta haietatik ondorioztatzen den balio-hazkundera ezingo delarik aintzat hartu desjabetze-ondoretarako, hori guztia, era berean, bilitezkeen gainerako eskumenak ezertan galarazi gabe.

4. Eragin-eremuaren barruan baina 33.1 artikuluan zehaztutako eraikitze mugalerritik kanpora baimena ukatzeko, bide-segurtasun arazoietan, errepidearen ustiapen egokia motibotzat hartuta edo Estatuko errepideen plan, azterlan, edo errepideen eraikuntza, kontserbazio, zabaltze edo aldaketa proiektuetan eta aurreikuspenetan oinarrituta soilik egin ahal izango da, 10 urte gainditzen ez dituen etorkizunaren barruan, baimenaren datatik edo dagokion azterlana gauzatzeko agindutik zenbatuta.

33. artikulua. *Eraikigarritasuna mugatzeko eremua.*

1. Estatuko errepideen alde banatan eraikitze mugalerroa dago ezarrita; lerro hori 50 metrora kokatua dago autobide eta autobietan, eta 25 metrora errepide arruntetan eta errei anitzekoetan, betiere, horizontalean eta perpendikularki neurtuta hurbilen dagoen galtzadaren kanpoaldeko ertzetik. Galtzadaren kanpoaldeko ertza, ibilgailuen zirkulaziorako, oro har, erabiltzen den errepide-zatiaren kanpoko ertza da.

Errepide baten bi bazterretan ezarritako eraikitze mugalerroen artean geratzen den lur-zerrendari eraikigarritasuna mugatzeko eremua deitzen zaio. Eremu horretan debekatuta dago zeinahi motatako eraikuntza-, berreraikuntza- edo zabaltze-lanak egitea, lur azpian egin daitezkeenak barne, baita erabilera aldatzea ere, lehendik existitzen diren eraikuntzen edo instalazioen kontserbaziorako eta mantentze-lanetarako ezinbestekoak gertatzen direnak salbu.

Gainera, bizilekutarako etxegintzari eta, zarataren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera zonifikazio eta immisio akustikoari dagokionez, hari asimilaturik dagoen eraikuntzari, errepidearekiko distantzia edozein dela ere, Sustapen Ministerioak eginda dauzkan zarata-mapen edo azterlan espezifikoien eta, dagokion jendaurreko informazioaren prozedura igaro ostean, hura onartzearen ondorioz definitutako zortasun akustikoko eremuak ezartzetik ondorioztatzen diren murrizketak aplikatu beharko zaizkie.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondoretarako, errepide-bilguneek eta noranzko-aldaketek, bidegurutzeek, biratzeko bideek eta adarrek 50 metroko distantziara edukiko dute eraikitze mugalerroa, kasuan kasu, horizontalean eta perpendikularki neurtuta galtzadaren kanpoko ertzetik.

3. Sustapen Ministerioak, eraginpeko autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen aldez aurreko txosten ez-loteslearen ondoren –gehienez, bi hilabeteko epean jaulki beharko dute–, izaera orokorrez ezarritakoa baino laburragoko eraikitze mugak finkatu ahalko du, arrazoi geografiko edo sozio-ekonomikoengatik, Estatuko zenbait errepideri aplikatuta, guztiz zedarritutako guneko edo bide-zatietan.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, herri barrutik igarotzea eragozteko eraikitzen diren saihebidetako edo ingurabideetan, edozein dela ere haien sailkapena, eraikitze mugak 50 metrora kokatuko da, horizontalean eta ardatzarekiko perpendikularki neurtuta, galtzadaren kanpoko ertzetik, saihebidetako luzera guztian.

5. Sustapen Ministerioaren errepideetako jarduketak berriak zerbitzuan jartzetik eratorzen diren eraikitze mugak buruzko aldaketek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea emango diete eraikigarritasuna mugatzeko eremuan dauden lursailetan eskubide erreala dituzten titularrei, bai eta zortasun akustikoko eremuetan murrizketak jasan dituztenei ere, egiaztatzen badute eskubideak gutxi zaizkiela eta ez dutela beste leku batean haiek egikaritzeko aukerarik.

Kalte-ordainerako eskubidea emango dute, era berean, hirugarren batzuek –publikoak edo pribatuak izan– behar bezala baimendutako jarduketetan eragindako kalteek, baita jarduketak horiek edo berrietako elementu batzuk, azkenean, erabilera edo titulartasun publikoak direnean ere; kalte-ordainerako eskubidea izango dute aitortutako eskubideak gutxi zaizkiela egiaztatzen dutenek, beste leku batean egikaritzeko aukerarik ez badute. Kalte-ordaina jarduketaren sustatzaileak ordainduko du.

Kalte-ordaina eskatu ahal izango da, orobat, eraikitzen diren errepideen ondoko lursailetan edo haietan egiten diren jarduketaren ondorioz sortzen diren balio galeragatik, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, jabetzaren estatutu juridikoan izandako gutxitzearen ondorioz, aitortutako eraikigarritasuna galtzea barne, aipatutako errepideen babes-eremuan kokatutako onibarrak direnean eta beste leku batean haiek egikaritzeko ez dagoenean.

6. Lur-berdinketaren proiektio horizontala oso handia delako, eraikitze mugak jabari publikoko eremuaren edo zortasunekoaren barruan geratzen denean, eraikitze mugak zortasun-eremuaren kanpoaldeko ertza dagoen lerro berean kokatuko da.

Eraikitze mugak desberdinak eraten direnean haien neurketa errepide nagusitik edo bidegurutze, errepide-bilgune, noranzko-aldaketa, biratzeko bide edo adarretatik egiten denaren arabera, kasu guztietan, errepidetik urrutien gelditzen dena nagusituko da, edozein dela ere parte hartzen duen errepidea edo haren elementua.

7. Eraikigarritasuna mugatzeko eremuan sartuta dauden lursailen sailkapena eta kalifikazioa ezingo dira ezein kasutan aldatu, baldin eta aldaketa hori lege honetan ezarritakoarekin kontraesanean balego.

34. artikulua. *Desjabetzeko ahalmena.*

1. Errepide-proiektuak gauzatzeko egiten den lursailen desjabetzeak jabari publikoko eremua osatuko duten lursailak jasoko ditu beti. Baldin eta obrak sailkapen aldaketa bat badakar jarduketaren xede den errepidean, lehendik existitzen den jabari publikoko eremuaren hedapena sartuko da haren konfigurazio berrira egokitzeko, beharrezkoa denean.

Hala ere, salbuespenezko kasuetan, eremu horretako desjabetzeak eraikinei edo instalazioei eragiten dienean, desjabetzea atzeratu ahal izango da arrazoi justifikatuengatik, baldin eta berorien kontserbazio- edo erabilera-egoerak ez baditu proiektatutako obrak fisikoki oztopatzen, ez eta kalte egiten ere errepidearen ustiapen egokiari edo bide-segurtasunari.

2. Zortasun-eremuetan eta eraikitze mugak bitartekoan, Sustapen Ministerioak desjabetzea gauzatu ahal izango du, 12. artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, inplizituki ulertzen baitira bai erabilgarritasun publikoaren adierazpena eta bai okupatzeko premia, baldin eta, alde aurretik, oinarritzko trazadura-proiektu bat baldin badago, edo behin betiko onartutako eraikuntza-proiektu bat, errepidea konpontzeko,

zabaltzeko, edo kontserbatzeko, zeina beharrezkoa den haren ustiapena edo bide-segurtasuna hobetzeko.

35. artikulua. *Lanak geldiaraztea edo legeztatu gabeko erabilerak bertan behera uztea.*

1. Sustapen Ministerioari dagokio Estatuko errepideen eraikuntzaren eta ustiapenaren zaintza egitea eta, horren ondorioz, baita adierazitako horiek eta berorien babes-eremuak baimenduta ez dagoen erabilera orotatik babesteko eskumena ere. Administrazio-jarduna, edonola ere, kontraesan-prozeduraren bitartez eramango da aurrera, nahiz eta Sustapen Ministerioaren eginkizuna izango den, kasua hala bada, obrak edo instalazioak geldiarazteko edo baimendu gabeko edo baimenean ezarritako baldintzetara doitzen ez diren erabilerak bertan behera uzteko erabakia ematea, eta indar publikoaren laguntza eskatu ahal du jakinarazpena egiteko.

2. Sustapen Ministerioak aurreko zenbakian adierazitako prozeduraren bitartez zehaztuko du geldiaraztea edo bertan behera uztea justifikatu zuten erabilerak edo inguruabarrak zuzenbidearekin bat datozen edo ez, ondorengo erregela hauen arabera:

a) Jakinarazpenean adierazitakoa ez dela bete egiaztatzen bada, Sustapen Ministerioak lurraldeko Gobernu Ordezkaritzari eskatuko dio, jakinarazpena egin osteko hamar egun naturaleko epean, prozedurarekin aurrera egin dezala egindako jakinarazpena betetze aldera. Esandako eskabide horretan obrak, instalazioak edo erabilerak legeztatzeko balizko aukeraren berri emango da, baldin eta esandako horiek aplikatzekoak diren arauetara doitu balira.

1. Baiezko kasuan, Gobernu Ordezkaritzak agindu lezake dagozkion espedienteak bideratzea, obrak edo instalazioak edo aipatutako erabilera-baimenak legeztatzeko.

2. Kasua hori ez denean, obrak, instalazioak edo erabilerak legeztatzerik ez dagoenean, Gobernu Ordezkaritzak dagokion ebazpena hartuko du eta espedientea bideratuko du obra edo instalazio horiek eraisteko edo aipatutako erabilerak behin betiko galarazteko.

b) Egindako jakinarazpenaren ez-betetzetik egon ez bada eta obrak legeztatzea baldin badago, a) 1. epigrafean aipatutako zuzemena Sustapen Ministerioak gauzatuko du. Kontrara, jarduketak legeztatzerik ez balego, Sustapen Ministerioak Gobernu Ordezkaritzara lekualdatuko du espedientea, aurreko a) 2. epigrafean adierazten den bezala joko dezan.

3. Kasu bakoitzari dagozkion ebazpenak bidezkoak diren mota guztietako zehapenak eta erantzukizunak ezertan galarazi gabe hartuko dira.

4. Zirkulazioari, bide-segurtasunari, ustiapenari edo azpiegiturako elementuei kalte egiten dieten edo, lege honek erabakitzen duenaren arabera baimendu ezin daitezkeen jabari publikoko jarduketak baldin badira, Sustapen Ministerioak, zirkulazioa kudeatzen duten organo arduradunei aldeztatik jakinarazita, zuzenean eskatuko die haiek gauzatzen dituztenei bihur dezatela berriro guztia lehengo egoerara, eta hori betetzeko obligazioa izango dute xede horretarako ematen zaien epearen barruan.

Aipatutako jarduketa horiek arriskutsuak baldin badira bide-segurtasunerako edo errepidearen ustiapenerako, Sustapen Ministerioak zirkulazioa kudeatzen duten organo arduradunen jakinaren gainean jarriko du eta berehalaxe arriskua ezabatu ahal izango du, kausatzailearen kontura, eta horretarako ez da behar aldez aurreko baimen judizialik. Aipatutako jarduketak bidezkoak diren mota guztietako zehapenak eta erantzukizunak ezertan galarazi gabe gauzatuko dira.

5. Artikulu honetan adierazitakoaren harira, arau-hausleak gauzatuko ez balitu esaten zaion epean egiteko eskatu zaizkion jarduketak, Gobernu Ordezkaritzak jarduketa haien gauzatze subsidiarioari ekiteko eskubidea izango du, haren kontura.

36. artikulua. *Sarbideen mugaketa.*

1. Sustapen Ministerioak muga ditzake Estatuako errepideetarako sarbideak, baita nahitaezko izaeraz ezarri ere esandako sarbide horiek eraiki ahalko diren lekuak. Aurreko hori gorabehera, zirkulazioa kudeatzeko ardura duten organismoek eten ahal izango dute aldi batez haietatik igarotzen den zirkulazioa, ondore horretarako egotzita dituzten eskumenen egikaritzan.

2. Era berean, Sustapen Ministerioak ahalmena izango du existitzen diren sarbideak berrantolatzeke, errepidearen ustiapena eta bide-segurtasuna hobetzeko xedez, eta behar diren lurak desjabetu ahalko ditu horretarako.

3. Estatuako errepideetarako sarbideak berorien eta Estatuaren titulartasunekoak ez diren beste errepideen edo zeinahi motatako bideen arteko konexioak dira, edota errepide beraren zerbitzu-bideekin egindakoak, eta hirigune eta mugakide diren jabetzekiko zuzeneko konexioak, eta, oro har, galtzadara edo galtzadatik ibilgailuak sartzea edo irtetea ahalbidetzen duen lurzoruaren edozein moldaketa fisiko.

4. Autobideetara, autobietara, herriko saihebidetara eta ingurabideetara errepide-bilguneetatik soilik egin ahal izango da sarbidea.

Gainerako errepideetan, mugakide diren jabetzetatik ez da haietara sarbiderik egongo, zerbitzu-errepideen bitartez egiten denean salbu. Errepide horietan, aurreko horretatik salbuetsita geratzen dira ondorengo bi baldintza hauetakoren bat betetzen duten sarbideak:

- a) Sarbidea interes publikokoa izatea era berean izaera publikoa duten ondasun, obra edo zerbitzuekin lotura duelako.
- b) Beste mota bateko sarbidea ezinezkoa dela behar bezala justifikatuta egotea.

Edozein modutan, ez da zuzeneko sarbiderik egongo mugakide diren jabetzetatik errepide-bilgune eta noranzko-aldaketetara, ez eta adarretara, bidegurutzeetara, biratzeko bideetara, abiadura aldatzeko erreietara, ez bide biltzaile-banatzailleetara ere.

5. Beste administrazio publiko batzuen sareetako errepideen eta Estatuako errepideen arteko konexioak, Sustapen Ministerioaren alde aurreko baimena eskuratu ostean, Estatuako errepideen funtzionaltasuna eta beste sare batzuekiko lotura eta konexioa optimizatzeko egokienak gertatzen diren puntuetan soilik eraman ahal izango dira aurrera.

6. Sustapen Ministerioak eskumena izango du, orobat, edozein momentutan, existitzen diren sarbideen baimena aldatzeko edo aldi baterako edo behin betiko eteteko, berorien erabilera aldatu denean, zirkulazioa modu esanguratsuan handitu denean, bide-segurtasunari edo errepidearen ustiapen egokiari kalte egiten zaionean, jabari publikoan edo errepideko ekipamenduan kalte-galerak gertatzen direnean, esandako baimena eman zeneko baldintzak aldatu direnean edota bateraezinak badira baimena eman ostean onartutako beste arau batzuekin.

7. Ez da baimenduko zerbitzu-bideen eta errepideen arteko konexio berririk, salbuespenez eta behar bezala justifikatuta dagoenean izan ezik, jada existitzen diren esteken eta bidegurutzeen bitartez.

8. Erregelamendu bidez zehaztuko da zer baldintza bete beharko diren sarbide bat baimendua izateko, baita eskabidea egiteko prozedura eta, kasua hala denean, dagokion baimena emateko bete beharreko baldintzak ere.

9. Errepidearen ustiapen egokian, jardueraren izaera dela medio, kualitatiboki edo kuantitatiboki, eragin negatiboa izan dezakeen erabilpen-bolumena sor dezaketean jarduerari zerbitzua emateko sarbideak edo jada existitzen direnen erabilera-aldaketa eskatzen denean, zirkulazioari buruzko azterlan bat erantsi beharko da, eta eragina nabarmena baldin bada, proposamen bat ere bai non beharrezko egokitze-neurriak jasoko diren eraginpeko errepideetako zerbitzu maila eta bide-segurtasuneko lehenean mantentzeko. Kontrako kasuan, sarbiderako eskabidea ukatu egin beharko da.

10. Sustapen Ministerioak sarbide bat eraikitzearen ondorio gisa, mugakide den jabetza bateko jabeek edo usufruktudunek, edota zuzeneko interesdun diren beste batzuek, onura berezi bat lortzen dutenean, ekarpen bereziak ezartzeko aukera egongo da eta lege honen 20. artikuluan gaiari buruz ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

11. Sarbide bat eraikitzen edo aldatzen baldin bada, edo berorren erabilpena aldatzen bada, baimenik gabe edo dagokion baimenean ezarritako baldintzetara doitu gabe, lege honen 35. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da.

37. artikulua. *Publizitatea.*

1. Errepideen hiri-barruko bide-zatiak kenduta, debekatuta dago publizitatea jartzea errepideko galtzadatik bistan geratzen den edozein lekutan, eta, oro har, errepidean doazen gidarien arreta erakar dezakeen beste edozein iragarki ere bai. Debeku horrek ez du ezein kasutan kalte-ordainerako eskubiderik emango.

2. Aipatutako debekua errotulu, kartel, inskripzio, forma, logotipo edo irudi guztiei aplikatuko zaie, edozein dela ere iragarkiaren mota, neurria edota haien euskarritzat erabiltzen den elementua.

3. Artikulu honen ondorioetarako, ez dira publizitatetzat hartuko Sustapen Ministerioak baimendutako informazio-kartelak.

Kokatuta dauden jabetzan garatzen den aktibitatearen identitate korporatiboaren berri soilik ematen duten errotuluak edo kartelak dira informazio-kartelak. Baita erregelamenduz ezartzen diren beste batzuk ere.

4. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, Sustapen Ministerioak agindu ahal izango du, baita zeharbideetan ere, bide-segurtasunean edo errepidearen ustiapen egokian eragina izan dezaketen publizitate- edo informazio-elementuak kentzea edo aldatzea, eta hortik ez da sortuko kalte-ordainerako eskubiderik.

Halakoak errepidearen jabari publikoan edota berorren ekipamenduan kokatuta badaude, Sustapen Ministerioak haiek erretiratzeko edo kentzeko ahalmena izango du arau-haustearen arduradunen kontura, erregelamendu bidez zehazten denaren arabera eta erator litezkeen erantzukizunak eta zehapenak ezertan galarazi gabe.

38. artikulua. *Zirkulazioa mugatzea.*

1. Sustapen Ministerioak, bere eskumenen esparruan eta beste xedapen batzuetan ezarritakoa eta beste ministerio-sail batzuen ahalmenak ezertan galarazi gabe, ezarri ahalko ditu, horretarako baldintzek, egoerek, eskakizun teknikoek, bide-segurtasunak edo Estatuko errepideen ustiapen egokiak hala eskatzen dutenean, zirkulazio-mugaketak, aldi jakin baterako edo modu iraunkorrean, errepideen zenbait bide-zatitan.

Sustapen Ministerioaren eskumena da, era berean, organo eskudunak, kasua hala denean, eman ditzakeen baimenen baldintzak finkatzea eta zirkulaziotik ondorioztatzen diren antolamenduak seinaleztatzea, seinaleztatzeari buruz, hain zuzen, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legerian jasotzen diren eskumenak ezertan galarazi gabe.

2. Aurreko inguruabarretatik eratorzen denean erabakitzen den ibilgailuen zirkulazioa emakida araubidean ustiatutako autobide batetik –haren osotasunean edo parte batean– desbideratu beharra, Autobide Nazional Bide-saridunen Sozietate Emakidadunetan Gobernuak duen ordezkariak erabaki ahalko du esandako desbideratzea eta, kasu horretan, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioaren alde aurreko txostenarekin eta emakidadunari entzun ostean, autobidearen erabilpen-baldintzak finkatuko ditu, aldi baterako, eta emakidadunari dagokion konpentsazioa erabakiko du sortzen zaizkion kalteengatik. Ez da aplikatzekoa izango Emakida-erregimenean autopistak eraiki, artatu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legearen 24. artikulua.

Larrialdi kasuetan, paragrafo honetan aipatzen den erabakia Sustapeneko ministroak edo hark eskuordetzen duen beste agintari batek har lezake, aurreko izapide horiek gabe, gehienez ere hilabeteko epe batez, emakidadunak eskubidez eska lezakeen konpentsazioa ezertan galarazi gabe.

3. Zirkulazioaren mugaketak edo ezarritako beste edozein murrizketa, eta, kasua hala denean, erabakitako desbideratzeak, ahalik eta azkarren jakinaraziko zaizkie ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan eskumena duten agintariei, arduradun horiek berehala

egokitu ditzaten zirkulazioaren zaintza-, diziplina- eta arautze-neurriak eta eguneratuta eduki dezaten errepideei buruz erabiltzaileei eskaintzen zaien informazioa.

4. Zirkulazioko baimen osagarriaren onuraduna behartuta egongo da, baimena ematearen ondorioz Sustapen Ministerioak edo haren erakunde emakidadunek aurre egin behar izan dieten gastuak eta, kasua hala denean, moldatu behar izan dituzten bitartekoen kostuak konpentsatzera, horretarako dagokion ordainketa eginez.

5. Erregelamendu bidez ezarriko dira errepideetako zirkulazioaren mugaketak mota desberdinetako ibilgailuentzat, beste ministerio-sail batzuen eskumenak ezertan galarazi gabe.

39. artikulua. *Edukiera- eta pisatze-instalazioak.*

Sustapen Ministerioak edukiera neurtzeko, pisatzeko geltokiak eta garraioko sistema adimendunetan integratutako ekipamenduak ezarri ahalko ditu Estatuko errepideetako puntu jakin batzuetan, errepideen azpiegituraren gaineko zirkulazioaren ezaugarrien berri izateko eta kontrolatzeko, era horretan, haren ustiapena egokia izan dadin. Araua hausten duten gainkargak zigortu egingo dituzte agintari eskudunek kasuan kasu.

40. artikulua. *Errepideari eragindako kalteak.*

Sustapen Ministerioak konponketaren kostua ordaintzera behartu ahalko ditu errepideei eta haien elementuei kalteak eragin dizkietenak, kasua hala denean haien dagozkien zehapenak edozein izanik ere, edo zehapenik jartzen ez zaienean ere bai.

Halaber, Sustapen Ministerioak behartu ahalko du kalteen eragilea, sorospen publikorako esku-hartzea, hainbat pertsona tartean direla, bere bitarteko propioen edo kontratatuen bidez, seinaleztatze- edo balizatze-elementuak, ibilgailu edo zamen zainketa eta, istripu edo matxuraren kasuan, hondakinak garbitzea, horiek guztiak kosta zaizkiona ordaintzera.

2. atala. Arau-hausteak eta zehapenak

41. artikulua. *Arau-hausteak.*

1. Bideen jabari publikoaren eta haren babes-eremuen babes arloko arau-hauste administratiboak izango dira ondorengo zenbaki hauetan sailkatzen diren ekintza eta ez-egite hauek, ezarritako erantzukizun-araubidearen arabera. Arau-hausteak oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso astunak dira honako hauek:

a) Dagozkien baimen edo lizentziarik gabe, bideen jabari publikoaren eremuan eraikuntzak, jarduketak edo eraldaketa eta erabilpen ekintzak gauzatzea. Halaber, bide-segurtasunean eragina izan dezakeen beste edozein motatako jarduketa, edo emandako baimenetan ezarritako aginduren bat ez betetzea, haiek legezkatzea posible izan ez denean eta ez direnean esandako eremuak egindako arau-haustearen aurretik zuten egoerara bihurtu.

b) Edozein eraikuntza, instalazio, elementu edo ekipamendu suntsitzea, hondatzea, bestelakotzea edo aldatzea, jarduketek bide-plataforman eragina dutenean edo bide-segurtasunean eragin dezaketenean, edo 41.3.c) eta 41.3.e) epigrafeetan jasotako arau-hausteak, errepideari galerak eragin bazaizkio edo bide-segurtasuna edo errepidearen ustiapen egokia kaltetu bada.

c) Eraikigarritasuna mugatzeko eremuan debekatuta dauden eraikuntza-, berreraikuntza- edo zabaltze-lanak egitea, lur azpian egiten direnak barne, lehendik existitzen diren eraikuntzen edo instalazioen kontserbaziorako eta mantentze-lanetarako ezinbestekoak gertatzen direnak salbu.

d) Existitzen diren eraikinen bolumena handitzea dakarten edo eragin lezaketan egintzak gauzatzea, eraikin horiek eraikigarritasuna mugatzeko eremuan kokatuta daudenean.

e) Sarbide berriak eraikitzea edo lehendik daudenen erabilerak edo ezaugarriak aldatzea, dagokion baimena izan gabe.

f) Zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin edo segurtasunarekin zerikusia duen edozein elementu ostea, hondatzea edo suntsitzea, edo haren ezaugarriak edo kokapena nahita aldatzea, elementuak bere funtzioa betetzen segitzea eragozten denean edota bide-segurtasuna edo errepidearen ustiapen egokia arriskuan jartzen denean.

g) Kalteak edo hondamenak eragitea baimendutako mugak gainditzen dituzten pisu, zama edo galiboekin zirkulatzeagatik.

h) Debekatutako edozein motatako publizitatea ipintzea, eremuak arau-haustea egin aurreko egoerara bihurtu ez diren kasuan, edota informazio-kartelak edo publizitate-elementuak ez erretiratzea haien titularrei kentzeko eskatu zaienean.

i) Urruneko sistemen bitartez fokuak, idazkun argitsuak, argi dirdaitsuak edo bide-segurtasuna kaltetzen duen antzeko beste zeinahi elementu instalatzea edo erabiltzea, eremuak arau-haustea egin aurreko egoerara bihurtu ez diren kasuan.

j) Falta astunetan behin eta berriro erortzea, arau-hauste oso astunak preskribatzeko ezarritako epea bete baino lehenago.

3. Arau-hauste astunak honako hauek izango dira:

a) Eraikigarritasuna mugatzeko eremuan instalazioak edo eraikuntza-, berreraikuntza- edo zabaltze-lanak egitea, lur azpian egiten direnak barne, horretarako beharrezkoak diren baimenak edo lizentziak eduki gabe, edo emandako baimenetan ezarritako aginduak ez betetzea, gerora legeztatzearen xede izan daitezkeenean, edo, legeztatzearen xede izan ez daitezkeenean eta gauzak egindako arau-haustearen aurreko egoerara bihurtu direnean, gerorako galerarik eragin gabe.

b) Zortasun- edo eragin-eremuetan, eraikuntzak edo jarduketak gauzatzea, eta beharrezko baimenak eduki gabe aurrera eramatea, edo emandako baimenetan ezarritako aginduak ez betetzea, gerora legeztatzearen xede izan ez daitezkeenean edo bide-segurtasunean eragina izan badezakete, eta esandako eremuak ez balira bihurtu egindako arau-haustearen aurreko egoerara, edo egoera hartara bihurturik, galerak eragin balira.

c) Jabari publikoaren eremuan, eraikuntzak edo jarduketak gauzatzea, sarbideei eragiten ez dietela, eta beharrezko baimenak edo lizentziak eduki gabe aurrera eramatea, edo emandako baimenetan ezarritako aginduetako batzuk ez betetzea, gerora legeztatzearen xede izan daitezkeenean, edo 41.2.a) artikuluan aipatu bezala, eraginpeko eremuak egindako arau-haustearen aurreko egoerara bihurtu diren kasuan, errepideari galerarik eragin ez bazaio edota bide-segurtasuna edo errepidearen ustiapen egokia kaltetu ez bada.

d) Zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin edo segurtasunarekin zerikusia duen edozein elementu hondatzea edo haren ezaugarriak edo kokapena nahita aldatzea, elementuak bere funtzioa betetzen segitzea eragozten ez badu edo bide-segurtasuna edo errepidearen ustiapen egokia arriskuan jartzen ez baditu.

e) Edozein eraikuntza, instalazio, edo ekipamendu suntsitzea, hondatzea, bestelakotzea edo aldatzea, jarduketek bide-plataformari eragiten ez diotenean, errepideari galerarik eragin ez bazaio, edo bide-segurtasuna edo errepidearen ustiapen egokia kaltetu ez bada.

f) Lur-berdinketaren gainean objektuak, ibilgailu motordunak edo beste zernahi material jartzea, isurtzea, hustea, botatzea edo abandonatzea.

g) Eragin-eremuan edozein eratako eraikinak edo jarduketak gauzatzea, edo errepidearen erabiltzaileentzat gogaikarriak edo osasunarentzat kaltegarriak diren jarduerak gauzatzea, hori eragozteko dagozkion neurriak hartu gabe.

h) Falta arinetan berrerortzea, arau-hauste astunak preskribatzeko ezarritako epea bete baino lehenago.

i) Debekatutako edozein motatako publizitatea ipintzea, eremuak arau-haustea egin aurreko egoerara bihurtu diren kasuan.

j) Fokuak, idazkun argitsuak, argi dirdaitsuak edo haien urruneko erabilpena edo bide-segurtasuna kaltetzen duen antzeko beste elementuren bat instalatzea, eremuak arau-haustea egin aurreko egoerara bihurtu diren kasuan.

k) Errepideetako obretatik eratorritako desjabetzeak direla eta, eraginpeko zerbitzuak aldatzeko edo erretiratzeko obligazioa ez betetzea.

j) Zabarkeria edo arduragabekeria erabiltzaileei zerbitzuak ematerakoan edo emakida-araubidean dauden errepideen edo elementu funtzionalen ustiapen-zereginak betetzeko orduan, emakidadunen aldetik, kasua hala denean eta dagozkien kontratuetan idatzita eta ezarrita leudeken kontratu-zigorrek ezertan galarazi gabe.

4. Arau-hauste arinak dira:

a) Zortasun- edo eragin-eremuetan, eraikuntzak edo jarduketak gauzatzea, eta beharrezko baimenak edo lizentziak eduki gabe aurrera eramatea, edo emandako baimenetan ezarritako aginduren bat ez betetzea, gerora legeztatzearen xede izan daitezkeenean, edo eraginpeko eremuak egindako arau-haustearen aurreko egoerara bihurtu diren kasuan, 41.3.b) artikuluan aipatzen den bezala eta, betiere, galerarik eragin ez bada.

b) Lur-berdinketaren kanpoko jabari publikoaren eremuko zerrendaren barruan objektuak, ibilgailu motordunak edo beste zernahi material jartzea, isurtzea, hustea, botatzea edo abandonatzea.

5. Pertsona fisiko edo juridiko hauek izango dira arau-haustearen erantzule:

a) Administrazioaren baimen bat existitzen den kasuan, baimen horren titularra, baldin eta hark ezarritako aginduak edo baldintzak betetzen ez badira.

b) Artikulu honetako 2.h) eta 3.j) zenbakietan aurreikusitako arau-hausteetan, informazio-kartelaren edo publizitate-instalazioaren edo - ekipamenduaren titularra, iragarki-jartzailea eta, subsidiarioki, lursailaren jabea.

c) Gainerako kasuetan, jarduera arau-haustearen egile materiala edo hura egikaritu duen pertsona fisikoa edo juridikoa, eta, kasua hala denean, obraren edo jarduketaren teknikari zuzendaria.

Subjektu arduradun bat baino gehiago baleude, guztiak izango dira arau-haustearen eta ezartzen den zehapenaren erantzule solidario.

Egite berberak arau-hauste bi edo gehiago gauzatzen baditu, zehapen handiena dakarrena soilik hartuko da kontuan.

42. artikulua. *Zehatzeko ahal*.

1. Zehatzeko ahalaren egikaritzea, lege honen ondoretarako, Sustapen Ministerioari edo lurraldeko Gobernu Ordezkaritzari dagokio, 44. artikuluan aurreikusten den bezala.

41. eta 43. artikuluetan aipatzen diren arau-haustek eta zehapenak kontraesan, babesgabetasunaren galarazpen eta publikotasun printzipioen pean jarriko den prozedura baten bidez aplikatuko dira. Gaiari buruzko erregulazio espezifikoko baten faltan, aipatutako prozedura zehatzeko ahalaren egikaritzari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz izapidetuko da.

2. Lege honetako manuen arau-haustek zehatzeko prozedura ofizioz hasiko du Sustapen Ministerioko organo eskudunak, dela bere ekimenez, dela beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz, edo salaketa bidez.

3. Errepidearen edo bere elementuen kontra egindakoak faltak edo delituak diren kasuan, Sustapen Ministerioak erruduntasun-testigantza aurkeztuko dio Fiskaltzari edo eskumena duen agintaritzea judizialari, eta bertan behera utziko du zehapen-prozedura hari eta hark ebazpena eman arte.

Zehapen-prozedurari zigor arloko prozedura behin amaitutakoan eman ahalko zaio jarraipena, erregela hauen arabera:

a) Zigor arloan frogatuta geratu diren adierazitako egitateak, era berean frogatuta daudela ulertuko da administrazio-prozeduran.

b) Ezin izango da administrazio-zehapenik ezarri arau-haustea gauzatu duten egitatei zigor-epai kondenatzailea eman zaienean.

c) Administrazio-prozedura eta egoitza horretako egitateen manua etenda egongo dira zigor-arloko prozesuak irauten duen bitartean.

4. Prozedura zehatzaileen ebazpena jakinarazteko epea hamabi hilabetekoa izango da, espedientea abiarazteko akordioaren datatik zenbatuta; epe hori igarotzen baldin bada jakinarazpenik egin gabe, ebazpena emango da non prozedura iraungi dela adieraziko den eta jarduna artxibatzeke aginduko den, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ondorekin.

43. artikulua. *Zehapenak.*

1. 41. artikuluan aipatzen diren arau-hausteak eragin diren kalteak era galerak eta, kasua hala denean, sortutako arriskua eta eragilearen intentzioa aintzat hartuta zehatuko dira, isun hauekin:

- a) Arau-hauste arinak: 300 eurotik 3.000 eurora arteko isuna.
- b) Arau-hauste astunak: 3.001 eurotik 15.000 eurora arteko isuna.
- c) Arau-hauste oso astunak: 15.001 eurotik 300.000 eurora arteko isuna.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako isunak gorabehera, organo zehatzaileek, dagokion errekerimenduan adierazitako epeak behin igaro direnean, hertsapen-isunak ezarri ahal izango dituzte Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa betez, Administrazioak, esandako lege horrekin bat eginik, emandako geldiarazteko, eraisteko edo eraldatzeko aginduen gauzatze materiala lortu ahal izateko.

Aipatutako isun horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu egindako errekerimenduei ez kasu egiteak ekar dezakeen arau-hauste administratiboaren kasurako finkatzen den isunaren % 20.

3. Isunaren zenbatekoa kalkulatzeko, erregelamendu bidez finkatzen diren irizpideak hartuko dira kontuan.

44. artikulua. *Eskumena.*

1. Arau-hauste arinengatik zehapenak ezartzea lurraldeko Gobernu ordezkariaren eginkizuna izango da; astunengatik Errepideetako zuzendari nagusiarena eta oso astunengatik Sustapeneko ministroarena.

2. Dagokion zehapena ezartzeak ez du loturarik izango eragindako kalte eta galerengatik kalte-ordaina ordaindu beharrarekin eta gauzak lehengo egoerara bihurtzeko edo birjartzeko obligazioarekin, dagozkien prozedurekin eta aplikatzekoa den araudiarekin bat etorritik.

45. artikulua. *Arau-hausteak preskribatzea.*

Lege honen 41. artikuluan aipatzen den arau-hausteen preskripzio-epea urtebetekoa izango da arau-hauste arinentzat, lau urtekoa astunentzat eta sei urtekoa oso astunentzat.

Arau-haustearen preskripzio-epea esandako arau-haustea egin den datan hasiko da zenbatzen, eta, arau-haustearen xedea denboran zehar jarraipena duen jarduera bat edo egitate bat den kasuan, berriz, hura amaitzen den datan. Arau-haustea eratu duen egitatea edo jarduera ezin izan baldin bada ezagutu kanpoko zeinurik ez delako adierazi, preskripzio-epea zeinu horiek adierazten diren datatik zenbatuko da.

IV. KAPITULUA

Hiriko zeharbideak eta bide-zatiak46. artikulua. *Zeharbideak.*

1. Lege honen ondoreetarako, zeharbidetzat hartuko da errepide baten zatia baldin eta haren bi alboen luzeraren bi herenetan, gutxienez, eraikin finkatuak existitzen badira, eta harekin konektatutako kale-sare bat baldin badago, alboetako batean, gutxienez.

2. Estatuko errepideen zeharbideetan, Sustapen Ministerioaren eginkizuna izango da, dagokion udalak aldez aurretik txostena egin ostean, errepideari berari edo haren mugakide diren lurrei eta eraikinei buruzko baimenak ematea, errepideko elementuei edo jabari publikoko eremuari eragiten zaienean. Baldin eta zeharbidea 47. artikuluan definitutako hiriko bide-zatietakoren baten barruan ez balego, errepidearen gainerako babes-eremuetako baimenak ematea ere, era berean, Sustapen Ministerioaren eginkizuna izango da, aldez aurretik dagokion udalak bere txostena egin ostean. Adierazitako baimen-eskabideekiko administrazioaren isiltasunak beti izaera negatiboa izango du.

Lur-berdinketaren kanpoko ertzaren segidan dauden lursailei eta eraikinei mugakideak iritziko zaie.

Bide-plataformaren segidan espaloiak, irilatxoak, lorategiak edo erdibitzaileak daudenean, Estatuaren titulartasuneko zerbitzu-bideak tartean daudela edo ez, mugakidetzat hartuko dira plataformaren kanpoko ertzetik gehienez 2 metrora daudenak, edo errepidetik urrutien dagoen espaloia ertzekoak, haien zintarrira arteko distantzia 2 metro baino txikiagoa bada.

47. artikulua. *Hiriko bide-zatiak.*

1. Lege honen ondoreetarako, dagokion hirigintza-plangintzako tresnaren aldetik hiri-lurzoru gisa sailkatuta daudenetatik igarotzen diren Estatuko errepideen zatiak joko dira hiriko bide-zatitzat, baldin eta halakotzat aitortuta badaude Sustapen Ministerioak onartutako hiriko bide-zatiak zedarritzeko azterlan batean, bere ekimen propioz edo udal interesdunaren eskariz izapidetutako espedientearen bitartez.

2. Errepideen hiriko bide-zatietan, Sustapen Ministerioaren eginkizuna izango da, dagokion udalak aldez aurretik txostena egin ostean, errepideari berari edo haren mugakide diren lurrei eta eraikinei buruzko baimenak ematea, errepideko elementuei edo jabari publikoko eta zortasuneko eremuei eragiten zaienean.

Aipatutako bide-zatiak, era berean, zeharbidetzat hartzen direnean, 46.2 artikuluan ezarritakoa nagusituko da.

Administrazioaren isiltasunak izaera negatiboa izango du beti, aipatu diren baimen-eskabideei dagokienez.

48. artikulua. *Hiriko bide-zatiak zedarritzeko azterlanak.*

1. Hiriko bide-zatiak zedarritzeko azterlanetan, Sustapen Ministerioak finkatuko du, aztertutako Estatuko errepide-sarearen zatian, zein hartuko diren hiriko bide-zatitzat eta zein zeharbidetzat. Halaber, kasu guztietan, bai eraikitze muga-lerroa eta bai jabari publikoaren eremua finkatuko dira eta, hiri barrukoetan, baita zortasun-eremua ere, hori guztia errepidearen albo bakoitzeko inguruabarren arabera.

Aipatutako eraikitze muga-lerroak zehazten duen zabalera baliteke beti berdina ez izatea, lerro hori lege honen 33. artikulua agindutakoa baino distantzia laburragora finkatu ahalko baita, lege hau indarrean jarri aurretik existitzen zen hirigintza-plangintzarekin bat etorritz.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoaren ondoreetarako, Sustapen Ministerioak hiriko bide-zatien zedarritze-azterlana jakinaraziko die eraginpeko udalari eta autonomia-erkidegoari, bi hilabeteko epean txostena jaulki dezaten. Epe hori jakinarazpena egin eta hurrengo egunean hasiko da.

3. Bat baldin badatoz, edo eraginpeko udalak edo autonomia-erkidegoak ez badute erantzuten aipatutako epean, Sustapen Ministerioak onartu ahalko du esandako azterlana. Bat ez badatoz, berriz, kasu horretarako lege honen 16. artikulua 1. zenbakian xedatutakoaren arabera jokatu da.

4. Aurreko zenbakietan aipatzen den informazio ofiziala gorabehera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusita bezala, eta lege honen 12. artikuluan agintzen denaren arabera, jendaurreko informazioaren izapide bat eramango da aurrera, hogeita hamar egun balioduneko epean. Izapide horretan egiten diren oharpenak azterlanak jabetzaren mugaketen, baimen-araubidearen, arau-hausteen eta zehapenen inguruan izango lituzkeen eraginei buruzkoak diren kasuan soilik hartuko dira aintzakotzat.

5. Hiriko bide-zatiak zedarrizteko azterlanak eguneratu egin beharko dira, adierazitako prozedura errespetatuz, inguruabarrek hala eskatzen dutenean, eta gehienera, bost urtetik behin, behin betiko onartzen direnetik.

49. artikulua. *Errepideen hiriko bide-zatiak udalei entregatzea.*

1. Estatuko errepideak edo haien bide-zati jakin batzuk dagozkien udalei entregatuko zaizkie hiri barruko errepideen izaera berenganatzen dutenean. Espedientea udalak edo Sustapen Ministerioak eskatuta sustatuko da, eta Ministro Kontseiluak ebatziko du. Salbuespenez, aipatutako saileko titularrak eman ahal izango du ebazpena, organo lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean akordiorik ez dagoenean.

2. Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, Sustapen Ministerioak eta dagokien toki-erakundeek bidezkoa deritzatena hitzartu ahalko dute aipatutako errepideen edo haien bide-zatien kontserbazio eta funtzionalitate onenaren mesedetan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. *Estatuko errepideen katalogoa.*

1. Lege honen II. eranskin modura, Estatuko errepideen zerrenda eta izendapenak biltzen dituen katalogoa dago.

2. Sustapen Ministerioak gauzatu eta eguneratuko du, behar hainbateko zehaztasun mailarekin, Estatuko errepideen inbentarioa, haien ezaugarri geometrikoak, estrukturalak eta zuzkidura arlokoak barne, baita onartutako hiriko bide-zatien zedarrizte-azterlanen emaitza ere.

Bigarren xedapen gehigarria. *Oinarrizko araudi teknikoa eta seinaleztatzea.*

1. Gaikuntza ematen zaio Sustapen Ministerioari interes orokorreko oinarrizko araudi teknikoa zehaztu dezan eta, bereziki, bide-segurtasunari, seinaleztatzeari, balizak jartzeari eta errepideen euste-sistemei dagokiena, baita Espainiako Estatuak aplikatzen dituen nazioarteko tratatuak, hitzarmenak, akordioak eta gomendioak betetzetik eratorzen den beste edozein ere.

2. Errepideetako seinaleen nazioarteko sistema aplikatuko da lurralde nazionalako errepide guztietan, Estatuko gai honi buruzko legeria betez.

3. Errepide guztien identifikazioa, ibilbide-plaketakoa eta balizatzeko seinaleetakoa, kasu guztietan, ondore horretarako Estatuko legeriak zehazten dituen irizpideetara doituko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Errepide eta bide-zatien transferentzia.*

Sustapen Ministerioak egoki diren akordioak sustatuko ditu dagokion administrazioari transferitu ahal izateko Estatuaren titulartasunekoak izanik ere, Estatuko errepide-sarearen parte izateko beharrezkoak diren betebeharrak betetzen ez dituzten errepideak edo berorien bide-zatiak.

Laugarren xedapen gehigarria. *Defentsa nazionalaren interesak.*

1. Defentsa nazionalerako interesekoak deklaraturako eremuetan edo defentsa nazionalaren helburuekin lotura duten lursail, eraikuntza eta instalazioetan –segurtasun-eremuak barne direla– eragina duten Estatuko eta beste administrazio batzuen mendeko errepideen azterlanak behin betiko onartu aurretik, aipaturako eragin horri buruzko Defentsa Ministerioaren txostena eskatu beharko da. Txostenak izaera loteslea izango du eta bi hilabeteko epean jaulki beharko da, eta jaulkitzen ez den kasuan ez dela aldekoa ulertuko da, defentsa nazionalari dagokionez.

2. Errepideen babes-eremurako ezarritako estekadurak eta mugaketak ez dira aplikatzekoak izango, segurtasunerako eta defentsa nazionalerako berariaz interesekoak deklaraturako lursailetan edota, bere legeria espezifikoi jarraikiz, hari lotutakoetan, nahiz eta, kasu horietan, eta Defentsa Ministerioarekin aurrez adostu ondoren, bide-segurtasunean eragina izan dezaketen ondorio guztiak kontuan hartu beharko diren.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Katastroko inskripzioak.*

Lege honetan xedatutakoaren ondorioz ondasun higiezinak Higiezinaren Katastroan inskribatu behar direnean, bai eta haien ezaugarriak aldatu behar direnean ere, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Higiezinaren Katastroaren Legearen testu bateginean aurreikusitakoaren arabera jokatu da, bereziki katastroko erreferentzia eta katastro-ziurtagiri deskribatzaile eta grafikoa erabiltzeari dagokionez, onibarrak identifikatzeko eta deskribatzeko orduan, eta komunikatzeko, elkarlanean aritzeko eta informazioa emateko betebeharrei dagokienez ere bai, bide telematikoen bitartez.

Seigarren xedapen gehigarria. *Administrazioen arteko lankidetzak.*

Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta toki-administrazioak lankidetzan arituko dira Estatuko errepideetako babes-eremuen erabilerari buruzko baimen-araubidea sinplifikatzea ahalbidetuko duen prozedura bat diseinatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. *Hiriko bide-zatiak zedarritzea.*

Hiriko bide-zatiak zedarritzeko azterlana behin betiko onartuta ez daukaten udalerrietan, eta esandako azterlan hori onartu arte, hiriko bide-zatitzat eta zeharbidetzat hartuko dira aurreko araudiaren indarrez lege hau indarrean jartzen denean izaera hori duten errepide-zatiak.

Bigarren xedapen iragankorra. *Desjabetzen araubide iragankorra.*

1. 29.1 artikulua definitzen dituen eta Administrazioak ezin okupatu izan dituen jabari publikoko lursailak, jabetza-tituluetan babestuta daudelako eta ez delako hasi edo amaitu desjabetze-prozesua berorien prezioa ordaindu eta lurak okupatzearekin, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legean aurreikusitakoaren arabera, lege honetan jabari publikoaren erabilerarako ezarritako araubidearen pean geratuko dira, nahiz eta lursailen titularrek existitzen diren erabilerak legeztatzea eskatu ahalko duten, baldin eta aipaturako erabilerak bide-segurtasunarekin edo errepidearen kontserbazio edo utsiapen egokiarekin bateragarriak badira. Bestela, desjabetzeari ekingo zaio.

2. Bideen jabari publikoaren zedarritzea egiten den errepide-zatietan, 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin gabe zeudelako, edo lege honetan ondasunentzat ezarritako ezaugarrietara haiek egokitzeko, aurrez eginda zegoen zedarritzearen eta zedarritze berriaren artean geratzen diren lursailak xedapen honetako lehenengo zenbakian ezarritako araubidearen pean geldituko dira.

3. Esandako lursailetan kokatuta dauden eraikinei dagokienez, baldin eta berorien erabilerak legeztatuta badaude, lehendik zeuden eraikinen edo instalazioen kontserbaziorako eta mantentze-lanetarako ezinbestekoak diren obrak soilik baimendu ahal dira, eta aipatutako kontserbazio eta mantentze-lanen arloko jarduketak horiengatik sortzen den balio-hazkundera ezingo da aintzat hartu desjabetze-ondoretarako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indarrik gabe geratzen dira Errepideei buruzko uztailaren 29ko 25/1988 Legea eta lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetatik lehena. *Errepideen Legearen Erregelamendua.*

1. Indarrean daudela aldarrikatzen da irailaren 2ko 1812/1994 Errege Dekretua, Errepideetako Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta berorren egikaritzan emandako xedapenak, lege honetan xedatutakoari kontra egiten ez diotenean.

2. Lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, Gobernuak, Sustapen Ministerioiko titularrak proposatuta, lege hau garatzeko erregelamendu orokorra onartuko du.

3. Gobernuak lege honetan aurreikusitakoa garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-arauak onartu ahal izango ditu. Era berean, baimena ematen zaio Sustapen Ministerioari, bere eskumenen esparruan, lege honetan aurreikusitakoa aplikatzeko eta garatzeko beharrezko xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Autobideak emakida-erregimenean eraiki, mantendu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legea aldatzea.*

Lege honen 27. artikulua 2. zenbakian ezarritakoarekin koherente izanik, Autobideak emakida-erregimenean eraiki, mantendu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legearen 27. artikulua 3. zenbakia honela geratu da idatzita:

«Hirugarrena. Emakidadunak kontratatu ahal izango du, emakidako pleguek ezartzen duten eran eta moduan, zerbitzuguneetan ezarritako zerbitzu osagarrien kudeaketa.

Hala eta guztiz ere, petrolio-produktuen txikizkako banaketarako instalazioak barnean dituen zerbitzugune baten kudeaketa ezingo da kontratatu zirkulaziorantzko berean, zerbitzugunearen aurreko ez ondorengo zerbitzugunean eskusiban erregaiak hornitzen dituen handizkako operadorearekin edo enpresa-talde bereko operadore batekin. Era berean, ezingo da petrolio-produktuen txikizkako banaketarako instalazioak dituzten zerbitzugune guztien kudeaketa blokean kontratatu handizkako operadore berberarekin edo haren enpresa-talde bereko beste operadore batzuekin.»

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Aldatu egin da Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. 23. artikulua 1. zenbakian aipatutako ustiategiaren urteko errenta erreal edo potentziala kapitalizatzeko, Espainiako Bankuak Estatuaren 30 urterako obligazioen errentagarritasunari buruz argitaratutako urteko datuen batez besteko

balioa erabiliko da, kapitalizazio-tasa modura; datu horiek balioespenaren data baino lehenagoko hiru urteei dagozkienak izango dira.»

Azken xedapenetatik laugarrena. *Zehapenak eguneratzea.*

Gaikuntza ematen zaio Gobernuari, Sustapeneko ministroak proposatuta, Errege Dekretu bidez, lege honen 43. artikuluan aurreikusitako zehapenen zenbatekoa egunera dezan, kontsumorako prezioaren indizean izandako aldaketen arabera.

Azken xedapenetatik bosgarrena. *Eskumen-titulua.*

1. Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.21 eta 149.1.24 artikuluen babesean eman da, berorietan Estatuari egozten baitzaio komunikazioen araubide orokorrari eta interes orokorreko lan publikoei edo autonomia-erkidego bati baino gehiago eragiten dien lan publikoei buruzko eskumen eskusiboa.

2. 27.2 artikulua eta azken xedapenetatik bigarrena Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 13. eta 18. zenbakien babesean eman dira, berorietan Estatuari egozten baitzaio, hurrenez hurren, ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari buruzko eta administrazioaren kontratu eta emakiden gaineko oinarritzko legegintzari buruzko eskumena.

Azken xedapenetatik seigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2015eko irailaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

I. ERANSKINA

Definizioak

Zuzeneko sarbidea: Sarbide mota honetan, beste bide publiko batzuen eta errepidearen arteko konexio edo estekarik erabili gabe gehitzen dira ibilgailuak galtzadara edo galtzadatik.

Ostertz-urtea: Bideen zerbitzu publikoarekin lotura duten egoeren prognosi jakin batzuek markatzen duten urtea.

Bazterbidea: Galtzadaren ondo-ondoan dagoen luzetarako zerrenda irmotua da bazterbidea; bertatik ezin dira ibili ibilgailu automobilak, salbuespeneko inguruabarretan izan ezik.

Automobila: Burdinbiderik gabe eta kanpoko energia-iturri batera konektatu gabe zirkulatzen duen ibilgailu motorduna. Definizio horretatik kanpo geratzen dira ziklomotorrak, desgaitasuna duten pertsonentzako ibilgailuak, traktoreak eta nekazaritzako gainerako makineriak.

Berma: Luzetarako zerrenda, irmotua edo ez, bazterbidearen kanpoko ertzetik arekara edo plataformatik hurbileneko ezpondaren barneko ertzera artean dagoena.

Galtzada: Ibilgailuen zirkulaziorako prestatutako errepidearen parte da. Hainbat errei izan ditzake.

Zerbitzu-errepidea: Titularren jarduera espezifikoaren elementu laguntzaile edo osagarri gisa eraikitakoa. Ez da errepidetzat hartuko, ez baita beronen elementu funtzionala.

Ingurabide-errepidea: Herri edo hiri bat osorik edo partzialki inguratzen duena, bertara iristen diren errepideekin estekak eginez.

Erreia: Galtzada zatibanatzen duen luzetarako zerrenda da erreia. Luzetarako marraz edo marrarik gabe mugatuta egon daiteke, baina automobil-ilara bat –ez motozikletak– bertatik zirkulatu ahal izateko besteko zabalera izan behar du edozelan ere.

Errei gehigarria zirkulazio lasterrera: Galtzadak bereizita dituzten errepideetan errei nagusien ezkerretara kokatutako errei gehigarria edo, galtzada bakarrekoetan, erreien artean kokatutakoa, azkarrago doazen ibilgailuei abiadura motelagoan doazen beste batzuk aurreratzea errazten diena. Iturria: 3.1-IC Araua.

Errei gehigarria zirkulazio motelerako: Errei nagusien eskuinetara kokatuta dagoen errei gehigarria, abiadura motelagoan doazen ibilgailuei errei printzipaletatik erretiratzea ahalbidetzen diena, haiek baino azkarrago doazen ibilgailuek errazago aurrera ditzaten. Iturria: 3.1-IC Araua.

Abiadura aldatzeko erreia: Abiadura azkartzeko edo moteltzeko erabiltzen den erreia, kasu batzuetan sarbide batetik galtzada nagusira heltzeko eta beste batzuetan alderantziz.

Itxaroteko erdiko erreia: Ezkerretara biratzea eskatzen duen bidegurutze batean, ibilgailuak geldirik itxaroteko erreia, esandako maniobra zirkulazioa oztopatu gabe egin ahal izateko aukera sortu arte.

Txirikorda-erreia: Azelerazio-errei baten segidan dezelerazioko beste bat elkartuta eratutako erreia.

Lur-erazketa: Jatorrizko lursailaren gainean kokatutako lur-berdinketaren zatia.

Ardatza: Errepide baten oinplanoko edo aurretiko bistako trazadura zehazten duen lerroa, haren zeharkako sekzioaren puntu jakin bati dagokiona.

Lotunea: Errepide-bilgune bat non mugimenduren bat besteena ez den beste plano batean egiten den, gutxienez bi ibilbide gurutzatzen direla maila desberdinetan. Hor sartzen dira adarrak eta biratzeko bideak eta, batzuetan, ibilgailuek errepide batetik bestera igarotzeko erabili ditzaketen bidegurutzeak ere bai.

Lur-berdinketa: Errepideak eta haren arekek eta ezpondak okupatutako lursail zatia, non jatorrizko lursaila aldatuta dagoen.

Elkargunea: Errepide-bilgune bat non mugimendu guztiak, gutxi gora behera plano berean egiten diren eta maila desberdinetako ibilbide-gurutzaketarik ez dagoen. Hor sartzen dira adarrak, biratzeko bideak eta, batzuetan, ibilgailuek errepide batetik bestera igarotzeko erabili ditzaketen bidegurutzeak.

Balaztatzeko legardia: Plataformaren aldamenen edo harengandik urrunduz doan eremua, aldapa handiko bide-zatietan, zeinaren xedea lagungarri izatea baita balaztatze-sisteman arazoak dituzten ibilgailuak gelditzeko.

Ertaina: Bi galtzaden artean kokatutako luzetarako zerrenda, zirkulatzeko ez dena.

Zerbitzu maila: Neurri kualitatiboa, trafiko-korrante baten zirkulazio-baldintzak deskribatzen dituena. Eskuarki, zenbait faktoreren funtzioan deskribatzen da, hala nola abiadura, ibilbidearen denbora, maniobratzeko askatasuna, zirkulazioaren etenak, erosotasuna eta komenientzia, eta segurtasuna.

Errepide-bilgunea (laburtuta bilgunea): Bi errepide edo gehiago biltzen diren gunea, batetik bestera pasatzeko aukera ematen duena. Bidegurutzeak eta estekak izan daitezke.

Plataforma: Ibilgailuek erabiltzeko den errepide-guneari deitzen zaio plataforma. Galtzadak, erdibitzailak, bazterbideak eta berma irmotuek osatzen dute.

Adarra: Esteka batean, bi errepide lotzen dituen bidea, batetik bestera igaro ahal izateko.

Lubeta: Jatorrizko lursailaren gainean kokatutako lur-berdinketaren zatia.

Bide-zatia: Errepide batean, zeharkako bi sekzioren arteko zeinahi errepide-zati.

Herriko saihebidia: Errepide bateko obra, haren trazaduran eragina duena eta, ondorioz, zirkulazioa herri edo populazio-gune batetik igarotzea ekiditen edo ordeztzen duena.

Trazadura-saihebidia: Errepide bateko obra, haren oinplanoko edo aurretiko bistako trazadura aldatzen duena.

Biratzeko bidea: Bidegurutze batean, errepide batetik bestera igarotzen diren edo noranzko-aldaketa egiten duten ibilgailuak zirkulatzeko galtzada-zatia.

Bide biltzaile-banatzaila: Zirkulazioko noranzko bakarreko galtzada, errepide baten ardatzarekiko paraleloa eta haren ondoan dagoena, nahiz fisikoki bereizita egon; bere xedea segidako eta hurbileko konexioen artean sortzen diren gatazka-eremuak esandako ardatzetik bereiztea da. Ez die zerbitzurik ematen, ezein kasutan, mugakide diren jabetzei edo eraikinei. Bere ezaugarriak direla-eta, bide biltzaile-banatzaila errepidearen elementu funtzionala da, nahiz eta berorren diseinu- eta ustiapen-ondoreetarako errepidea iritziko zaion.

Zerbitzu-errepidea: Errepidearen paraleloan doan bidea, harekiko bigarren mailako izaera duena eta puntu batzuetan soilik konektatzen dena harekin; mugakide diren jabetzei edo eraikinei ematen die zerbitzua. Zirkulazio-noranzko bat edo bi izan ditzake.

Hiri barruko bidea: Populazio bateko barneko komunikazio-sarea osatzen duten errepideetako edozein, herriko saihebidia batek ordeztu ez dituen zeharbideak salbuetsita.

II. ERANSKINA

Estatuko Errepide-sarearen Katalogoa

Katalogo honetan, 2014/12/31 datan (egun horretan egin zen urteko azkeneko eguneratzea) Estatuko errepide-sarea osatzen duten errepide guztiak biltzen dira. Era berean, Sustapen Ministerioak gaur egun planifikatuak dituen errepideentzat proposatutako izendegia ere jasotzen du, nahiz eta oraindik zerbitzuan ez egon. Horrela, katalogo honek Estatuko errepide-sarearen izendegia eguneratzen du, eta berorri aurka egiten dioten gaiari buruzko aurreko xedapen guztiak indargabetzen ditu.

Aurrerantzean, errepideei buruzko lege honetan jasotako Estatuko Errepide-sarearen Katalogoa izango da erreferentziako izendegia Estatuko errepide-sarean erabiltzeko.

«Errepidea» eremuan, sarea osatzen duten errepideen LL-NNN izena sartu da, indarrean jarraitzen duten aurreko erregelaren arabera: N errepide arruntentzat (antzinako «nazionalak») eta, A, AP edo hiriaren kodea, hurrenez hurren, autobide eta autobia libreentzat, ordainpeko autobideentzat edo ahalmen handiko hiri barruko eta aldirietako errepide-zatientzat, Estatuko errepide-sareko autobide eta autobien izendegia eta katalogoa aldatzen dituen irailaren 26ko 1231/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

«Izendapena» eremuan errepide bakoitzak duen izena dago jasota, Errepideei buruzko 25/1988 Legean eta aipatutako 1231/2003 ED kontuan hartuz eta eguneratuz orain arte egindako aldaketa guztietan aurreikusitakoaren arabera.

«Erreferentziako ibilbidea J/H» eremuan eguneratu egin da, halaber, 25/1988 Legean eta 1231/2003 EDan jasotako edukia. Nazionalen kasuan, azpimarratzekoa da, pixkanaka ahalmen handiko errepideek haien lekua hartuz joan diren heinean, kasu askotan, ibilbide horiek ez datozela bat 1988ko Legeko jatorrizko ibilbideekin. Kasu horietan erabili den irizpidea izan da «Erreferentziako ibilbidea J/H» bezala, gaur egun, jatorrizko errepidearen parte izaten jarraitzen duten bide-zati urrutikoenen muturretan dauden bi puntuak aipatzea.

Era berean, errepide berriek ordeztu dituzten baina oraindik Estatuko errepide-sarearen parte diren antzinako errepide nazionalak katalogo honetan jasota geratzen dira Sustapen Ministerioaren datu-baseen arabera dagokien kodearekin (errepidearen izena eta amaieran A, R...) «Errepidea» eremuan, bere errepide amaren eduki berbera dutela «Izendapena» eremuan, eta inolako edukirik gabe «Erreferentziako ibilbidea J/H» eremuan, izan ere, kode bereko errepideetan sartuta daudela ulertzen baita.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
A-1	Iparreko autobia.	Madril / L.P. Burgos-Araba.
A-1A	El Molar-eko zeharbidea.	El Molar (iparra) / El Molar (hegoa).
AP-1	Iparreko autobidea.	Burgos / Armiñon.
A-11	Dueroko autobia.	Soria / Zamora / Portugalekiko muga.
A-12	Donejakue Bideko autobia.	Logroño / Burgos (Iruñeraino jarraitzen du Nafarroako saretik).
A-13		Logroño / L.P. Errioxa-Nafarroa.
A-14	Ribagorzako autobia.	Lleida / Sopeira.
A-15	Nafarroako autobia.	Medinaceli / Soria / Tuteria.
A-2	Ipar-ekialdeko autobia.	Madril / Zaragoza / Bartzelona / Frantziarekiko muga.
AP-2	Zaragoza-Mediterraneo autobidea.	Zaragoza / El Vendrell.
A-21	Piriniotako autobia.	Jaka / L.P. Zaragoza-Nafarroa.
A-22	Bide Katalaneko autobia.	Lleida / Huesca.
A-23	Mudejar autobia.	Sagunto/Sagunt / Jaka / Frantziarekiko muga (Somport).
A-24	Jilocako autobia.	Daroca / Calatayud.
A-25		Alcolea del Pinar / Monreal del Campo.
A-26	Autobia Pirenaikoa.	Llança / Figueres / Olot.
A-27		Tarragona / Montblanc / Lleida.
A-28	Alcarriako autobia.	Venturada (A1) / Guadalajara / Tarancón.
A-3	Ekialdeko autobia.	Madril / Valentzia.
A-30	Murtziako autobia.	Albacete / Cartagena.
A-31	Alacanteko autobia.	Atalaya del Cañavate / Alicante/Alacant.
A-32		Bailén (A-44) / Albacete.
A-33		Blanca / Fuente la Higuera.
A-35		Almansa / Xàtiva.
AP-36		Ocaña / La Roda / Chinchilla.
AP-37		Alicante/Alacant / Murtzia.
A-38		Valentzia / El Verger.
A-4	Hegoaldeko autobia.	Madril / Sevilla / Cádiz.
AP-4	Hegoaldeko autobidea.	Sevilla / Cádiz.
A-40	Goi-ordoki hegoko autobia.	Ávila / Maqueda / Cuenca / Teruel.
A-41		Ciudad Real / Puertollano.
AP-41		Madril / Toledo.
A-42	Toledoko autobia.	Madril / Toledo.
A-43	Guadianako autobia.	Mérida / Ciudad Real / Atalaya del Cañavate.
A-44	Sierra Nevada-Costa Tropical autobia.	Bailén / Motril.
A-45	Málaga autobia.	Kordoba / Málaga.
AP-46	Las Pedrizas-eko autobidea.	Las Pedrizas-eko gaina / Málaga.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
A-48	Argiaren Kostako autobia.	A-4 (Cádiz) / Algeciras.
A-49	V. Mendeurreneko autobia.	Sevilla / Portugalekiko muga (Ayamonte).
A-5	Hego-mendebaldeko autobia.	Sevilla / Portugalekiko muga (Badajoz).
A-50	Kulturaren autobia.	Ávila / Salamanca.
AP-51		AP-6 / Ávila.
A-52	Rias Baixas-eko autobia.	Benavente / Vigo.
AP-53	Galiziako autobide zentrala.	Santiago de Compostela / Santo Domingo gaina.
A-54	Lugo-Santiago autobia.	Lugo / Santiago de Compostela.
A-55	Vigo-Tui autobia.	Vigo / Tui.
A-56	Lugo-Ourense autobia.	Guntín (Lugo) / Ourense.
A-57	Atlantikoko autobia.	Coruña / Santiago de Compostela / Pontevedra / Porriño.
A-58	Extremadurako autobia.	Trujillo / Cáceres / Badajoz.
A-59	Pontevedra-Vigo autobia.	Pontevedra / Vigo.
A-6	Ipar-mendebaldeko autobia.	Madril / Villalba / Adanero / Coruña.
AP-6	Ipar-mendebaldeko autobidea.	Villalba / Adanero.
A-60	Valladolid - León autobia.	Valladolid / León.
AP-61		Segovia / AP-6.
A-62	Gaztelako autobia.	Burgos / Portugalekiko muga (Fuentes de Oñoro).
A-63		Oviedo / La Espina.
A-64		Villaviciosa / Oviedo.
A-65	Tierra de Campos-eko autobia.	Benavente / Palentzia.
A-66	Zilarraren Ibilbideko autobia.	Gijón / Campomanes/ La Robla / León / Sevilla.
AP-66	Zilarraren Ibilbideko autobidea.	León / Campomanes.
A-67	Kantabria-Goi-ordokia autobia.	Palentzia / Santander.
A-68	Ebroko autobia.	Miranda de Ebro / Logroño / Zaragoza / Mediterranea.
AP-68	Eusko-Aragoitar autobidea.	Bilbo / Zaragoza.
A-7	Mediterraneoko autobia.	Algeciras / Bartzelona.
AP-7	Mediterraneo autobidea.	Frantziarekiko muga (La Jonquera) / Puçol; Silla / Alicante/ Alacant; Crevillent / Vera; Málaga / Guadiaro.
A-70		Alicante/Alacanteko inburabidea.
AP-71		León / Astorga.
A-72		Monforte / Chantada.
A-73		Burgos / Aguilar de Campoo.
A-74	Mariñako autobia.	Barreiros / San Cibrao.
A-75		Verín / Portugalekiko muga.
A-76		Ponferrada / Ourense.
A-77	Alicante/Alacanterako ipar-mendebaldeko sarbidea.	
A-77A	Alicante/Alacanterako ipar-mendebaldeko antzinako sarbidea.	
A-78		Elche/Elx / Crevillent.
A-79		Elche/Elx parkea / Alicante/Alacant bidea.
A-8	Kantauriko autobia.	L.P. Bizkaia-Santander / Oviedo / Baamonde.
A-81		Badajoz / Espiel / Granada.
A-83	Huelvako autobia.	Huelva / Zafra.
AP-9	Atlantikoko autobidea.	Coruña eta Ferrol / Portugalekiko muga (Tui).
AP-9V	Atlantikoko autobidea.	Vigora sarrera.
A-91		Vélez Rubio / Puerto Lumbreras.
AA-11		Alicante/Alacanteko aireporturako sarbidea.
AB-20	Albacete hegoko ingurabidea.	A-32 konexioa / A-30.
AC-10	Eiris-eko tunela.	AC-11 / AC-12.
AC-11	Alfonso Molina.	Coruñaiko Alfonso Molina etorbidea.
AC-12	Bidaiariak.	Carballo / Coruñaiko portua.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
AC-14	Coruñako hirugarren erronda.	A-6 / Coruña.
AC-15		Coruñako kanpoko porturako sarbidea.
AI-81		Avilés-erako ekialdeko sarbidea.
AI-82		Asturiasko aireporturako sarbidea.
AI-83	Avilés-eko porturako sarbide berria.	Avilés-eko porturako sarbide berria.
AL-14		Almeriako porturako sarbidea.
AV-20		Avilako ingurabidea.
R-1		Madril / Santo Tomé del Puerto.
R-2		Madril / Guadalajara.
R-3		Madril / Arganda / Tarancón.
R-4		Madril / Ocaña.
R-5		Madril / Navalcarnero / Talavera de la Reina.
B-10		Bartzelonako kostako erronda.
B-20		Bartzelonako iparreko erronda.
B-21		Bartzelonako porturako bigarren sarbidea.
B-22		Bartzelonako aireporturako sarbidea.
B-23		Bartzelonako erdigunerako sarbidea. Diagonal etorbidea.
B-24		Bartzelonarako sarbidea Valliranatik.
B-25		Kostako errondarekiko konexioa (A-2) / C-32 autobia.
B-30		AP-7ko alboko galtzadak Bartzelonan.
B-40	Bartzelonako orbitako autobia.	Abrera / Granollers.
BA-11		Badajozeko hegoaldeko sarbidea.
BA-20		Badajozeko ingurabidea.
BU-11		Burgoserako hegoaldeko sarbidea.
BU-12		Villafriako aireporturako sarbidea.
BU-30		Burgosko ingurabidea.
CA-31		Puerto de Santa Maríarako iparreko sarbidea.
CA-32		Puerto de Santa Maríarako hegoko sarbidea.
CA-33		Cádizerako sarbidea San Fernandotik.
CA-34		Gibaltarrerako sarbidea.
CA-35	Cádizerako sarbidea 1812ko Konstituzioaren zubitik.	Puerto Real / Cádiz 1812ko Konstituzioaren zubitik.
CA-36	Cádizerako sarbidea José León de Carranza zubitik.	Puerto Real hegoa (CA-35) / Cádizera José León de Carranza zubitik.
CA-37		A-4 / CA-32 konexioa.
CC-11		Cácereserako iparreko sarbidea.
CO-31		Kordobarako iparreko sarbidea.
CO-32		Kordobako mendebaldeko ingurabidea eta Kordobako aireporturako sarbide berria.
CS-20		Castelló, Benicasim/Benicàssim eta Oropesa del Mar/Orpesako ingurabideak.
CS-22		Castellón de la Plana/Castelló de la Planako aireporturako sarbide berria.
CT-31		Cartagenarako mendebaldeko sarbidea.
CT-32		Cartagenarako ekialdeko sarbidea.
CT-33		Cartagenako kairako sarbidea.
CT-34		Escombreraseseko kairako sarbidea.
CU-11		Cuencarako mendebaldeko sarbidea.
EL-20		Elxeko ingurabidea.
FE-11	Ferrolerako ekialdeko sarbidea.	La Trinchera-O Ponto.
FE-12	Ferroleko kanpoko portuarekiko konexioa.	AG-64 / N-655 / AP-9.
FE-13	Ferrolerako iparreko sarbidea.	Montón / Catabois.
FE-14	Ferrolerako hegoko sarbidea.	Fene / Ferroleko portua.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
FE-15	Iparreko sarbidea Ferroleko portura.	AP-9 / Ferroleko portua.
GJ-10	Gijóngo barneko erronda.	Asturiasko Printzearen etorbidea.
GJ-20	Museleko porturako sarbidea.	AS-19. El Empalme / Lloreda konexioa.
GJ-81	Gijónerako hegoko sarbidea.	Lloreda / Gijón esteka.
GJ-82	Gijónerako mendebaldeko sarbidea. (Joveko errepidea).	La Peñona / GJ-10 esteka.
GR-12		Granadako aireporturako sarbidea.
GR-14		Mendebaldeko sarbidea Motrileko portura.
GR-16		Ekialdeko sarbidea Motrileko portura.
GR-30		Granadako ingurabidea.
GR-43		Granadarako sarbidea N-432tik.
H-30		Huelvako ingurabidea.
H-31		Huelvarako sarbidea A-49tik.
HU-20	Huescako hegoko saihesbidea.	N-240 / N-330.
LL-11		Lleidarako ekialdeko sarbidea.
LL-12		Lleidarako hegoko sarbidea.
LE-11		Leonerako hegoko sarbidea.
LE-20		Leongo ingurabidea.
LE-30	Leongo erronda.	Leongo ingurabidea.
LO-20		Logroño hegoko ingurabidea.
LU-11		Nadela / Tolda de Castilla.
LU-12		N-540 / Vilamoure.
M-11		Madrilgo aireporturako sarbidea M-30etik.
M-12		Madrilgo aireportuko ardatza (M-40tik A-1era).
M-13		Ekialde-mendebalde ardatza (Madrilgo aireportua).
M-14		Madrilgo aireporturako sarbidea A-2tik.
M-21		A-2ren saihesbidea M-40 eta M-50 konexioa.
M-22		A-2-M-21 konexioa.
M-23		M-30aren konexioa M-40 eta R-3rekin.
M-31		Hego-ekialdeko ardatza M-40 eta M-50 konexioa.
M-40		Madrilgo ingurabidea.
M-50		Madrilgo ingurabidea.
M-110		
MA-20	Málaga ingurabidea.	Torremolinos / Virreinasako esteka.
MA-21		Torremolinos (Málaga).
MA-22		Málaga porturako sarbidea.
MA-23		Málaga aireporturako hegoko sarbidea.
MA-24		Málagarako ekialdeko sarbidea (La Araña).
MA-30		Málaga mendebaldeko erronda.
ME-11		Méridarako iparreko sarbidea.
ML-101		ML-300 / Farhanako muga-postua errepide perimetrala.
ML-204		Melillako hiri / M-300.
ML-300		Melillako errepide perimetrala.
MU-30		Murtziako ingurabidea.
MU-31		Murtziarako hego-mendebaldeko sarbidea.
N-1	Madril-Irun.	Madrid (Lozoyuela) / Álava/Arabako L.P.
N-1A	Madril-Irun.	
N-1R	Madril-Irun.	
N-110	Soriatik Plasenciara.	San Esteban de Gormaz (lot. N-122rekin) / Plasencia.
N-110A	Soriatik Plasenciara.	
N-111	Madriidik Iruñera eta Donostiara.	Medinaceli (lot. N-112rekin) / L.P. Errioxa-Nafarroa.
N-111A	Madriidik Iruñera eta Donostiara.	
N-113	Soriatik Iruñera.	Ágreda (lot. N-122rekin) / L.P. Errioxa-Nafarroa.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
N-120	Logroñotik Vigora.	Logroño (lot. N-232 eta LO-20rekin) / Pontearreas (lot. A-52rekin).
N-120A	Logroñotik Vigora.	
N-121	Tarazonatik Frantziara Dantxarinetatik.	Tarazona (lot. N-122rekin) / L.P. Zaragoza-Nafarroa.
N-122	Zaragozatik Portugalera Zamoratik.	Zaragoza (lot. N-232 eta AP-68rekin Gallurren) / Portugalekiko muga.
N-122A	Zaragozatik Portugalera Zamoratik.	
N-123	Zaragozatik Frantziara Arango Haranetik.	Barbastro (lot. N-240rekin) / Benabarre (lot. N-230ekin).
N-123A	Zaragozatik Frantziara Arango Haranetik.	
N-124	Logroñotik Gasteizera.	Gimileo (lot. N-232rekin) / L.P. Errioxa-Araba (Briñas).
N-125	Zaragozako aireporturako sarbidea.	Zaragozako aireportua / Zaragoza (lot. A-2rekin).
N-126	Sarbidea A-68 autobiderra.	Casalarreina (lot. LR-111rekin) Esteka AP-68rekin.
N-141	Bossostetik Frantziara Postillondik.	Bossost (lot. N-230rekin) / Frantziarekiko muga.
N-145	Seu d'Urgelletik Andorrara.	Seu d'Urgell (lot. N-260rekin) / Andorrarekiko muga.
N-152	Bartzelonatik Puigcerdá-ra.	Puigcerdá (lot. N-260rekin) / Frantziarekiko muga.
N-154	Lliviarako sarbidea.	Puigcerdá (lot. N-152rekin) / Llivia.
N-156	Gironako aireporturako sarbidea.	Gironako aireportua / Girona (lot. A-2rekin).
N-2	Madriidik Frantziara Bartzelonatik.	Guadalajara (Torija) / Frantziarekiko muga La Jonqueratik.
N-2A	Madriidik Frantziara Bartzelonatik.	
N-2D	Madriidik Frantziara Bartzelonatik.	
N-2E	Madriidik Frantziara Bartzelonatik.	
N-204	Cuencatik Sorriara.	Sacedón (lot. N-320rekin) / Almadrones (lot. A-2rekin).
N-211	Guadalajaratik Alcañizera eta Lleidara.	Alcolea del Pinar (lot. A-2rekin) / Fraga (lot. A-2rekin).
N-211A	Guadalajaratik Alcañizera eta Lleidara.	
N-220	Valentziako aireporturako sarbidea.	Manises (lot. V-11rekin) / Paterna (lot. V-30ekin).
N-223	Teruelerako sarbidea hego-ekialdetik.	Lot. 234rekin / Teruel
N-225	Terueletik Grao de Castellón de la Plana/Castelló de la Planara.	Lot. A-23rekin / Grao de Castellón de la Plana/Castelló de la Plana.
N-230	Tortosatik Frantziara Arango Haranetik.	Lleida (lot. A-2rekin) / Frantziarekiko muga Canejandik.
N-232	Vinaròsetik Santanderrera.	Vinaròs / Escudoko mendatea (lot. N-623rekin).
N-232A	Vinaròsetik Santanderrera.	
N-234	Sagunto/Sagunt-etik Burgosera.	Sagunto/Sagunt (lot. AP-7rekin) / Burgos (lot. A-1ekin).
N-234A	Sagunto/Sagunt-etik Burgosera.	
N-235	Ampostarako sarbidea AP-7tik.	Lot AP-7rekin / L'Aldea (lot. N-340rekin).
N-238	Vinaròseko porturako sarbidea.	Vinaròs / Lot. AP-7 eta CV-102rekin.
N-240	Tarragonatik Donostiara eta Bilbora.	Tarragona (lot. N-340rekin) / L.P. Zaragoza-Nafarroa.
N-240A	Tarragonatik Donostiara eta Bilbora.	
N-241	Tarragonako porturako sarbidea.	Lot. A-7 eta A-27rekin / Tarragonako portua.
N-260	Ardatz Pirenaikoa.	Frantziarekiko muga Portboutik / Sabiñanigo (lot. N-330ekin).
N-260A	Ardatz Pirenaikoa.	
N-3	Madriidik Valentziara.	Madrid (Arganda, lot. A-3rekin) / Buñol (lot. A-3rekin).
N-3A	Madriidik Valentziara.	
N-301	Madriidik Cartagenara.	Ocaña (lot. A-4rekin) / Cartagena (La Rambla, lot. A-30ekin).
N-301A	Madriidik Cartagenara.	
N-310	Ciudad Realetik Valentziara.	Manzanares (lot. N-430ekin) / Villanueva de la Jara (lot. CM-311rekin).
N-320	Albacetetik Guadalajarara eta Burgosera.	Cuenca (lot. N-420rekin) / Venturada (lot. A-1ekin).
N-320A	Albacetetik Guadalajarara eta Burgosera.	
N-322	Kordobatik Valentziara.	Linares (lot. A-32rekin) / Requena (lot. N-3rekin).
N-322A	Kordobatik Valentziara.	
N-323	Bailéndik Motrileko portura.	Bailén / Motrileko portua (lot. N-347GRrekin).
N-323A	Bailéndik Motrileko portura.	
N-325	Terueletik Murtziara.	Novelda (lot. A-31rekin) – Crevillent (lot. N-340rekin).
N-330	Alicante/Alacant Frantziara Zaragozatik.	Almansa (lot. A-31rekin) – Frantziarekiko muga Candanchutik.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
N-330A	Alicante/Alacant Frantziara Zaragozatic.	Córdoba (Espinoko aldapa, lot. A-4rekin) / Antequera (lot. A-45ekin).
N-330B	Alicante/Alacant Frantziara Zaragozatic.	
N-331	Kordobatik Málaga.	
N-331R	Kordobatik Málaga.	San Pedro del Pinatar (lot. AP-7rekin) / Valentzia (Sueca, lot. A-38rekin).
N-332	Cartagenatik Valentziara.	
N-332A	Cartagenatik Valentziara.	Alicante/Alacant (lot. A-70ekin) / Alicante/Alacant (lot. N-332rekin). Gandía (lot. N-332rekin) – Grao de Gandía.
N-332R	Cartagenatik Valentziara.	
N-334	A-70 konexioa / N-332.	
N-337	Gandiako porturako sarbidea.	
N-338	Alicante/Alacanteko aireporturako sarbidea.	
N-339	Sevillako aireporturako sarbidea.	A-4 / San Pabloko aireportua.
N-340	Cádiz eta Gibraltartetik Bartzelonara.	San Fernando (lot. A-4rekin) / Bartzelona (Molins de Rei, lot. B-23rekin).
N-340A	Cádiz eta Gibraltartetik Bartzelonara.	Venta del Pobre (lot. A-7rekin) / Carbonerasesko portua. Puerto Lumbreras (lot. A-91rekin) / L.P. Almería-Murtzia (lot. A-91rekin).
N-340B	Cádiz eta Gibraltartetik Bartzelonara.	
N-341	Carbonerasesko porturako sarbidea.	
N-342A		
N-343	Cartagenako portuko Escombrerasesko kairako sarbidea.	Los Jorqueras (CT-34) / Escombrerasesko portua.
N-343A	Cartagenako portuko Escombrerasesko kairako sarbidea.	
N-344	Almeriatik Valentziara Yeclatik.	Las Torres de Cotillas / Fuente la Higuera (lot. A-35ekin).
N-345	Cartagenako portuko Portmáneko kairako sarbidea.	La Unión / Portmáneko portua.
N-346	Jerez de la Fronterako aireporturako sarbidea.	A-4 / Jerezko aireportua.
N-347AL	Almeriako aireporturako sarbidea.	A-7 / Almeriako aireportua.
N-347GR	Motrialeko porturako sarbidea.	N-340 / Motrialeko portua.
N-349	Jerez de la Fronterarako ipar-ekialdeko sarbidea.	Jerez (A-4) / Jerez (A-4R).
N-350	Algecirasera sarbidea.	A-7 / Algeciras.
N-351	La Línearako sarbidea.	Campamento (CA-34) / La Línea de la Concepción.
N-352CE	Ceutarako sarbidea.	Ceuta / Marokorekiko muga El Tarajaletik (lot. N-362rekin).
N-354	Ceutarako sarbidea.	Ceuta / Marokorekiko muga Benzúतिक (lot. N-362rekin).
N-357	Iparreko sarbidea Algeciraseko portura.	Algeciras (lot. A-7rekin) / Algeciraseko portua.
N-362	Ceutako muga.	El Tarajal (lot. N-352CErekin) / Benzú (lot. N-354rekin).
N-4	Madriidik Cádizera.	Toledo (La Guardia) / Cádiz (San Fernando).
N-4A	Madriidik Cádizera.	
N-4A	Madriidik Cádizera.	
N-4R	Madriidik Cádizera.	
N-400	Toledotik Cuencara.	Toledo (lot. TO-23rekin) / Cuenca (lot. N-320rekin).
N-400A	Toledotik Cuencara.	
N-401	Madriidik Ciudad Realera Toledotik.	Toledo (Cabañas de La Sagra) / Ciudad Real (N-430C).
N-401A	Madriidik Ciudad Realera Toledotik.	
N-403	Toledotik Valladolidera.	Toledo (lot. TO-20rekin) / Adanero (lot. N-601ekin).
N-403A	Toledotik Valladolidera.	
N-420	Kordobatik Tarragonara Cuencatik.	Montoro (lot. A-4rekin) / Tarragona.
N-420A	Kordobatik Tarragonara Cuencatik.	
N-420A	Kordobatik Tarragonara Cuencatik.	
N-420R	Kordobatik Tarragonara Cuencatik.	
N-430	Badajozetik Valentziara Almansatik.	Torrefresneda (lot. A-5ekin) / Almansa (lot. A-31 eta A-35ekin).

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
N-430A	Badajozetik Valentziara Almansatik.	
N-430A	Badajozetik Valentziara Almansatik.	
N-430C	Badajozetik Valentziara Almansatik.	
N-431	Sevillatik Portugalera Huelvatik.	Huelva (lot. H-31rekin) / Ayamonte (lot. A-49rekin).
N-432	Badajozetik Granadara.	Badajoz (lot. BA-20rekin) / Granada (lot. A-92Grekin).
N-432A	Badajozetik Granadara.	
N-433	Sevillatik Lisboara.	Venta del Alto (lot. N-630ekin) – Portugalekiko muga Rosal de la Fronteran.
N-435	Badajoz eta Zafratik Huelvara.	Badajoz (La Albuera, lot. N-432rekin) / Huelva (San Juan del Puerto, lot. A-49rekin).
N-435A	Badajoz eta Zafratik Huelvara.	
N-437	Kordobako aireporturako sarbidea.	Kordoba (lot. CO-32rekin) / Kordobako aireportua.
N-442	Huelvako kanpoko porturako sarbidea.	Huelva (lot. H-30ekin) / Huelvako portua.
N-443	Cádizerako sarbidea N-IVtik.	Puerto Real (lot. CA-35ekin) / Cádiz (lot. CA-33rekin).
N-444		Cartaya/Lepe (N-431) / A-49.
N-445		Lepe (N-431) / A-49.
N-446		Pozo del Camino (N-431) / A-49.
N-5	Madrildik Portugalera Badajozetik.	Toledo (Valmojado, lot. A-5ekin) / Badajoz (lot. A-5ekin).
N-5A	Madrildik Portugalera Badajozetik.	
N-501	Madrildik Salamancara.	Ávila (lot. A-51rekin) / Salamanca (lot. A-50ekin).
N-502	Ávilatik Kordobara.	Ávila (lot. N-110ekin) / Espiel (lot. N-432rekin).
N-502A	Ávilatik Kordobara.	
N-521	Trujillotik Portugalera Valencia de Alcántaratik.	Trujillo (lot. N-5ekin) / Portugalekiko muga Valencia de Alcántaratik.
N-525	Zamoratik Santiago de Compostelara.	Benavente (lot. A-6rekin) / Santiago de Compostela (lot. SC-11rekin).
N-532	Veríndik Portugalera.	Verín (lot. N-525ekin) / Portugalekiko muga.
N-536	Leondik Ourensera.	Ponferrada (lot. N-6rekin) / Barco (lot. N-120rekin).
N-540	Lugotik Portugalera Ourensetik.	Lugo (lot. N-6rekin) / Cambeo (N-525).
N-541	Ourensetik Pontevedrara.	Barbantes (N-120) / Pontevedra.
N-542	Ourenserako sarbidea.	Ourense (trenbidearen gurutzea / N-525).
N-544	Ourenserako sarbidea.	Ourense (N-525 konexioa / N-120).
N-547	Lugotik Santiago de Compostelara.	Guntín (lot. N-540rekin) / Santiago de Compostelako aireportua (lot. A-54 eta N-634rekin).
N-550	Coruñatik Tuir.	Coruña (lot. AC-11rekin) / Porriño (A-52).
N-550A	Coruñatik Tuir.	
N-551	Tuirako sarbidea.	Tui (lot. A-55ekin) / Portugalekiko muga Tuitik.
N-552	Vigoko porturako sarbidea.	Redondela (lot. N-550ekin) / Vigo.
N-554	Redondelarako sarbidea.	Vilaboa (lot. N-550ekin) / Randeko zubia (lot. AP-9rekin).
N-555	Vigoko aireporturako sarbideak.	Redondela (lot. N-550ekin) / Peinador (N-556).
N-556	Vigoko aireporturako sarbideak.	N-555 / Vigoko aireportua.
N-559	A-52 konexioa / N-120.	A-52 / N-120.
N-6	Madrildik Coruñara.	Madrid (Villalba, lot. A-6rekin) / Coruña (lot. AC-12rekin).
N-6A	Madrildik Coruñara.	
N-601	Madrildik Leonera Valladolidetik.	Adanero (lot. N-6rekin) / León (lot. LE-20rekin).
N-603	Madrildik Segoviara.	San Rafael (lot. N-6rekin) / Segovia (lot. AP-61ekin).
N-610	Palentziatik Ourensera.	Palentzia (A-65) / Benavente (A-6).
N-610A	Palentziatik Ourensera.	
N-611	Palentziatik Santanderrera.	Palentzia (P-12) / Santander.
N-611A	Palentziatik Santanderrera.	
N-620	Burgosetik Portugalera Salamancatik.	Burgos (N-120) / Portugalekiko muga Fuentes de Oñorotik.
N-620A	Burgosetik Portugalera Salamancatik.	
N-620R	Burgosetik Portugalera Salamancatik.	

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
N-621	Leondik Santanderrera Potesetik.	León (lot. LE-20rekin) / Unquera (lot. N-634rekin).
N-622		Lerma (lot. A-1ekin) / Quintana del Puente (lot. A-62rekin).
N-622A		
N-623	Burgosetik Santanderrera.	Burgos (lot. BU-30ekin) / Santander (lot. S-10ekin).
N-625	Leondik Santanderrera Cangas de Onísetik.	Mansilla (N-601) / Ariondas (N-634).
N-627	Burgosetik Aguilar de Campoora.	Burgos (Ubierna, lot. N-623rekin) / Aguilar de Campoo (lot. N-611rekin).
N-627A	Burgosetik Aguilar de Campoora.	
N-629	Burgosetik Santoñara.	Cereceda (lot. N-232rekin) / Colindres (lot. N-634rekin).
N-630	Gijóndik Sevillako portura.	Oviedo (lot. A-66rekin) / Sevilla (SE-30).
N-630A	Gijóndik Sevillako portura.	
N-631	N-630 konexioa / A-52.	La Encomienda (lot. N-630ekin) / Santa Eulalia del Río Negro (lot. A-52rekin).
N-632	Ribadesellatik Luarcara Gijón eta Avilésetik.	Llövio (lot. N-634rekin) / Canero (lot. N-634rekin).
N-632A	Ribadesellatik Luarcara Gijón eta Avilésetik.	
N-633	Avilésarako sarbidea.	N-632 / Avilés.
N-634	Donostiatik Santiago de Compostelara.	L.P. Bizkaia-Cantabria / Santiago de Compostela (lot. A-54rekin).
N-634A	Donostiatik Santiago de Compostelara.	
N-634R	Donostiatik Santiago de Compostelara.	
N-635	Santanderretik Frantziara Donostiatik.	Santander (lot. S-10ekin) / Solares (lot. N-634rekin).
N-636	Santanderreko aireporturako sarbidea.	Santander (lot. S-10ekin) / Santanderreko aireportua.
N-640	Vegadeotik Vilagarcía de Arousako portura.	Barres (lot. N-634rekin) – Vilagarcía de Arousako portua.
N-640R	Vegadeotik Vilagarcía de Arousako portura.	
N-641	Gijóngo porturako sarbidea (Musel).	Gijón (lot. GJ-81ekin) / Gijóngo portua (Musel).
N-642	San Ciprián porturako sarbidea.	Vegadeo (N-640) – San Ciprián portua.
N-643	Asturiasko aireporturako sarbidea.	N-632 / Aireportua.
N-651	Ferroleko porturako sarbidea.	Betanzos (lot. N-6Arekin) / Ferrol (lot. FE-14rekin).
N-655	Ferroleko porturako sarbidea.	Ferrol (lot. FE-12rekin) / Ferroleko kanpoko portua.
N-NADOR	Melillarako sarbidea.	Melilla / Marokorekiko muga.
O-11	Oviedorako ekialdeko sarbidea.	Ekialdeko sarbidea Fozaneditik.
O-12	Oviedorako hegoko sarbidea.	Hegoko sarbidea Gaztela plazatik.
O-14	Oviedorako iparreko sarbidea.	Elorza jenerala / A-66.
OU-11		Ourenserako erdiko sarbidea.
P-11		Palentziarako hegoko sarbidea.
P-12		A-67 eta N-611 konexioa.
PO-10		Pontevedrako ingurabidea.
PO-11		Maríngo porturako sarbidea.
PO-12		Pontevedrarako mendebaldeko sarbidea.
PU-11		Puertollanorako iparreko sarbidea.
S-10	Santanderreko ekialdeko sarbidea.	Solares / Santander.
S-20	Santanderreko mendebaldeko sarbidea.	Santa Cruz de Bezana / Santander.
S-21	La Marga-La Albericia banatzailea.	S-10 / S-20.
S-30	Santanderreko badiako erronda.	S-10 / S-20.
SA-11		Salamancarako iparreko sarbidea.
SA-20		Salamancako hegoko erronda.
SC-11		AP-9 eta AP-53ra (Castiñeiriño) sarbidea / Cornes (SC-20).
SC-20	Santiago de Compostelako periferikoa.	Santiago de Compostelako ingurabidea.
SC-21		Santiago de Compostelako aireporturako sarbidea.
SE-20	Sevillako iparreko erronda.	Sevillako iparreko ingurabidea.
SE-30	Sevillako ingurabidea.	Sevillako ingurabidea.
SE-40	Sevillako metropolialdeko ingurabidea.	Sevillako metropolialdeko ingurabidea.
SG-20		Segoviako ingurabidea.
SO-20		Soriako ingurabidea.

Errepidea	Izendapena	Erreferentziako ibilbidea J/H
T-11		Reus-Tarragona.
TO-20		Toledoko ingurabidea.
TO-21		Toledorako mendebaldeko sarbidea.
TO-22		Ekialdeko sarbidea A-40tik.
TO-23		Toledorako hego-ekialdeko sarbidea.
V-11		Valentziako aireporturako sarbidea.
V-21		Puçol / Valentzia.
V-23		Sagunto/Sagunt-eko porturako sarbidea.
V-30		Hegoko sarbidea Valentziako portura.
V-31		Valentziarako hegoko sarbidea.
VA-11		Valladoliderako ekialdeko sarbidea.
VA-12		Valladoliderako hegoaldeko sarbidea.
VA-20		Valladolideko ingurabidea.
VA-30	Valladolideko kanpoko erronda.	Valladolideko ingurabidea.
VG-11	Vigoko aireporturako sarbidea.	Vigoko aireporturako sarbidea.
VG-20	Vigoko bigarren gerrikoa.	Vigoko bigarren gerrikoa.
Z-40		Zaragozako ingurabidea.
ZA-11		Zamorarako iparreko sarbidea.
ZA-12		Zamorarako ekialdeko sarbidea.
ZA-13		Zamorarako hegoaldeko sarbidea.
ZA-20		Zamorako ingurabidea.